Henri DUHAU



HASIAN HASI

BESKOITZEKO EUSKARA
(BESKOITZEKO HESKUARA)

Henri Duhau
1942an sortua, Beskoitze Iturraldean.
Laborantzako ikasketak lehenik ;
1964tik, lur berri egiten teknikari gisa, Donapaleutik.
1968an, Senpererat ezkondurik, merkataritzan erretretarat heldu arte.
Asko elkartetan parte hartu du : kristau mugimendu alorrean, euskal kultura eta politika sailetan ere bai.
Lehenbiziko artikulua *Gazte* kazetan, 1961eko urtarrilean. Idazten jarraitu du : *Herria, Otoizlari, Dantzariak, Ekaina, Denak Argian* eta *Enbata*n.
Liburuak :
1993: Hasian hasi (lehena, sort herriko euskara) ;
1996 : Euskal aditz batua, entsegu gisa ;
2000 : Aupa batasuna (artikulu bilduma, gai politikoak) ;
2002 : Hasian hasi (birdena, sort herriko euskara) ;

© Henri DUHAU
48, Karrika nagusia 64310 Senpere

Estalkia : IRKUS

Inprimatzailea : AKOKA, Donibane Lohizune

Dépôt légal : 1er trimestre 2003.

Henri DUHAU

HASIAN-HASI

"Birdena" edo bigarren partea

BESKOITZEKO EUSKARA

[BEZKOITZEKO HESKUARA]

Bilingue (2ème édition)

2002

MILESKER BEREZIAK

Eskerrik bizienak bere diruztatzeagatik
Euskal Kultur Erakundeari

Vifs remerciements pour son aide financière
à l'Institut Culturel Basque

◆ ◆ ◆ ◆ ◆ ◆ ◆ ◆ ◆ ◆◆ ◆ ◆ ◆ ◆ ◆ ◆ ◆

Laguntzaileen eta sustengatzaileen izen batzu aurkituko ditutzu 457 - 458 orrialdeetan baina heien artean badira hiru berezikiago eskertu nahi nituzkeenak.

Lehenik ama zena, Xane DUHAU sortzez LAFOURCADE. Joan den urrian galdu ginuen, 93 urtetan. Iturraldeko alaba zen. Memorio gaitza zuen. Faltsukeria ere ez zuen bada harek pentsatuia! Nork daki zonbat zor dakon liburu hunek?

Gero bi aitak (...), hek lehenago zenduiak, aipatu behar ditut baitezpada, lan hau egitean beti gogoan ukan baititut :

— Piarres DUHAU aita zena, langile eta mintzatzaile ezin hobea ; denek "Piarres Ithurralde" deitzen zuten ;

— Piarres LAFITTE Jaun Kalonje zena, enetzat aita izpirituala izan dena ; lan batzu "Piarres Ithurralde" siñatu zituen.

"Iturri aldeetan" sortu eta ibili naiz beraz bainan hetan ez duket aski edan, bertzela lan hau hobea izanen zen... Dena den, bego hortan, eta goazen, entseia bederen, zerurat joaitean utzi zauzkiguten mahastien lantzerat, aitzur eta jorra !

H.D.

Aurkibidea

Aurkibidea 5
Hasian-hasi, jo aitzina 17
Lehenik denak bilduz 18
Zertako holako lanak 18
Zailena itzulpenen egitea 19
Dena errankizun eta ahopaldi 19
Gure jite griñatsuia 19
Kasu erranaldi batzu noiz erabil 20
Elhea = hitza + soinuia 20
Hitz batzuien galtzea 21
Gure hizkuntza ondare baliosena 22
Hizkuntza xehearen beharra 23
Euskaldun berri eta zaharren lokarri 24
Jendearen parte hartzea xekhatu 24
Euskaldunak iratzartzen ari 24
Birden liburu edo bigarren parte hunen sail nagusiak 25
Denentzat lana 26
Oharrak/ *Remarques générales* 27

Usuienik agertzen diren hitzen inguruian

ABANTZU// ABANTZATU// ABANTXU 31
ADI// ADITU 32
AFERA// AFERATU 32
AGER// AGERI// AGERTU 33
AHAL 34
AHO 35
AIPU// AIPATU 36
AIRE// AIRATU 37
AISE 38
AITZIN// AITZINATU 39
AIZINA// AIZINATU 40
ALA 40
ALABAINAN 41
ALDA// ALDARATU 41
ALDE// ALDERDI 42
ALDI 43
ALFER// ALFERTU 44
ALTXA// ALTXATU 44
AMAKATUiA 45

ARI// ARI IZAN 45

ARIN// ARINDU 48
ARRAS 49
ARRISKU (*Voir:* HIRRISKU)
ARRUNT 49
ARTE 49
ASKI 50
ASTO// ASTOTU 51
ATXIK// ATXIKI 52
ATZEMAN (*Voir:* HATZEMAN)
AZKAR// AZKARTU 54
AZKEN 55

BADA 56
(BALIN) BADA 57
BAI 57
BAINAN 58
BAINO 59
BAIZIK (*Voir:* BEZIK)
BAKAR 60
BALI// BALIO// BALIATU 60
BARDIN// BERDIN 61
BARKA// BARKATU 62
BARNA// BARNATU 63
BARNE 63
BASA// BASATU 64
BAT 64
BATERE 66
BAZTER// BAZTERTU 66
BEDEREN 67
BEGI 68
BEGIRA// BEGIRATU 69
BEHA// BEHATU 70
BEHAR// BEHARTU 70
BEHARBADA 75
BEHEITI// BEHEITITU 75
BEHERA// BEHERATU 76
BEKATU 76
BELDUR// BELDURTU 76
BELTZ// BELZTU 77
BER// BERA 78
BERE// BERETU 79
BERANT 80
BERDIN (*Voir:* BARDIN)
BERO// BEROTU 81
BERRI// BERRITU 82
BERTZE 83
BETE 85

BETI 85
BEZAIN (*Voir:* BEZIN)

BEZALA// BEZALAKATU 86
BEZIK 88
BEZIN// BEZINBAT 88
BIDE 89
BIL// BILDU 90
BIZI 91
BIZIKI 93
BOZ 94
BURU// BURUTU 94
BUZTAN// BUZTANDU 98

DEBRU// DEBRUTU 99
DEGIAK 100
DEN// DENA 100
DENBORA 103
DEUS 104
DOLU// DOLUTU 105

EDER// EDERTU 105
EDO 106
EGIA 107
EGIN 107
EGINAHAL 112
EGON 113
EGUN 113
EIAN 114
EKAR// EKARRI 115
ELGAR 116
ELHE 117
EMAN 117
EMAZTE// EMAZTETU 120
EMENDA// EMENDATU 120
ERABILI (*Voir:* IBILI)
ERDI 121
ERE 122
ERRAZ (*Voir:* ERRETX)
ERRAN 124
ERREIAL 127
ERRETX// ERREXTU 127
ERRO// ERROTU 128
ESKAS// ESKASTU 128
ESKER 129
ESKU 129
ESPERANTZA 130
ESTAKURU 131
ETXE 131

EZ 133
EZAGUN// EZAGUTU 134
EZIN 134

FALTA// FALTATU 135
FITS 136
FRANGO 137
FUNTS 137

GABE// GABETU 138
GAIN 139
GAITZ 141
GAIXTO// GAIXTOTU 142
GAIZKI// GAIZKITU 143
GAIZO// GAIXO// GAIXOTU 143
GARBI// GARBITU 144
GAUZA 145
GEHIAGO 145
GELDI// GELDITU 147
GERO 147
GIBEL// GIBELATU 148
GISA 149
GIXAKO 150
GIZON// GIZONDU 150
GOGO// GOGOETATU 152
GOGOR// GOGORTU 153
GOITI// GOITITU 154
GOMIT// GOMITATU 155
GORA// GORATU 155
GORRI// GORRITU 156
GOSE// GOSETU 157
GOSTA 157
GOSTU 158
GUTI// GUTITU 159
GUZI 160
HAATIK 161
HALERE 162
HANBAT 162
HANDI// HANDITU 163
HAR// HARTU 165
HAREN 166
HARRITU 167
HAS// HASTE 168
HATS 168
HATZ 169
HATZEMAN// HATXEMAN 169
HAUR// HAURTU 171
HEDA// HEDATU 172

HEIN 172
HEL// HELDU 173
HIGI// HIGITU 174
HIL 175

HIRE// HIRETU 177
HIRI 178
HIRRISKU// HIRRISKATU 178
HISTU 178
HOBE// HOBETU 179
HOTS 180
HUNKI// HUNKITU 181
HURBIL// HURBILDU 181

IBIL// IBILI 182
IDURI// IDURITU 183
IHETS// IHETSI 184
IKUS// IKUSI 185
IRRI 186
IRETSI (*Voir:* IHETSI)
IRRISKU (*Voir:* HIRRISKU)
ITO 187
ITZUL// ITZULI 187
IXTORIO 188
IZAN 189
IZI// IZITU 190
IZIGARRI 190

JAINKO 191
JAKIN 192
JAL// JALI 193
JAN 193
JENDE 195
JIN 197
JOAN 198
JOHAN 200
JOKO// JOKATU 201

KARI 202
KASIK 203
KASKO 203
KASU 204
KEN// KENDU 204
KETA 205
KEXU// KEXATU 205
KONDU// KONDATU 206
KONPARA// KONPARATU 206
KOSTA (*Voir:* GOSTA)
KUNTRE 207

KURRI// KURRITU 207

LAKET// LAKETU 208
LAN// LANTU 209
LEHER// LEHERTU 211

LEKU 211
LEPO 212
LO// LOKARTU 213
LODI// LODITU 214
LORIA// LORIATU 214
LOT// LOTU 215
LUR// LURTU 215

MAITE// MAITATU 216
MANERA 217
MEHE// MEHATU 217
MEHEXI// MEHEXITU 218
MENTURA// MENTURATU 219
MEREZI (*Voir:* MEHEXI)
MIHI 219
MIN// MINTU 220
MINTZO// MINTZATU 221
MIRAKULU 221
MOLDE// MOLDATU 222
MOTZ// MOZTU 222
MUNDU 223
MUNTA// MUNTATU 223
MUTIKO 224

NAGUSI (*Voir:* NAUSI)
NAHAS// NAHASI 225
NAHI 226
NAUSI// NAUSITU 228
NESKA 229
NOIZ// NOIZBAIT// NOIZNAHI 229
NOLA// NOLAZPAIT// NOLANAHI 229
NOR// NORBAIT// NORNAHI 230
NUN// NUNBAIT// NUNAHI 231

ODOL 231
ON// ONTU 232
ONDO 235
ONTSA (*Voir:* UNTSA)
ORAINO 237
ORDE// ORDEAN 237
ORHOIT// ORHOITU 238
ORO 238
OROBAT 239

PASA// PASATU 239
PENTSU// PENTSATU 240
PIKO// PIKATU 242
PLANTA// PLANTATU 242
POLLIT (*Voir:* PULLIT)
POZI// POXI 242

PULLIT 243
PUSKA// PUSKATU 244

SALBU// SALBATU 245
SANJA// SANJATU 245
SARTU 246
SEGUR// SEGURTATU 247
SEKULA 248
SENDI// SENDITU 249
SINETS// SINETSI 250
SOBERA// SOBERATU 250
SU 251
SUDUR 251

TREBES// TREBESATU 252
TTIPI// TTIPITU 253
TZAR// TZARTU// TXAR 254

UNTSA 255
UKAN 257
URDE 257
USTE 258
USAIA 259
USU // USATU 260

XEKHA// XEKHATU 260
XIXTU (*Voir:* HISTU)
XORI (*Voir:* ZORI)

ZALU// ZALUTU 260
ZAHAR// ZAHARTU// XAHAR 261
ZER 263
ZERBAIT 263
ZERNAHI 265
ZIZTU (*Voir:* HISTU)
ZOIN 265
ZONBAIT 266
ZONBAT 267
ZORI// XORI 269
ZILO// ZILATU// XILO// XILATU 270
ZUZEN// XUXEN// XUXENDU 270

Bertze hitz zonbaiten inguruian 272

Aurrizki

ARRA- // ERRE- 283
BA- 283
BAIT- 283
DES- 284

Atzizki

-AGO// -AGOKO 285
-ARAZ // -ARAZI 285
-BAT 287
-DEGI/ -TEGI 287
-DUiA/ -TUiA 288
-DURA/ -TURA 288
-EGI 289
-ETA // zeren ETA 289
-GARRI 291
-KA 291
-KATU 294
-KERIA 294
-KI 295
-KOR/ -OR 295
-LE/ -TZAILE 296
-MENDU 297
-ÑO 294
-OKA// -TOKA 298
-OS/ -US 298
-RA 299
-SA 299
-TARA 299
-TASUN 299
-TEGI (*Voir:* -DEGI)
-TSU 300
-TTO 301
-TURA (*Voir:* -DURA)
-TZAILE (*Voir:* -LE/ -TZALE)
-XE 301
-ZIA 301
-ZKI 302
-ZKA// -ZKATU 302
-ZTA// -ZTATU 302

Adizki

(izan) ..... DEN// DELA 303
" ..... GITUK/ -N/ -TZU/ -TXU 304
" ..... HIZ 305
(ukan) ..... DUK/ -N/ -ZU/ -XU 305
" ..... DIK/ -N/ -ZU/ -XU 307
(edin) ..... HADI 308
(ezan) ..... (Z)AK/ -N/ -ZU/ -XU 309
(egon) ..... BEGO 310
" ..... DAGO 311
" ..... DAGOK/ -N/ -ZU/ -XU 311
(ibili) ..... DABILAK/ -N/ -ZU/ -XU 312
" ..... HABIL 312
(jakin) ..... DAKI 312
" ..... DAKIK/ -N/ -ZU/ -XU 313
" ..... DAKIAT/ -NAT/ -ZUT/ -XUT 313
(eman) ..... EMAK/ -N/ -ZU/ -XU 314
eta EZ DA// eta EZ DUT 315
EZ Banau.. 315
EZ BAnintzen 316

Deklinabide

-A 316
-AK 316
-ARI 316
-AREKIN 316
-AREN 318
-ARENTZAT 319
-Z 320
-Z GEROZ 323
-N 323
-TIK/ -DIK 327
-KO/ -GO 329
-RAT 332
-RAINO 334
-IK 334
-TZAT 336
-GANAT 337
-GANIK 337
-GATIK 337

-KOA 338
-KOAN 339
-KOTAN 339
-KOTZ 340
-KORIK 340

-KOTU / -GOTU 341
-XKO 341
-ZKO 342
-LAKO 342
-LAKOAN 342
-LAKOTZ 342
-LAKORIK 342
-LARIK(AN) 343
-NO 343
-NA 343
-NETZ 344

- Erakusle

HAU // HORI // HURA 344
HAUK // HAUEK 345
HORIK // HORIEK 345
HORRI // HORREN // HORREK 345
HUNTAZ // HORTAZ // HARTAZ 346
HUNTAN // HORTAN // HARTAN 346
HUNTAKO // HORTAKO // HARTAKO 347
HORRENGATIK 347
HOIN // HOINBERTZE 348
HAIN // HAINBERTZE 349
HOLAKO 349
HALAKO 350

Hitzak uztartuz

(ahala) ..... ALTXA AHALA...(bezalakoak) 351
" ..... BIL AHALA BIL 351
(egin) ..... DOLU EGITEN 352
" ..... AHALGE EGINGARRI 352
(eta) ..... AIPA ETA AIPA 353
" ..... GERO(AGO) ETA GEHIAGO 355
" ..... HI ETA NI 356

Hitzak doblatuz

ATXIK ATXIK. 356
BEREak BERE 359
JAUNen JAUNak 359
GOSTArik GOSTA 359
ETXEz ETXE 359

ONez ONean 359
HASIan-HASI 359
ALDE-ALDEan 360
BERDIN-BERDINa 361

ez duk AZKAR-AZKARra 362

HAGO istant bat HAGO 363
HAU duk HAU" 363

Gaien arabera

Zer konprenitu behar den 364
"GUTI" adiarazteko 365
"NOIZ" adiarazteko 366
"GU" eta "GURE" berezi batzu 370
"ZUEK" eta "ZUEN" berezi batzu 371
Plural berezi batzuk 372
Izendatzeko molde 373

Elheari arrapostu 375
Elhearen indartzeko 389
Elhearen eztitzeko 392
Errankizun 393

Larri-larria sailkatuz

Alor eta uzta 398
Arbola eta landare 400
Aro eta sasoin 402
Behi eta animale 406

Etxe eta barneak 410
Sos eta diru 411
Tresna eta muntadura 413

Familia eta ahaide 415
Gorputz eta arima 417
Osagarri eta eritasun 420
Jateko eta edateko 425
Jauntzi eta apaindura 427

Lan mota eta ofizio 429
Izartu eta pizatu 433
Funditu eta zapatu 435

Pilota eta joko 435
Pesta eta erlisione 436
Oihu eta harrabots 437

Jite eta jaidura 440
Laneko gogo eta jemen 444
Gomendio eta erasia 446
Oharpen eta laudorio 448

Elhe airos eta kitzikari 450
Elhe bortitz eta xorrotx 453
Elhe sano eta zintzo 454

Aipatu pertsonak 457

HASIAN-HASI "Birdena" (Bigarren partea)

Hasian-hasi...

jo aitzina !

1993an jalgi zuzun* HASIAN-HASI "Lehena" (ene lanen lehen partea; eskuian duzun hau "birdena" baita.). Egia erran, hamar urte lehenago egina nizun* hura, bainan gero, urtetik urterat, poxi bat emendatuia. Birden lan hau, lehen haren segida duzu*: hura morfologiaz ari balin bazen, hau erranaldiez egina duzu* kasik dena. Bainan huna lehenik sail huni buruz hausnartu gogoeta batzu, sasien azpian lotsatuia nintzenean ere, lanari segiarazi nutenak.

*zen
*nuen
*da

Xuxen edo makur bakotxa bere uste eta ikusmoldeekin dabilazu*. Ene iduriko, azken 30 urte hauetan, **"gainetik"** akulaturik, gaitzeko urratsak emanak izan ditutzu* euskararen alde ; bertzaldetik ordean, euskararen erabilpena beti beheiti ari delarik Iparralde huntan. Orai agian ez dela berantegi **"beheretik"** abiatuz biderdia egiten entseiatzeko...

*dabila
*dira

Lehenik eta bat euskaldunek ez dakizugu* zer dakigun eta lantto hunek, zerbait gisaz, lagundu nahi likezu* sortzez euskalduna bere hizkuntzaren aberastasuneri ohartzen. Alabainan gaurko aro frantximenta jasaiten dugula-eta, nola iraun euskaldun, nola gaztettoeri maitaraz euskara, gure mintzairaren mamiaz deus jakin gabe ? Lehen naturalki gintutzun* euskaldun, bainan orai euskaraz mintzatzea "nahizko" eginkizuna duzu*, agian egun batez beharrezkoa izanen dena...

*dakigu
*luke
*ginen
*da

Euskaldun zaharrak (= sortzez euskaldunak) alfabetatuiak izanen ez direno bederen, ez ditutzu* nehorat bihurtuko. Heieri hurbiltzekotz, ahalaz heiekin bat egiteraino, euskaldun berriek, eta guk ere euskaltzalek, joan beharko dizugu* euskara mintzatu horri buruz, ez baitugu deusik galduko, bainan ainitz irabaziko ! Alabaina eskola bakarrik ez duzu* askiko euskara bizirik beiratzeko, ingurumen euskalduna ere behar-beharrezkoa izanen baitu irauteko.

*dira
*dugu
*da

Indar handiak eta goresgarriak egiten dititzie* euskal irakaskuntzaren alde, bereziki SEASKAn bainan ere eskola laiko eta libroetan. Eta ez dizut* ahanzten, bistan dena, Herria astekariak, Euskal Kultur Erakundeak, AEKren gau eskolek eta euskal irratiek eta bertze hainbertze euskal batasunek egiten dituzten lan ezinago baliosak ; bainan iduritzen zautazu* **herrietan ere, Herriko Etxeen laguntzarekin,** sail batzu idekitzen ahal litazkela. Gisa guziz higitu beharko dizugu* norapait, bertzenaz laster hizkuntza arrotz bat bezala bilakatuko baita euskara gure herrian...

*dituzte
*dut
*zaut
*dugu

Lehenik denak bilduz

dute Ene lanek, lehenbiziko harek ala birden hunek, helburu nagusia dizie* jendeak erabiltzen duen hizkuntza **biltzea.** Ez bakarrik gaurko moldeak, bainan ere duela 30 edo 40 urte erraiten zirenak.

zuen Zonbat aldiz ez da aditzen : "Gure aita zenak erraiten zian" edo gure amak, amatxik edo aitatxik. Edo oraino, halakoak holako gauza errana. Ahantzi gabe "beihalakoa" zoinak ainitz gauza erran baitzuen! Eta zonbat aldiz ez da aditzen :
da "Errana duk, bertzenaz ere" [errana-uk, bezanezee] eta hori errankizunentzat dugun atxkimenduiaren seinalea baita. **Bildu,** bai denak, etxean, auzoekin ala herritarren artean erraiten ziren edo diren bezala.

Jende batetik bertzerat, diferentzia batzu badirela, nehork ez daitzu ukatuko. Ez
du dizu balio, ordean, kexatzea hortako : **bildu denak, batzuienak eta bertzenak!** Ainitz erraiteko molde baduela euskarak, ez bakarrik elhe onak bainan ere txarrak eta bortitzak ere badauzkala? Beharrik badituela : biziaren gorabehera guzietan ez balitz sartzen, ez bailuke euskarak, hizkuntza izenik merezi!

*dute Gisa guziz, **geroak** eta **herriak** erranen dizie* zer beiratu eta zer ez. Artean, **bil, bil eta bil !** Bilduko ez duguna betikotz galduia izaiteko hirriskuian baita. Bilduz geroz,
dute zerbait egiten ahalko dizie gure ondotik jinen direnek, bai eta euskalariek ere.

Zertako holako lanak ?

Jadanik errana daitzut lehenbiziko partean, ez dela gure falta euskara galtzen ari bada. Gure kultura kendu eta kultura frantsesarekin ordaindu nahi ukan duten
da inperialista batzuien lana duzu hori. Lan okaztagarria. Bainan gu ere, ezazol hutsak
gintazke gintazketzu **egiten ahal** dugun hura egin ez bagineza! Egin dezakeguna : **bildu,** izkiriatuz edo zintan grabatuz mañetofona edo videoaren bidez. Zertako?

— Lehenbizikorik, euskara batua ez baita oraino sail guzietan finkatuia ; argitasun
décisions frango eskas baititu erabakiak hartzeko.

dugu — Bigarrenekorik, euskara batu hori baitezpadakoa dizugu geroago eta gehiago erabili beharko ditugun gai tekniko-zientifikoak ikasteko eta lantzeko edo oraino Euskal Herri guzian elgar ontsa konprenitzeko. Bainan, **etxean** edo **lagunartean**, hitzegiteko ez ote dugu hizkuntza **xeheagoko** bat behar ? Eta hortako, hain maite ditugun gure herrietako mintzatzeko moldeak baino hoberik ba ote dugu?

Horra hor, ene ustez, bi arrazoin handi euskalkiak lantzeko. Ene ikerketetan
dut joanago eta gehiago senditzen dizut, egun guzietako euskararen lantzearen beharra, etxean eta lagunartean erabiltzeko bai eta euskara batuari ekarpenak egiteko ere.

Erranen dautazu beharbada hemen diren hitz gehienak jadanik ezagutuiak direla. Xuxen zire ; bainan erakutsi nahi duguna duzu* hitz horik nola eta zoin kasutan
*da erabiltzen diren Beskoitzen. Erranen dukezu oraino molde horietarik frango ere ezagutuiak direla eta nun-nahi entzun ditazkela.

niz Xuxen zire berriz ere. Bainan ni ez nuzu herri batetako bitxikerien biltzailea
niz batere : herriko euskara ahalik eta osoena erakutsi nahiz ari nuzu. Behin betikotz
ginuke ezeztatu behar ginikezu zonbaitek oraino duten uzkurtasuna gure hizkuntzari buruz. Herabe horren ordez ausartzia bat sortzen baginu elgarrekin urrunago joaiteko?

Zailena : itzulpenen egitea

Lan zaila dela ? Biltzea baino, ahal bezain garbiki emaitea eta bereziki, frantses itzulpen baten kausitzea, hori duzu* zailena ! Zonbeit aldiz kasik ezinezkoa ! Orduian segi euskaraz, gostuian. Gisa guziz, hizkuntza batetik bertzerat itzultzea beti duzu* lan delikatuia ; hizkuntzak elgarrekin "ahaide" direnean ere ; hala-nola españoletik frantseserat edo alderantziz*.

*da
*da
* *inversement*

Euskaratik itzultzea oraino nekeago duzu*: hizkuntza mintzatuiaren ikertzen ari baigire hemen eta horren frantsesez izkiriatzea baino zailagokorik ez baita ; ez baitu harekin ahaidegorik (haren kutsadura frango bakarrik !). *Argot*-eko hitz zonbeit ere baliatu dititzut*. Hots, zerbait sendiarazi nahiz eta batzu bertzetarik berexi beharrez, ari izan nuzu*. Orai, irakurtzaileak ere, ez ote du indarño bat egin behar bere aldetik ?

*da
*ditut
*niz

Dena errankizun eta ahopaldi

Nornahik ikus dezakeena, euskaldunek errankizunak* maite ditugula. Emaztek gehiago gizonek baino, haatik : ez baita harritzeko lehen deitzen bazituzten "atsotitzak"! Bistan dena, arras gauza xehetan ez dela errankizun beharrik, bainan tresnak, gertakariak, jendeak edo jokatzeko moldeak jujatzen ditugularik, frangotan, jalgitzen dizugu* errankizun berezi bat, ahal bezain xuxena, gure erran-nahia indartzeko.

*dicton
*dugu

Hola duzu* Beskoitzen eta Senperen, eta hola duzu* Ezterentzubin ere, Eñaut Etxamendi-ren elheberrietan ikus ditakeen bezala. Uste dizut* hola dela Hegoaldean ere : ikus "Ortik eta Emendik" lan ikaragarria bere 90.000 erranaldiekin !

*da
*dut

Bertze batek erranen dizu* beharbada elhe goxo baino ahopaldi bortitz gehiago badela. Egia, naski, hori ere. Baina, xuxen ibiltzen diren tresna, gauza edo jendetaz ez duzu* deus erraitekorik eta ez duzu* deusik erraiten. Egia balin bada ere, etxe batzuietan, erlisioneari gain-gainetik atxikiak ziren familietan-edo, hizkuntza "goxoagoko" bat erabiltzen zutela, ene ustea duzu*, jende xehea trebeago zela/dela ahopaldi ginarritsu, zorrotz edo berdin gordinetan, "ontsa ikasien" elhe leunetan baino!

*du
*da
*da

Gure jite griñatsuia

Bertzalde, ohartuia ote zire, euskaldunak kexatzen direnean, hizkuntza "aberatsagokoa" erabiltzen dutela bertze orduz baino ? (Ez bada ere morala aldetik beti gomendatzekoa !) Baduzu* bertze memento bat ere zointan agertzen baita gure hizkuntzaren barnea : hori gertatzen duzu* hil baten inguruian girelarik. Orduian sartzen baitire faltsukeriak eta elhe funtsezkoenak emaiterat entseiatzen baigire. Balio likezu* gai hortaz luzakiago mintzatzea bertze aldi batez.

*bada
*da
*luke

Gure jitez erreski arranguratzen gitutzu* eta griñatzen. Ez ote dugu hori odolean askok ? "*L'inquiétude atavique"* aipatzen baitu Aita Pierre Lhande handiak, *"L'Émigration Basque"* 1910ean argitaratu zuen liburuian, biziki xuxentzat daukazut* ikusteko molde hori.

*gire
*daukat

Bainan arranguratsu eta griñatsu izaitetik, kexakor izaiterat, ez baita urrats bat baizik... Hots, zertaz mintzo da gehienki jendea : ontsa johan diren gauzez ala gaizki dituen aferez?

*dugu *da *dezazkegu Garbi ikusten dizugu*, ontsa johan direnez baino usuiago ari girela gure eztabada eta miserien aipatzen. Funtsean ez duzu* pollit batere, ontsa johan zauzkunez sobera mintzatzea : espantulari batentzat har gitzaten ez badugu nahi segurik... Arrangurak berriz, hek ere izarian ahalaz, bainan aise luzakiago eta xehekiago aipa dezazketzugu* halere.

diot Dena den, bortitzak izan ala goxoak, erranaldi horietarik adituko duzularik, berriz ere diozut, otoi otoi bil, diren bezala eta izkiria, gal ez diten. Beharbada ez duzu sekulan berriz adituko. Ez ahantz haatik esplikatzeko, ahal bezain xuxen, zer okasionetan errana izan den delako erranaldia.

Kasu erranaldi batzu noiz erabil

Hemen "egun guzietako hizkuntza" aipatzen delarik, ez uste ukan, haatik, egun guziez aditzen direla lantto huntan sartu ditudan erranaldi batzu! Horietarik zonbait arras bakan baliatzen baitire. Eman dezagun : "Zer gizon ulia" [ze gizon ulia] : Beskoiztar adineko batek erranen daitzu segidan : "Bai, hori erran ditakek" [bai, hoi erran takek]. Bainan galdegiten badakozu noiz aditu duen azken aldikotz ahopaldi hori, ihardetsiko daitzu, beharbada ez duela, berrogoi urte huntan, behin ere entzun !

nindakion Duela hamabortz bat urte ene ama zenari dena galde ari nintazkotzun: hau eta hura nola erraiten eta holako. Bet-betan, huna zer jalgi zautan : "Ez duk gehiago nehor hola mintzo !" [eztuk gehioo nehor hola mintzo]. Ez ziozun* hobeki erran. *zezakeen Azkeneko mende erdi huntan euskararen erabilpena ahuldu baita biziki hemen gaindi eta hizkuntza frantsesak kutsatu baigitu azkarki, telebista, eskola eta irakurketen bidez, bai eta ere frantximentak gure artean emendatzearekin. **Bainan konfientzia osoan ezartzen baduzu, bere hizkuntzari hurbilduz-eta, euskaldun zaharrak jalgiko dauzkitzu forma pollitak, han berean baitu bere lehenagoko orhoitmen edo memorio hura, itxindia hautsaren azpian bezala!**

Badakizu ere, Irakurtzaile Maitea, hemen diren errankizun eta ahopaldiak behar-den-bezala erabiltzen dituela euskaldun zaharrak eta ez nolanahika edo *environnement noiznahi. Biziki kasu egin behar baita ingurumenari*: gure erranaldiak, onargarri edo gaitzesgarri bihur baitezazke.

Elhea = hitza + soinuia

Bertze pondu bat ere hitza bera bezain inportanta dena : soinuia*. Hori *zaut aipatzean beti gogorat heldu zautazu* *"Hilh de pute !"* delako gaskoinen sakre *daukute famatuia. Dizka baten bidez erakusten daukuzie*, sakre horrek, 25 soinu desbardinekin, 25 erran-nahi desbardin sendiaraz dezazkela! Segur, guk ere, bakarrenak sendiarazten dituzkegula gure elhe edo juramentu zonbeiti emaiten *prononcer dakotegun airearekin ! Har dezagun **"uda"** hitza. Den bezala ahozkatzen* dizugu *ekaina normalki, baina eriaro* erditsutan-edo, urite luze baten ondotik iguzki bero bat agertzen bada eta nahi badugu gure atsegina azpimarratu, **uda, "a"** luze eta *dugu musikatu batekin sendiaraziko dizugu*.

Orokorki, elheketan artzean elgarrekin, soinu doi bat berezia eta ezaguna *dugu dizugu* beskoiztarrek, gure artean girelarik eta bereziki bazterrak omore onean. Segur, edozein erranalditan, soinuiak izigarriko garrantzia duela : mintzaira bat ez baita bakarrik hitzetan kokatzen; soinuiak, batzuietan erranarazten ahal baitako *du hitzari, erraiten duenaren kontrarioa! Gisa guziz, soinuiak "beztitzen" dizu* hitza eta emendatzen, kasik hitza bezain inportanta baita azkenekotz.

Hitz batzuien galtzea

Beskoitzeko euskalkiari behatzean segidan ikusten duzu* euskal hitz zahar eta eder batzu galdu dituela, gogoetagarria baita nolaz gertatu den ahultze hori. Etsenplu bat hartzeko : "iturria" hitza ez duzu* gehiago erabiltzen Beskoitzen eta "erreka"rekin ordaintzen dizugu*; biziki domaia baita, bistan dena. Nolaz galdu da bada gure herrian "iturri" hitz zahar hori, hain ezagutuia eta hedatuia delarik Euskal Herri guzian?

*da
*da
*dugu

Bi hitzez erraiteko —ikerketa* egiazko bat merezi lukelarik galde horrek— ene ustea duzu* hitz batzu etxe-izenetan sartu zituztelarik, hitz horik edo leku-izen horik, emeki emeki, baztertuiak izan zirela egun guzietako hizkuntzatik. **Hots, etxe-izen bihurtu zirenetik, hitz horiek sobera ETXE bat orhoitarazten zuketelakotz.**

*étude
*da

Ikusmolde hori onartzeko orhoitu behar litakezu* lehenik ETXEAren inportentziaz gure lehenagoko bizian. Dena haren inguruian itzulikatzen zuzun*! ETXEA baitzen ezaugarri nagusia. Euskaldun arrotz bati galdegiten ginakon lehen gauza : "Nungoa hiz ?" [nunkua-iz] gaztea balin bazen eta errespetuzko galdea zelarik berriz : "Nor zitugu ?" [nor zituu]. (Euskal Herri barnean oraino argiago dabiltzatzu*: "Zointakoa [zointakua] hiz edo zira?")

*litake
*zen
*dabiltza

Arrapostuia beti : "Ni, Iturraldekoa" [ni, Ithurraldekua]. Eta herriz kanpoan ginelarik : "Beskoitze, Iturraldekoa" [Bezkoitze Ithurraldekua]. Dena den, beti etxe-izenarekin ihardesten ginizun* nor ginen. Auzo herrietako etxe batzu ere ezagutzen gintitzun*, famaz, eta heien goiti-beheitiak segitzen, bederazka barneko nehor ezagutu gabe !

*ginuen
*ginituen

Horra nola ene uste xumez gure herrian :

— ITURburuia, ITURbidea, ITURraldea etxe-izenek galarazi zuketen "iturri" hitza eta bertze izen batez -"erreka"rekin gehienetan - ordaindu. (Erran dezagun, haatik, "iturria" denek konprenitzen dutela baina ez erabiltzen, nun ez den, beharbada, bertze norbaiten elheak aipatzeko-edo.)

— LARREA, LARREburuia, LARRaldea, LARRondoa etxe izenek kanbiarazi zuketen "larre" hitz zaharrari bere lehenagoko erran-nahia, zoina baitzen : alhalekuia; orai "otarra"ren gisako zerbait adierazten baitu "larre" hitzak.

— LOHIztegia-k [Loixteeia-k] galarazi zuken "lohi" hitzari erran-nahi bat, orai "parta" gaskoinetik jin hitzarekin ordaintzen duguna; "lohikeria" erlisione gaietan erabiltzen baita bakarrik.

— GARAI* hitza ere suntsitu zitaken etxe izenetan sobera sartu zuketelakotz, ikus : LandaGARAIA, DorreGARAIA, Hi(ri)barneGARAIA, HiriGARAIA, EtxeGARAIA...

*lieu élevé

— MULOA-k [Mulhua-k] galarazi zuken "mulho"* hitza.

* mamelon (colline)

— LAHARRAga etxe izena ere hor bainan Beskoitzen "lapharra"* erraiten aihen ziztadunari. Senperen gauza bera, bainan alderantziz : "Laparrenea" etxe-izena eta "laharra" delako sasietako aihen ziztadunari.

*ronces

— ORDOKIA etxe izenak ere, galarazi zuken "ordoki" hitza, orai "planuia" erraiten baitugu.

dauzkit *niz *niz *prononc *ginuen *da

Hain xuxen, azken kasu hunek dauztatzu* gogoeta hauk sorrarazi. Biziki ontsa orhoit nuzu* **baginakiela** "ordoki" hitzak zer erran nahi zuen eta halere beti "planuia" erraiten ginuela. Norbeitek, auzoen artean-edo, erran bazuen: "Orga hoik desatela zatzik ordokian!" segur nuzu* bertze batek ihardetsiko zakola : "Ba, Ordokia Salinetan duk" edo holako astokeria zerbait. Hots, "ordokia" ahozkatuz* geroz, berehala **izen hortako etxeari** eta horko norbaiti pentsatzen ginizun* eta hortarik heldu duzu* ene ustea.

*bada *zuen *zuen

Halaber Azkainen baduzu* etxe bat izena duena "Handienea". Behin erretor berri batek, herria ez baitzuen oraino ontsa ezagutzen, erran zizun* Pazko goizeko mezan : "Aratsalde huntan bezperak emanen ditugu handienean." *App. Cet après-midi nous célébrerons les vêpres avec un maximum de solennité.* Eliza guziak irri egin zizun*! (Jean-Pierre Soudre "Larreko"k kondatuia 1987.) Ez ote du horrek ere ene ustea ederki egiaztatzen?

*badute *dut *zaut

Gisa berean, Senperen badizie* elkarte edo batasun bat biziki inportanta eta aspaldikoa deitzen dena "Emak-Hor". Eta behin ere ez dizut* aditu hitz horiek erabiltzen egun guzietako hizkuntzan. Zertako? Gorago eman arrazoin berberarengatik ene ustez : hitz horiek sobera orhoitarazten baitukete delako elkartea.... Halaber, iduritzen zautazu* izengoiti batek ere galaraz dezakeela hitz bat egun guzietako hizkuntzatik. (Lehengo denboretaz ari girela hor bistan dena.)

*niro (≈ nezake)

Dena den, egia balin bada ere "Poxolutegia" etxe-izenak ez duela "poxolu" hitza galarazi Beskoitzen, ez eta "Hundarraga" etxe-izenak "hundarra" hitza (delako etxekoen nortasunak utz dezaken marka, handia izan ditakelarik afera huntan) biziki gogotik har niozu* bertze batzuien ikusteko moldea pondu hortan ere. Erran dezagun beraz, **"ordoki"** hitzaren gisa, konprenitzen ditugula:

- entzun/	**ezarri/**	**iturria/**	**ereman/**	**enetako/**	bainan,
- aditu/	**eman/**	**erreka/**	**johan/**	**enetzat/**	erabiltzen !

Gure hizkuntza : ondare baliosena

*Le patrimoine *daukate

Gaur denak ados direlarik ondarea* zaindu behar dela, batzuek holako aberastasunen jabe den herriko euskara "xokokeria" edo "xaharkeriatzat" daukazie*, euskara "txar" batentzat hartzen ez dutenean oraino, sobera hitz erdaratik (frantsesetik) hartzen dituelakotz... Jes, euskal ondarerik baliosenak ez ote dire bada erroak hain barna dituzten gure herrietako mintzatzeko moldeak, gure zibilizazionearen ezaugarri direnak ?

*dituzte *dugu *ginuke

Unibertsitariek eta euskaltzainek lan ederrak egiten dititzie*. Bainan goi mailako lan horien ondoan ez ote da lekurik bertze xumeagoko batzuentzat ere ? Ala erhoa behar da izan sineste huntan tematzeko, izerdia dariola lanean, bizitzeko manerak ere azkarki kanbiatzen ari zauzkularik, bertzalde ? Ene ustez euskalarien eta haien araudien behar gorria dizugu*, bainan euskararen erabilpena **"beheretik"** ere sustatu behar ginikezu*, hastean erran dugun bezala.

*dute *ditugu *ditu *nintazke *daut

Orai artio euskalkien lantzea baztertu dizie* poxi bat, euskara batua egin behar zelakotz. Bainan gure erro guziak euskalkietan dititzugu* eta euskaldun batek ez dititzu* bere erroak ukatzen ahal. Hil edo biziko kinka huntan, zer hirriskatzen dugu ? Euskalkizale xoil bista laburreko heietarik berriz piztea ? Harri nintazketzu*... Ahozkatze txarraren sustengatzea ? Euskarak zertako ez lezake ukan forma literario baten ondoan forma ahozkatuia ? Semeak beti errepikatzen dautazu* ingelesa ikastean ahozkatzeaz jabetzea dela zailena...

Ikus dezagun ere Frantsesek nola ahozkatzen* dituzten hitz batzu, adibidez : *4.404 Quatre mille quatre cent quatre [kat mil kat cent kat]*. Frantsesezko hiztegiek badizie* beti forma idatziaren ondoan forma ahozkatuia... Senditzen zitut hor aspaldian holako zerbait erran nahia : "Mutikoa ez duka ikusten guk ere hitzen erdiak jaten ditugula Beskoitzen ?" [muthikua, eztuka ikusten gukee hitzen erdiak jaten tuula Bezkoitzen].

**prononcer*
*badute

Baietz segurki, ahozkatze* hoberik baditakela. Bainan jadanik errana dudan bezala, ez litakezu* ahozkatzeari bakarrik behatu behar mintzaira bat jujatzean. Noizbait, ohartu nintutzun* ni ere, mintzaira baten aberastasun handiena ez zela axala bainan mamia : erran nahi baita, ez ahozkatzea bainan **hitzak elgarrekin josteko manera** batetik eta bertzetik **hitz horiekin guziekin sor dezazkegun erranaldi mota guziak**.

**prononcer*
*litake
*nintzen

Hizkuntza xehearen beharra

Frantsesek badizie* hizkuntza literarioaren ondoan *"argot"* delakoa bertzalde :
— *"médecin"* edo *"toubib"*,
— *"travail"* edo *"boulot"*,
— *"enfant"* edo *"gosse"*, eta abar. Aspalditik, guk, bierarteko hizkuntza bat erabiltzen dizugu*, Eskualduna-n, Herria-n, irratietan, elizkizunetan, eta abar. Harritzeko dena hizkuntza hori jende xeheak ez duela erabiltzen ontsa konprenitzen duelarik ere !

*badute
*dugu

Hala-nola, beskoiztar batek ez dizu* sekulan erranen "erabili", beti "ibili" [iili] entzunen baituzu "erabili" ontsa konpreniturik ere... Lekondar batek kontrarioa : harek beti "erabili" baitio eta ez "ibili".

*du

Halere Iparralde huntan "ihardetsi" erabiltzea hobe litakezu* ezenez eta "erantzun", hau ez baitute denek konprenitzen eta gainerat frangotan [errantzun] itsusi bat ahozkatzen baitute, ustez beharbada, "erran"etik heldu dela, "entzun"en faktitiboa delarik alta. Gisa guziz jendeak konprenitzen duen hizkuntzan jokatu behar litakezu*.

*litake
*litake

Ahal den bezenbatean eta ahal den bezain xuxen erabiliz, herriko hizkuntzaren indarraz balia giten beraz, garbitzalekerian erori gabe sobera. Zeren-eta baitire oraino ere euskara garbi-garbi bat nahi luketenak; bainan hori ezinezkoa duzu*. Mintzaira guziek hartzen baitute bertzerenetan. Beha frantsesari : grekotik eta latinetik jalgia delarik gutiz gehiena, orai egundainokotan, hitzak saskitaraka hartzen dititzu* ingelesetik !

*da
*ditu

Mintza giten beraz euskaraz, haren "garbitzen" sobera ari izan gabe. Eskas ditugun hitzak har ditzagun erdaratik eta gure euskaran "troxaturik" erabil, utziz "garbiketa" lana geroko. Iparraldeko egoera sozio-politikoa dela-eta ez dezakezugu* bertzerik egin, behin bederen...

*dezakegu

Beraz "kafea" "lunetak", "trakturra", eta holako ainitz hitz baliatu behar dititzugu* aitzina : "akeita", "betaurrekoak", "traktore" bezalako hitz berriek ez baitute oraino errorik aski ipar Euskal Herrian. Halaber "zapeta", "arribada" "telefona" eta holakoak ere erabil gostuian. On litakezu*, bistan dena, hitz euskaldunagoak erabiltzea, bainan kasu egin dezagun joko hortan nehor lotsarazi gabe euskaraz mintzatzetik...

*ditugu
*litake

Euskaldun berri eta zaharren lokarri

*ditugu
*dut
*da
*dabiltza
*ditut

Hots, gure erro biziak baliatu behar dititzugu*, geroxagoko utziz garbiketa lanak eta hitz galdu heien berriz biziaraztea. Herritarren hizkuntza susta dezagun gehiago. Iparraldearentzat euskararen erabilpena laguntzeko ez dizut* ikusten bide hoberik. Bertzalde, gorago errana dutan bezala, egia duzu* Euskal Herrian gramatika eta ikerketa baliosak baditugula: jendearentzat zailegiak ordean! Eta hola bi mundu intelektualak batetik eta bertze guziak bertzetik, bi bidetarik dabiltzatzu*, uharla batek berexten balitu bezala. Beskoitzen eta Senperen, bietan entzun dititzut* arrangurak baizik-eta "Herria" astekari euskalduna ere ez dutela beti aise irakurtzen...

*dakit
*zen
* zauku
*ditugu

Ez dakizut* batere ene lan hau irakur erretxagokoa izanen denetz, jendeak ez baitu usaiarik bere-bere hizkuntzan irakurtzeko, baina hizkuntza literario doi bat "normalizatu" batetan. Ez hain aspaldi beskoiztar ikasle bat, haurra, sartu zuzun* etxean, loriatuia, bi hitz berri ikasi zituela eskolan : "neurria" eta "udarea"!!! Harritzeko dena, iduriz ez zakotela erran Beskoitzen baditugula bi hitz eder horien sinonimoak eta osoki baliagarriak : "izaria" eta "madaria"... **Hi**-ka mintzatzea ere galtzen ari zaukuzu*, hori ere ezin onartuia baita. "Zubiak" eraiki behar dititzugu* herriko euskararen eta euskara batuaren artean.

Jendearen parte-hartzea xekhatu

*da
*ditut
*zaut

Bilketa lan hautan ari nizelarik, ohargarri duzu* hitz batzuien aipatzeak eta forma heien idatzirik erakusteak nola memorioa iratzarrarazten duten jenden baitan. Ametsak beti haizu izanik ere, ezagutzen dititzut* ene lanaren eskasak, egin-nahiak eta ezin eginak ere bai... Iduritzen zautazu* halere, herrian herriko euskara lantzea estakuru on bat izan ditakela lan multxo batzuien sorrarazteko euskararen inguruian.

*litazke
*zituen

Ohidura, kantu, joko, genealogia, argazki zahar, ixtorio biltze, herriko ixtorioa, herriko jende famatuien aipatzea eta abar ; hots denak baliatu behar litazketzu* jendearen **parte-hartzea** xekhatzeko, egintza xume eta atsegin direnekin hasiz, urrats ttipi batzuien eginarazteko euskaldungoari buruz. Ez baita erraiteko baizik, Euskal Herriko antzerkilari talde famatuienetarik bat jin zelarik Senpererat, herritik 30 bat ikusle bildu zititzun*, herritarrek berek muntatu antzerki ttipiekin aldiz, sala mukurru betetzen zelarik...

*duke
*da

Euskalki baten ikertzeak ez dikezu* onik baizik : euskararen aberastasuna ikusten baita, euskalki bakotxak dituen ahuleziekin batean. Eta on-gaitz horieri ohartzea bezalakorik ez bide duzu* gauzak behar diren bezala haztatzeko. Orhoituz ere norbaiten baitan lehia baten pizteko, pindar bat aski dela zonbait aldiz...

Euskaldunak iratzartzen ari !

*dira
*niro
(≈ nezake)
*da

Zonbeit jakintsun harritzen ditutzu*, holako hizkuntza aberatsa jakinki-eta, nolaz ez dugun, Euskaldunek, atxikimendu gehiago gure mintzairarentzat. Jende xehearekin batean ihardets niozu* horieri : euskara beti maite ukan dugula, etxeko eta lagunekilako. Zer zen, ordean, euskara duela berrogoita hamar urte, gutarik gehienentzat ? Oroz gainetik, eskola guti edo batere ez zutenen hizkuntza eta beraz bertzeren menekotasunaren seinale garbia. Gutienez, bizimolde dorpe bati loturik zen zerbait. Eta nork zuen bizimolde hobea, erretxagokoa, erratazue? Frantsesa ontsa zakiten zonbeitek. Nolaz harritzen dire bada, gertatzen denaz ? Ez duzu* batere harritzekorik.

Dena den, euskaldunak iratzartzen hasi ditutzu*; beharrik! Beren mintzaira lantzen eta irakasten baitute orai poxi bat bederen. Erdal itsasoa beti jo eta jo ari zaukuzu*; atxik dezagun, gogor eginez harrokak bezala, gure arbasoek milaka urtez ihardoki duten bezala. Frantsesa eta bertze hizkuntzak ikastea beharrezkoa duzu*. Bainan euskara erabil dezagun ahal den guziez.

*dire
*zauku
*da

Ez lotsa! Ez ahalge izan ! Euskararen eta euskaldungoaren alderako atxikimenduia emendatzen ari baita bazterretan, gai horik geroago eta gehiago aipatuiak baitire familietan. Lehenago, zonbait ahalgetzen zitutzun* beren ait'ama euskaldunez, aita-amak berak ere, batzuietan, ahalge zirelarik beren buruiez! Nik hemen bildu ditudan xeheteria batzu ez zititzien* thu bat estimatuko ! Errota itzulikatzen baita, ordean, emeki bada emeki. Denetan, bereziki azken denbora hautan, nolako jendeketa izigarriak ez dire xutitzen – eta zer hirriskuiak hartuz !– beren nortasunaren beiratzeko. Badizugu* hor nun zer ikas ! Begi-beharriak idekitzea aski...

*ziren
*zituzten
*badugu

Birden parte hunen sail nagusiak

HASIAN-HASI "Lehena" deitu liburuian, gehienik mintzatu nintutzun* Beskoitzeko euskararen morfologiaz : **Ahozkatzea**, **Deklinabidea** eta bereziki **Aditza** aipatzen nituela. Dudarik gabe hartarik behar zinuke hasi birden liburu huni lotu aitzin. Hemen, **erranaldi** andana bat kausituko duzu, barnean dauzkatela denetarik, hitz eder, goxo, leun bainan ere gogor eta bortitz heietarik ere! Jainkoak daki zonbat holako balitaken biltzeko! Mintzaira batek sortzen baititu erranaldiak sekulan finitzerik gabe. Aita Piarres Lafitte zenak berak otoiztu nintitzun* segi nezan aitzina, nehundik ahal banuen segurik : "Oi denborarekin !". Hitzeman nakozun* ahal nuena egitea... ene ahal ttipiekin. Huna beraz, kasik erranaldi bilduma bat baizik ez den HASIAN-HASI "Birdena"ren sail nagusiak ahal den bezala angoldurik*:

*nintzen
*ninduen
*nakon/ nion
*rangés

..... Orrialdeak

— **Usuienik agertzen diren hitzen inguruian** (1) ..... 23 ↔ 240

— **Bertze hitz zonbaiten inguruian**..... 241 ↔ 250

— **Aurrizki*** ..... 251 ↔ 252

— **Atzizki***..... 253 ↔ 269

— **Adizki*** ..... 270 ↔ 281

— **Deklinabide*** ..... 282 ↔ 307

— **Erakusle*** ..... 308 ↔ 313

— **Hitzak uztartuz**..... 314 ↔ 318

— **Hitzak doblatuz** ..... 319 ↔ 325

— **Gaien arabera** ..... 326 ↔ 353

— **Larri-larria sailkatuz** ..... 354 ↔ 405

*préfixe
*suffixe
*verbe
*déclinaison
*démons-tratif

---

(1) Hau da parterik handiena. Hitzak ordena alfabetikoan dira, zuzen den bezala. Gero, nolazpait, hitz bakotxarentzat lehenik, adibidez, **ETXE** hitz hutsa duten erranaldiak, gero **ETXEA** duten guziak, gero **ETXEAK**, gero **ETXEAREKIN**, gero **ETXEKO** eta abar. Baina **ETXEKO** gerta ditake **ETXEAREKIN** baino lehenago...

Denentzat lana

Orai zuk ere hasi behar zinuke zerbaiten egiten. Hastean poxi bat bitxi hatxemanen duzu bainan gero laster usatuko zire. Gaizki egin beldurrak ere ez zitzala
badire lotsaraz. Hutsak baditutzu ene lantto huntan ere eta ene sailkapenak ez ditutzu*,
*dire segurki, nahiko nituen bezain argiak! Hortakotz hasi behar duzu, zuhonek, bertze lan bat, denak hobeki emaiteko eta eskasak betetzeko...

du Balio duenetz? Beti balio dizu. Gisa guziz, lehenik zuhone ainitz gauzeri ohartuko zire eta gero, holako orhoitzapen-biltze baten egiteak berak emanen daitzu
dute atsegin bat ez ttipia! Gure ondokoek eginen dizie nahi dutena edo ahal dutena. Guk,
ginuke haatik, ez ginikezu aditu behar sudurrerat ez girela deusen egiterat entseiatu ere...

Beskoiztar maitea –sortzez edo egoitzaz– hemen diren erranaldi frango, beharbada poxi bat bitxiak edo doi bat zaharkituiak kausituko ditutzu. Orhoit zite beti,
da karkulatuz geroz ez girela arras berdin mintzatzen. Biltzerat entseiatu nizena duzu
*niz **naturalki mintzatzeko moldea.**

Galde frango egin badut ere, beti mesfidatu nuzu* arrapostuiez ; erran dena, karkulatuz geroz ez delakotz bardin mintzatzen eta aise nahas baititazke **konprenitzen** dena eta **erabiltzen** dena. Ene jokamoldea, beraz, gehienki : behatu jendeak nola erraiten dituen gauzak, gogoan atxiki, eta gero bakarrik nizelarik idatzi, beti sakelan
ditut ukan behar den paperñoan. Hola bildu dititzut, nihonek noizbait ikasiak ere, gogorat jin arau.

bada Bertze molde bat ere baduzu, arras ona hura ere : ixtorioak edo lehenagoko gertakariak aiparaztea. Noiztenka "karkulatuzko" hitz batzu sartuko daizkitzute : zuk
discerner hauteman beharko zoin zoin diren. Hortarat helduko zire Beskoitzeko euskarari ohartuko ziren heinean...

Abia zite beraz gostuian, lantto huntan barna. Han edo hemen, zerbait ez baduzu arras gostukoa, erran, bainan ez otoi kexa ! Euskara mintzatuiaz zerbaiten **idaztea** baitzen ene xedea : idazten ez den guzia galtzeko hirriskuian delakotz gaurko
*du munduian. **Ene lanak ez dizu* eskolaren edo AEKren saila ordaintzen, are gutiago**
*da **gramatikak eta hiztegiak! Euskara poxi bat dakitenentzat egina duzu*, "herritartu" nahi duenak egin ahal ukan dezan. Hots, etxeko, lagunarteko eta**
*luke **herriko hizkuntza doi bat aberastu edo sustatu bederen nahi likezu* jendartean.**

zuen Duela lau mende eta erdi Bernat Etxepare handiak oihukatu zizun: "Heuskara
zabilan jalgi hadi mundura!" eta errotik xuxen zabilazun. Geroztik kanpoan euskara poxiño
da bat azkartu duzu bainan etxetan, lagunartean eta herrian ahulduz joan duzu*: hots, nun
da ere baitzen azkarrenik han duzu orai ahulenik. Zer balio du ordean, jakintza aitzinatuienak euskaraz eskuratzea, gero egun guzietako urrats xehetan erdaraz artzeko ?

Henri Duhau

Oharrak. *Quelques remarques générales, techniques...*

Comment fallait-il ranger les quelque six mille expressions contenues dans ce document: autour d'un mot (d'un préfixe ou d'un suffixe...) choisi pour son importance dans la phrase ou bien suivant le thème auquel elles se rapportent? Finalement, les deux solutions ont été utilisées.....

Mais cette subdivision ne règle pas tous les problèmes. Devant la quasi impossibilité de faire un choix clair, certaines expressions se retrouvent dans deux, voire parfois trois endroits, et cela aurait pu être le cas pour beaucoup d'autres, tout à fait logiquement! Par contre d'autres expressions ne sont citées qu'une fois: par exemple **Onerat egin,** *qui pouvait se ranger aussi bien avec le mot* **ON** *qu'avec le mot* **EGIN,** *ne se retrouve qu'une seule fois (avec le mot* **ON** *en l'occurrence).*

Ce travail est donc forcément aussi imparfait qu'incomplet. Mais n'est-ce pas mieux ainsi pour tous ceux qui voudront aller plus loin et faire mieux? Car il serait très intéressant de poursuivre certaines investigations, notamment sur le lexique par profession, l'étude des synonymes, l'influence du français sur le basque et même l'influence du basque sur le français parlé localement...

++

Elebitasuna ***(Le bilinguisme).*** *Pourquoi ce deuxième volume est-il bilingue alors que le premier* HASIAN-HASI *était presque entièrement en basque? Tout simplement parce que j'ai voulu tenir compte de la seule critique qui m'ait été faite lors de la publication du premier volume, à savoir : le manque d'explication en français pour ceux qui sont en train d'apprendre l'euskara.*

Plus généralement, il est évident qu'avec le bilinguisme on crée un "pont" entre les bascophones et les francophones. Gageons simplement qu'ils seront nombreux à le franchir!

++

Beskoitzeko Euskara. *Il va sans dire que beaucoup d'expressions contenues dans ce document se retrouvent dans d'autres villages, avec quelques variantes sur le fond et de très légères différences dans la prononciation. J'ai parfois indiqué* **"Senperen ere berdin da"** *(une cinquantaine de fois): j'aurais pu le faire bien plus souvent. Je ne l'ai fait que pour des cas étonnants ou lorsque je voulais souligner l'importance géographique d'un mot ou d'une expression, en ajoutant parfois que si le sens est le même, la prononciation est un peu différente...*

Par ailleurs, est-il besoin d'ajouter qu'à Briscous même, on peut trouver des expressions et des tonalités différentes d'une famille à l'autre, d'une personne à l'autre... C'est le propre même d'une langue parlée. Et les deux HASIAN-HASI *aussi ne sont qu'une perception, la plus objective que j'ai pu faire, de* **Beskoitzeko Euskara.**

++

TOka, NOka, ZUka, XUka. *En dehors de la préface, où j'ai pensé que le vouvoiement* **ZUka** *était de rigueur, la plupart du temps j'ai choisi d'utiliser le tutoiement masculin* **TOka:** *mes parents, mon frère, mes sœurs, les voisins, tout le monde dans le village me tutoyait! C'est aussi cette forme qui me laissait le plus de liberté de parole. (Il est vrai qu'aujourd'hui certains de ceux qui me tutoyaient me disent* **XU**, *ce qui ne me semble pas, soit dit en passant, un progrès pour notre langue... Voir aussi* HASIAN-HASI « lehena », *page 71, §58.)*

—*Avec le tutoiement féminin,* **NOka,** *il y a quelques restrictions: on ne s'adresse pas exactement de la même façon à une femme et à un copain de régiment! Notons que, malheureusement, cette forme est en nette régression et pas seulement à Briscous.*

— *Avec le vouvoiement* **ZUka** *il y a aussi des restrictions puisque c'est par essence une forme (très) respectueuse et qui est destinée à des personnes nettement plus âgées.*

— *Le* **XUka** *est affectueux par nature, mais il s'est tellement développé ces derniers temps (au détriment du tutoiement) qu'on peut l'entendre dans les expressions les plus dures! Issu du* **ZUka**, *le* **XUka** *est traduit par "tu" en français les rares fois où je l'ai utilisé dans ce travail, car sa "valeur expressive" est plus proche du tutoiement que du vouvoiement.*

Mais ce recueil est déjà très volumineux et les phrases bien encombrées de ponctuations, de parenthèses et de crochets. Il aurait encore été alourdi en ajoutant chaque fois si la version féminine **NOka** *est autorisée ou non, de même que le* **ZUka** *ou le* **XUka**. *Ces restrictions, somme toute, ne sont pas si nombreuses. Chacun jugera, soupèsera donc les mots avant de parler. Ainsi donc et en tenant compte de ce qui vient d'être dit:*

— *il.....= elle ;*

— *le .....= la ;*

— **duk** .....**= dun, duzu, duxu ;**

— **dik** .....**= din, dizu, dixu,** etc.

++

App. = Approximativement. *"Traduttore, traditore"! Cet aphorisme italien signifie que toute traduction trahit la version originale. Mais il semblerait qu'il s'agisse davantage de "distance séparant deux langues" plutôt que de trahison. En outre, fallait-il traduire, en français littéraire ou en français parlé? Vous le voyez donc clairement: les traductions en langue française ne sont là que pour aider à la compréhension. Elles sont souvent approximatives et les phrases qui commencent par cette abréviation le rappellent avec acuité!*

Litt. = Littéralement. *Dans cet ouvrage certaines expressions comportent d'abord une traduction littérale afin de mesurer justement la distance colossale qui sépare, parfois, ce qui est dit de ce que l'on veut faire entendre...*

— *Une barre penchée / indique: OU BIEN.*

— *Les deux barres penchées // indiquent qu'on passe à une autre acception.*

++

ATTENTION ! *Plusieurs raisons peuvent amener le beskoiztar, surtout les anciens et les non alphabétisés, à adjoindre le préfixe* **BAIT-** *à la forme verbale neutre. C'est l'utilisation généralisée du traitement* (TOka, NOka, ZUka, XUka) *qui provoque cela car ce traitement ne peut pas être utilisé lorsqu'on se trouve devant plusieurs personnes. Il arrive aussi parfois qu'avec telle personne, on ne sache pas trop quel traitement utiliser. Ce préfixe n'a donc pas toujours une valeur de causatif (proposition causative), par exemple :*

— **Lan hori gaizki egina BAITA** *peut vouloir dire :*

1) **Lan hori gaizki egina BAITA**.....*Parce que ce travail a été mal fait. (Causative)*

2) **Lan hori gaizki egina DA** .....*Ce travail a été mal fait.*..... *(Indicative)*

Il arrive également qu'au lieu du préfixe **BAIT-** *on ait recours au suffixe* **-LA**. *Exemple :*

— **Lan hori gaizki egina DELA** *peut vouloir dire :*

1) **Lan hori gaizki egina DELA** .....*Que ce travail a été mal fait* ..... *(Relative)*

2) **Lan hori gaizki egina DA** .....*Ce travail a été mal fait*..... *(Indicative)*

Cette forte tendance à utiliser le "traitement" ou à défaut de "préfixer" ou de "suffixer" au lieu d'employer les formes neutres, n'est pas propre à Briscous : elle s'étend pour le moins jusqu'en Oztibarre! Mais il y a quelques exceptions chez nous, par exemple :

...eta ez DUT lurrerat uzten........*App. ...et voilà que je le laisse tomber...*

...eta ez ZAIT hasten.... .....*App. ...et voila qu'il commence à me...*

Voir **BAIT-** *p. 251 et dans* HASIAN-HASI "Lehena", *p. 99 et 100, § 72 et 73.*

TRÈS IMPORTANT. *L'utilisation du traitement peut produire des phrases à DOUBLE sens et ce dans tout le Pays Basque. En particulier dans ce document avec* **DA** *qui revient si souvent et qui, tutoyé, devient* **DUK.** *Exemple :*

— Lan hori gaizki egina DUK *peut vouloir dire :*

1) **Lan hori gaizki egina DUK** .....*Tu as mal fait ce travail.*

2) **Lan hori gaizki egina DA** .....*Ce travail a été mal fait.*

C'est le contexte de la discussion qui distingue les deux cas. Il faut bien saisir ce point si on veut comprendre ce recueil. Et peut-être commencez par la lecture de HASIAN-HASI « lehena », *p. 10 et 11.*

++

Les mots entre parenthèses indiquent que la phrase peut se trouver avec ou sans ces mots; exemple :

Estakuru guziak on (zazkok) lanetik eskapatzeko
[estakuru guziak on (zazkok) lanetik espakatzeko] *Tous les prétextes lui sont bons pour quitter ou fuir le travail;*

La phrase peut s'utiliser avec ou sans le mot **(zazkok)**.

++

Ahozkatzea *(La prononciation)*. *Difficile à écrire sans utiliser l'alphabet phonétique. Mais il n'était pas approprié pour ce travail destiné à tout public.*

Ez hintzen aski arropatuia [ehintzen aski arropatuia] *Tu n'étais pas assez (chaudement) habillé.*

Hire behi onak soberaxko estimatzen dituk eta txarrak ez aski
[hie behi onak soberasko estimatzen tuk eta txarrak ez aski] *Les bonnes vaches (que tu me vends) tu les estimes un peu trop et les maigres pas assez...* (Auguste Mouesca Kazinoko zenak errana gure aita zenari. Bada hor bi gogoetaren gaia...)

Baginian gero aski emazte gaixo haren eskarniatzen [baginian joo aski emazte gaixo harren eskarniatzen] *App. (À peine avait-elle prononcé cette expression qui n'était pas de Briscous mais que l'on comprenait) et nous voilà en train de l'imiter à cœur-joie (En faut-il beaucoup pour que les enfants se mettent à se moquer de quelqu'un?).*

Guti askiko dik [guti askiko-ik] *Il lui suffira de peu (pour être plein/ pour être fatigué...)*

Guti edo aski *App. Peu ou prou.*

ASTO// ASTOTU

Asto ziria, jakin banu ekarriko nian! [asto ziria, jakin banu ekharriko nian] *App. Ah mince, alors, si j'avais su, je l'aurais apporté!*

Asto ziria, jakiterat... [asto ziria jakiteat] *App. Ah, mince alors, si j'avais su...*

Asto ziri handi horrek ez baitu bertze izenik < > [asto ziri handi horrek ezpitu bez'izenik] *Ellipse de* **<merezi>** *App. Ce grand âne, qui ne mérite pas d'autre nom...*

Ez duk asto baten erdia [eztuk asto-aten erdia] *Litt. Il n'est pas la moitié d'un âne (mais un entier).*

Ez dik asto batek baino < > konprenitu nahi [eztik asto-atek banoo konpreitu nahi] *Ellipse de* **<gehiago>** *App. Il ne veut rien comprendre, il reste sur sa position.*

Lehenago bezain asto [lehenoo bezin asto] *(Malgré tout ce qu'on a fait) on n'est pas plus avancé qu'avant.*

"Aditu behar ditik bereak eta asto beltxarenak!" [a-itu behar tik berik eta, asto beltxaanak] *Dicton. Litt. Il va entendre les siennes et celles de l'âne noir! App. Il va entendre ses quatre vérités!*

Astoa [astua] *L'âne.// Le chevalet pour couper le bois de chauffage.// Un support quelconque.*

Astoa duk [astua-uk] *C'est un âne. // Il est (très) bête. // Il est massif (cet engin, ce bois).*

Zer denbora astoa! [ze denbora astua] *Litt. Quel temps âne! (En français on dirait peut-être: Quel temps de chien! La différence c'est que* **Ze denbora astoa!** *s'utiliserait plutôt quand il fait très très chaud et qu'on ne peut rien faire pour se protéger.*

"Astoak bere buruia lauda" [astuk bee buruia lauda] *Dicton. Litt. L'âne qui se flatte. (Se dit quand on "s'envoit des fleurs"; peut s'employer s'agissant de soi ou des autres.)*

Johan zakok, astoari ogia! [johan zakok, astuaai ogia] *Litt. Ça lui va, tiens, du pain à un âne! (Se dit quand quelqu'un se paie quelque chose de disproportionnée par rapport à ses moyens, à son niveau social.)* (Senperen: ...astoari xokoleta! Bertze batzuiek: "...zerriari petenta!)

Asto-makilak [asto-makhilak] *Barres simples: | | | | | | | (Premiers travaux à l'école... Peut s'utiliser pour ironiser sur le niveau culturel d'une personne.)*

Bistan duk astokeriaz ari zela [bistan duk astokeriaz aai zela] *C'est évident qu'il plaisantait (qu'il ne parlait pas sérieusement).*

Astokeriak apart... [astokeriak apart] *Blagues à part.../ Trève de plaisanterie... On peut dire aussi:* **Astokeriak utzirik.**

Dena astokeria *Des plaisanteries en veux-tu, en voilà.*

Astokerian ari zuian *Il bêtisait, il plaisantait.*

Ez duk batere astokeria [eztuk batee astokeria] *(Cette solution/ cette proposition) est loin d'être une mauvaise idée...*

Astotzen baita [astotzen bita] *Il devient bête et méchant.*

ATXIK// ATXIKI

Atxik atxik! *Tenez-donc (sinon tout va tomber par terre)! // Tenez bon (dans votre lutte)!*

Atxik eta atxik... *À force de tout garder (le grenier va se remplir d'objet hétéroclites et de peu de valeur).*

Badik atxik ahala urgulu [ba-ik atxik alhala urgulu] *App. Il est très orgueilleux...*

Nork atxik (gu)! [nok atxik (gu)] *Litt. Qui pourrait nous tenir? App. Qui pourrait rivaliser avec nous? (Se dit par ironie ou en plaisantant pour quelqu'un ou pour soi-même lorsque son niveau social monte.)*

Ikusten duk nola baliatzen diren, atxiki-eta... [ikuste-uk nola baliatzen dien, atxiketa] *Tu vois comment – un jour ou l'autre – on les utilise (certaines choses) quand on les conserve bien rangées...*

Haurrak atxiki *Garder les enfants (surveiller).*

Denak azpian < > nahi ditie [denak azpian nahi tie(k)] *Ellipse de* **<atxiki>** *App. Ils veulent dominer tout le monde.*

— (Ikusliarrak)..... **Azkar zire oraino... [azkar tzie, oono]** *Vous êtes encore costaud...*
— (Aitatxik)..... **Bai, nehork ezin atxikia! [bai, nehok ezin atxikia]** *App. Oui, intenable! (Il faut comprendre la dérision: c'est que aitatxi était pour lors bien diminué.)*

Atxikia berdin ona dueia? [atxikia bardin ona dii(ya)] *(Cette peinture par ex.) a-t-elle la même tenue/ la même résistance aux intempéries?*

Kurri zazu, nik atxikiz *Marchez, je vous soutiens (n'ayez pas peur; à un malade).*

Pixilea ezin atxikiz [pixilia ezin atxikiz] *App. En ne pouvant retenir l'envie d'uriner.*

Irria ezin atxikiz *App. Le rire qu'on a du mal à réprimer; fou rire...*

Hemendik harat, atxikiko zitu horrek [hemendik haat, atxiiko zitu horrek] *App. (Ayant vu le fils et s'adressant au père) Dorénavant, il sera aussi fort que vous au travail.*

Atxikiko ditiagu izarian... [atxiiko tiagu izarian] *Nous allons les tenir en respect...*

Atxikiko diagu izaria [atxiiko diaau izaria] *Nous allons nous contrôler (et bien nous tenir, pendant cette fête, par ex.)*

Atxikiko duzueia? [atxiiko-uziiya] *(Suivant l'intonation) App. Allez-vous avoir la force nécessaire pour tenir?) // Allez-vous tenir le coup? (Par taquinerie: vous qui êtes en train de manger, de vous amuser, alors que moi je travaille; synonyme:* **Iraunen duzueia?***)*

Egin ahala atxikitzeko [inahala atxiitzeko] *Pour (le) tenir au maximum (dans le pré/ à tremper/ jusqu'au dernier moment).*

(Atxikitzen *se prononce* **[atxiitzen]** *ou* **[atxiiten]** *Les deux prononciations existent (pour distinguer peut-être le sens propre du sens figuré?) Voir* HASIAN-HASI « lehena », *page 55.)*

Zonbat atxikitzen du ontzi hunek? [zonbat atxiitzen du untzi hunek] *Combien (de litres) peut contenir ce récipient?*
Atxikitzen dueia? [atxiitzen dii(ya)] *App. Est ce que ce (vieux) récipient ne fuit pas?*

Atxikitzen duteia? [atxiitzen duteia] *Ont-ils (encore) des liens amicaux? // Se fréquentent-ils toujours (en vue du mariage)?*

Atxikitzen die [atxiitzen die(k)] *Ils (le) tiennent. // Ils entretiennent leur amitié.*

Atxikitzen ginian biziki heiekin [atxiitzen ginian biziki heiekin] *Nous étions très liés, très amis, avec eux.*

Ardiak urte guzia landan atxikitzen ditie [ardiak urthe guzia landan atxiitzen tie(k)] *Ils gardent les brebis toute l'année dans les prairies (par opposition à la transhumance: l'hiver dans les prairies et l'été à la montagne).*

Ogi zaharrak freskoak baino < > atxikitzen dik [ogi zaharrak freskuk bano atxikitzen dik] *Ellipse de* **<gehiago>** *App. Le pain (un peu) rassi maintient mieux (contre la faim) que le pain frais.*

Atxikarazi die [atxikaazi die(k)] *Ils l'ont fait tenir. // Ils l'ont retenu (à manger par ex.)*

Atxikak hiretzat [atxikak hietzat] *Garde-le pour toi (je te le donne). // Ne le dis à personne.* (= Atxiki ezak)

Atxikak zapan [atxikak zaphan] *App. Tiens-le en appuyant.* (= Atxiki ezak)

Atxikak leku bat enetzat [atxikak lekhu bat enetzat] *Garde-moi une place (à côté de toi à table, par ex.).* (= Atxiki ezak)

Atxikak ene lekhuia [atxikak ene lekhuia] *Garde bien ma place/ ma chaise (que personne d'autre ne s'y mette).* (= Atxiki ezak)

Atxikazue bakea, pagatuz bederen [atxikazii bakia, paatuz bedeen] *App. Maintenez l'entente, restez en bons termes (entre frères et sœurs) en allant, s'il le faut, jusqu'à des concessions financières.* (= Atxiki ezazue) (Martin Elissalde Kumaitegiko zenak)

Atxikimendu gehiago ukan behar ginikek gure hizkuntzarentzat [atxikimendu gehioo ukhan behar ginikek gue hizkuntzaantzat] *Nous devrions être plus attaché à notre langue basque.*

Atxikimendu izpi bat *Un tout petit peu d'attachement, de soutien.*

AZKAR// AZKARTU

Azkar duk *Il est en (pleine) forme.*

Bularrak azkar behar ditik [bulharrak azkar behar tik] *Il faut des poumons solides (pour crier, hurler si fort).*

Atxik dezagun azkar gure sinestea [atxik dezaun azkar gue sinestia] *Gardons, maintenons notre foi bien vivante.*

Jateko azkarra *Un aliment fort (viande de gibier, par ex.)*
Edateko azkarra *Une boisson forte (une liqueur, par ex).*

Otsoa bezain azkarra! [otsua bezin azkarra] *Litt. Aussi fort que le loup! (En français on dirait: Aussi fort qu'un lion!)*

Ez duk azkar-azkarra *Il n'est pas si solide que ça (de santé/ l'instrument/ le montage).*

Zain azkarrak *Les nerfs solides.*

(Zertan gire) azkarrean? [(zetan gie) azkarrin] *App. (Comment ça va) en (pleine) forme?*

Jan-eta azkartzen duk [janeta azkartze-uk] *App. Après avoir mangé les forces reviennent.*

Azkartxago duk, norapait [azkartxoo-uk, noapeit] *(Comme ça) c'est un peu plus solide, quelque part.*

Azkarki abantzatu duk [azkarki aantzatu-uk] *Tu as beaucoup avancé (dans ton travail.)*

Azkarki kolpatuia *Gravement blessé.*

Azkartu duk [azkartu-uk] *Il s'est remis, il a repris des forces. // Tu l'as renforcé.*

AZKEN

Azken pasakoa eman [azken pasakua eman] *App. Exécuter la finition (faire le dernier ponçage dans un travail de confection ou de restauration/ mettre une dernière couche de peinture/ faire une dernière lecture pour la correction d'un article, etc.)*

Azken denbora hautan... *Ces derniers temps...*

Azken egunaren ohoretan... [azken eunaan ohoretan] *App. En l'honneur du dernier jour (des vacances, on se paye un gueuleton, par ex.).*

Azken aldian sartu denean, orai ere sartu behar likek... [azken aldian sartu denin, orei-ee sartu behar lukek] *Puisqu'il est rentré la dernière fois, il devrait encore rentrer cette fois-ci (puisque c'est le même cas de figure)...*

Azken beltzean... [azken beltzin] *En dernier ressort... En dernier recours...*

Azken judizioa duk hau [azken juiziua-uk hau] *Litt. C'est le jugement dernier. App. Quelle situation épouvantable! // Quel temps apocalyptique!*

Azken arribatuiak, paga [azken arribatuiak, paa] *Le dernier arrivé paye (à boire, puisqu'il s'est fait attendre. Se dit plutôt au bistrot).*

Azken hilak pagatuko ditik... [azken hilak paatuko tik] *Le dernier à mourir paiera... (Se dit à partir d'un certain âge en faisant une dépense pour se faire plaisir, en estimant avoir largement fait au profit de sa descendance.)*

Ni niza azken herresta? *C'est donc moi le dernier retardataire/ "traînard"?* (Senperen ere berdin da: Ni naiz azken herresta?)

Azkena duk hura ere [azkena-uk huaree] *Cette solution aussi est bien la dernière qui soit.*

Azkena duk, bada, hori ere [azkena-uk, baa, hoiee] *App. Cette solution-là aussi est vraiment un pis-aller.*

Azkenean ..... **[azkenin]** ..... *Dans le dernier. (Sens propre)*
Azkenean ..... **[azkeein]** ..... *Finalement // Enfin! (Sens figuré)*

Jaikiko hiza, azkenean! [jeikiko-iza, azkeein] *Vas-tu te lever, enfin!*

Burutik joanen bainiz, azkenean [buutik juaan biniz, azkeein] *(Avec tout ce que j'endure) je vais finir par devenir dingue, par disjoncter.*

Atzo ikusia diat, azkenik [atzo ikusia-iat, azkenik] *App. La dernière fois que je l'ai vu c'était hier.* **(Azkenik** *peut se trouver en tête de la phrase.)*

Azkenekotz *En fin de compte (tout le monde en avait "ras le bol" /était fatigué, etc.).*

Azkenerat ezin atxikia zuian [azkeneat ezin atxikia zuian] *Vers la fin (de sa vie), il était intenable.*

Laburtuz laburtuz, azkenean laburregi ukaan duk [laurtuz laurtuz, azkeein laburrei ukaan duk] *À force de le raccourcir (en sciant) il finira par être trop court.*

(Même sens avec: **Luzatuz, luzatuz... azkenean luzeegi ukanen duk)**

BADA

Eiki bada... [ekibaa] *Pourtant...* **(≈** Alta bada)

Zer bada! [ze baa] *App. Bien sûr! (tu en doutes ou quoi?) (Expression très courante avec des tonalités différentes.)*

Ez nitian bada, hauk eman nahiak [enintian baa, hauk eman nahiak] *Et pourtant je n'aurais pas voulu mettre ceux-ci (que je garde pour d'autres occasions).*
Ez duk bada hor ere [eztuk baa horree] *Il n'est pourtant pas là non plus (j'ai bien cherché, j'en suis à peu près sûr).*

Ez diat bada... [eztiat baa] *(Voir l'intonation) App. (J'ai cherché partout ce que tu me demandes, mais) je n'en ai pas (et je le regrette beaucoup).*

Ez diat bada, ehunik [eztiat, baa, ehunik] *App. Je n'en ai pourtant pas des centaines... (quand on a perdu une chose, dont on n'a souvent qu'un seul exemplaire)*

Ez dakiat bada... [eztakiat baa] *Je ne sais pas (ce qu'il faut en penser, je ne suis pas convaincu...)*

Hori diat bada erran nahi... [hoi diat baa erranahi] *App. C'est justement ça que j'essaye de t'expliquer... (Synonyme:* **Hori diat segurik erran nahi)**

Segur nuk hau dutala kuntrezka emana... ez bada, ez.
[seur nuk hau dutala kuntrezka emana... ez baa, ez] *Je suis sûr que c'est celui-ci que j'ai mis à l'envers... (Après vérification) Et pourtant, non.*

Zer nahi duzu bada... [ze nahuzu baa] *App. Que voulez-vous, c'est comme ça (avec ces jeunes/ avec l'Administration, etc.)...* (Senperen ere berdin da)

Azkena duk bada, hori ere [azkena-uk, baa, hoiee] *App. Pourtant cette solution-là aussi est un pis-aller.*

Horrekin bizitzeko ere, behar dik bada, pazientzia... [horrekin bizitzekoree, behaaik baa, pazientzia] *App. Pour vivre avec lui aussi, il en faut de la patience...*

(BALIN) BADA.....(Euskara batuan: (BALDIN) BADA)

Balin bada .....**[balinbaa]** ..... *S'il y a... (Sens propre)*
Ba balinba! .....**[ba-alinba]**..... *App. J'espère que oui! (Sens figuré?)*

Hola balin bada, ez dik batere ukanen [hola balinbaa, eztik batee ukhaan] *App. Puisqu'il en est ainsi, il ne l'aura pas du tout (contrairement à mes intentions premières qui étaient de le lui donner).*

Hura gisa duk, bihirik balin bada < > [hua gisa-uk bihiik balinbaa] *Ellipse de: <***gisarik>.** *S'il en est un qui soit tout indiqué (pour ce rôle, ce poste) c'est bien lui.*

Debruiak joana dik ez bada segidan egiten [debruiek juana-ik ezpaa se-idan iten] *En français on dirait: "Qui laisse (le travail) à demain, trouve malheur en chemin". (Alors que dans ma maison natale on parlait toujours en euskara, de temps en temps, on évoquait des dictons francais comme celui-là; ce qui prouve encore l'attachement des Basques envers eux.)*

Guti bada guti, bildu behar diagu halere [guti bada guti, bildu behar diau halee] *App. Certes il n'y en a pas beaucoup (des champignons/ des glands...) mais il faut les ramasser, on n'a pas d'autre choix que de le faire.*

Berant bada berant, jalgi zuian nunbaitik [bean(t) bada beant, jali zuian nunbeitik] *App. Tardivement certes, mais il vint et c'est cela qui comptait.*

Luze bada luze, balio dik goaitatzea [luze bada luze, balio-ik guaitatzia] *App. Même si ça fait long à attendre, cela en vaut la peine.*
Kario bada kario, erosi behar diagu [kario baa kario, eosi behar diaau] *App. Bien que cela soit (très) cher nous devons l'acheter.*

BAI

Bai berdin! .....*App. Oui, tu parles! Tu blagues, tu racontes des histoires.*
Bai zera! .....*App. Oui, tu parles!*

Bai, zakurraren briulinak! [bai, zakhurraan briulinak] *Litt. Oui, les testicules du chien! (Se dit entre camarades pour refuser une proposition ou contredire une assertion.)*

Bai gaixoa! [bai gaixua] *App. Et oui (mon pauvre/ ma douce, c'est comme ça)!*
Ederra? Bai, aldetik pasatuia... [eerra? Bai, aldetik pastuia] *App. Beau? Il est passé à côté de la beauté... Autrement dit: il n'est pas beau du tout.*

Gezurra duk bai, balinba... [gezurra-uk bai, balinba] EDO :
Gezurra duk bai, dudarik gabe... [gezurra-uk bai, doaikabe] *App. J'espère que tu n'es pas sérieux... Tu nous fais marcher, tu racontes des blagues, bien sûr... (ce n'est pas possible une si bonne nouvelle/ une si mauvaise nouvelle.)*

Egun bai eta bihar ez [eun bai eta bihar ez] *(Suivant l'intonation) Aujourd'hui c'est oui et demain ce sera non (on ne peut pas compter sur lui). // App. Fragilité de la vie: aujourd'hui nous sommes là et demain on n'est plus là.*

Atxikiko dik bai harek bere alderdia [atxikiko-ik bai harrek bee alderdia] *App. Sois certain qu'il ne changera pas d'opinion, qu'il défendra les idées de son parti, etc.*

Pilotan trebeago duk bai, aitzurren baino... [pilotan trebioo-uk bai, aitzurren banoo]/ Aitzurren baino trebeago duk pilotan... *Il est plus fort à la pelote qu'au sarclage/ binage.*

Aldi bat gelldituko duk, bai, dudarik gabe [aldi (b)at gelldituko-uk, bai, doaikabe] *Il va bien s'arrêter un jour (il faut l'espérer, pour réfléchir/ se reposer/ parler).*

Hura bertze apezik zuian bai [hua beze apezik zuian bai] *App. Lui, c'était vraiment un prêtre d'une autre envergure.*

Ekarri banu joanen zuian bai [ekharri banu juaan zuian bai] *(Voir l'intonation) Si je l'avais apporté/ amené, ça aurait marché (mais je ne l'ai malheureusement pas apporté).*

Eginen dik bai, horrek ere, ene afera [inen dik/ ine-ik bai, horrek-ee, ene afera] *Celui-ci aussi fera (largement) mon affaire (ne cherchons pas davantage).*

Gaixoa, ikasiko duk bai hik ere egun batez... [gaixua, ikasiko-uk bai hikee eun batez] *(Importance de l'intonation) App. Mon vieux, tu apprendras toi aussi un jour (à vivre en travaillant, au lieu de t'amuser comme tu le fais)...*

Mutiko tzar horren lana diat bai! [muthiko tzar horren lana-iat bai] *(Importance de l'intonation) App. C'est (encore) ce garnement qui m'a fait cette bêtise!*

Ona ez die sekulan aipatzen... tzarra, hura bai! [ona eztie(k) sekulan aiphatzen... (t)zarra, hua bai] *App. Quand on fait une bonne action, personne n'en parle; par contre, si on fait la moindre bêtise on est plus loquace!*

Ez daiat sobera galdegiten bederen; ala bai? [eztaiat sobera galde-iten bedeen; ala bai] *App. Je ne t'en demande pas trop au moins; ou si? (J'ai demandé ce prix, mais ça peut se discuter...)*

Joan duk bai! [juan duk bai] *(Voir l'intonation) Simple affirmation: Il est bel et bien allé.// App. Il (y) est allé (il est gonflé, il ne manque de culot!)*

A baia, hori duka... [a baia, hoi duka] *(Suivant le ton) App. Ah c'est ça: on va voir ce qu'on va voir! On va relever le défi...)// (Peut se dire même entre amis à son adversaire en jouant au mus par ex. De même, au pluriel:* **A baia, hori duzueia... [a baia, hoi duziiya].)**

Baia / Baietza *L'accord donné à une proposition.*
Baia *(Suivant l'intonation) Le oui (au référendum).// L'accord donné à une proposition. // C'est donc vrai?// (L'étonnement/ l'émerveillement/ la déception/ la colère, etc.)*

Baietz [baihetz] *Je t'assures que oui (crois-moi). (Voir* **"Elheari arrapostu"** *p. 335)*

BAINAN..... (Euskara batuan: BAINA)

(La prononciation de **"bainan"** *est hésitante: le plus souvent* **[bana]** *parfois* **[banan]***; certains anciens* **[bena])**

Bainan beti... ..... **[banan bethi]** .....*Mais toujours...* .....*(Sens propre).*
Bainan beti... ..... **[bana bethi]** .....*Quoi qu'il en soit...* .....*(Sens figuré).*

Ez zela kapable, ez diat < > erran nahi, bainan... [etzela kapoble, eztiat erran nahi, banan] *Ellipse de* **<kontrariorik>.** *App. Qu'il n'était pas en mesure de le faire, c'est fort possible, mais (il aurait quand même dû)...*

Ez dik iduri, bainan... [eztik iuri, banan] *On ne dirait pas, mais... (Il faut faire attention, regarder de plus près.)*

Bainan ez otoi kexa! [banan ez othoi kexa] *Mais de grâce, ne nous fâchons pas!*

Jinen nuzu, bainan zuk laguntzekotan! [jien nuzu, banan zuk la-untzekotan] *Je vais venir mais à condition que vous m'aidiez!*

(On peut faire des comparaisons avec le mot **ORDEAN**. *Voir* **ALABAINAN***)*

BAINO

(La prononciation **[banoo]** *ou* **[bano]**. *On dirait que* **[banoo]** *vient de* "bainago"; *d'ailleurs les beskoiztar disent:* **Behin bainotan** *et non pas* **Behin baino gehiagotan.***)*

Erran baino gogotikago [erran banoo gootioo] *App. Un simple signal suffira pour qu'il vienne, tellement il sera content de venir... (Expression assez courante.)*

Erran baino fiteago [erran banoo fitioo] *App. Avant même d'avoir terminé la question/ la demande, ils seront d'accord. (Expression assez courante.)*

Nahi baino fiteago ..... **[nahi banoo fitioo]** ..... *Plus vite que souhaité.*

Uste baino lehenago..... **[uste banoo lehenoo]**..... *Plus tôt que prévu.*

Baduk biga-bortz gu baino gaizkiago denik [ba-uk bia-bortz gu banoo gaizkioo denik] *App. Il y en a plus d'un qui sont plus mal lotis que nous.*

Badituk biga < > hura baino gaizkiago < > [baituk bia, hua banoo gaizkioo] *Ellipse de* **<bortz>** *d'abord et de* **<direnak>** *ensuite. App. Il y en a beaucoup qui sont moins bien lotis que lui.*

Segur baino segurrago nuk... [seur banoo seurroo nuk] *App. J'en suis absolument certain.*

Tristea baino tristeagokoa duk beraz [trixtia banoo trixtiookua-uk beez] *App. Il est donc (devenu) le plus minable des minables...*

Aldi bat baino < > [aldi bat banoo] *Ellipse de* **<gehiago>.** *App. Plus d'une fois.*
Behin bainotan aditu diat [behin banotan a-itu-iat] *Je l'ai entendu plus d'une fois.*
Alferra, bainagokoa (?) [aferra, banookua] *App. Il est fainéant, on ne peut plus.*

< > Bainagokoa (?) duk, beraz, hura [banookua-uk, beez, hua] *(Peut se dire tel quel, avec ellipse de* <**alferra**> <**ustela**> <**buhamia**> <**ohoina**>**...** *sous entendu.)*

BAKAR

Bakar-bakarra ... **[bakhar-bakharra]** ..... *Vraiment (le) seul.*
Bakarra ..... **[bakharra]** ..... *L'unique, le seul.*
Seme bakarra ..... **[seme bakharra]**..... *Le fils unique.*
Bakarrik zuian ... **[bakharrik zuian]** ..... *Il était tout seul. // Il était célibataire.*
Bakarka..... **[bakharka]**..... *Individuellement/ un par un (?)*

Hortako bakar-bakarrik [hortako bakhar-bakharrik] *Dans le seul et unique but de...*

Ez duk laborariena bakarrik [eztuk laborariena bakharrik] *App. Il n'y a pas que les paysans qui sont dans ce cas.*

Eta gero, bakarrik nizelarik izkiriatzen ditiat [eta geo, bakharrik nizelaaik izkiatzen tiat] *Et ensuite, lorsque je suis tout seul, je les écris.*

Hura zian bakarrik poxolu [hua zian bakharrik poxolu] *Il n'y avait que ça qui le gênait.*

Bakarrenak ikusi ditiat erortzen... [bakharrenak ikusi tiat eortzen] *App. J'en ai vu beaucoup tomber (mourir à la guerre)...* (Senperen: Bakarrak ikusi...)

Bakarrenak jaten ginitian, (to) [bakharrenak jaten gintian (to)] *App. Nous en mangions énormément (de ces fruits).* (Senperen: Bakarrak jaten...)

Bakartasuna [bakhartasuna] *La solitude.*

BALI// BALIO// BALIATU

Ez duk bali, gehiago [eztuk bali, gehioo] *Ce n'est plus en vigueur (cette disposition).*

Karta hau ez duk bali [karta hau eztuk bali] *App. Cette carte (d'achat) n'est pas valide.*

Balio dik [balio-ik] *(Suivant l'intonation) Ça vaut la peine. // Ça ne vaut pas la peine.*

Balio zakok! *(Voir l'intonation) App. Comme si cela en valait la peine; pauvre de lui.*

Balio dueia haraino joaitea? [balio dii(ya) haraaino jüitia] *Est-ce que cela vaut la peine d'aller jusque là-bas?*

Beti balio baitzako [bethi balio bitzako] *App. Celui-là prendra toujours la peine de faire un geste, de dire un mot aimable, sans autre but que d'être agréable et gentil.*
Orobat balio dik [oat balio-ik] *C'est (absolument) égal.*

Ez dik balio [eztik balio] *Ce n'est pas la peine (de le faire/ de le dire/ de l'essayer...) (Expression courante)*

Ez dik balio kantatzea [eztik balio khantatzia] *App. Ce n'est pas la peine de le raconter à tout le monde.*

Ez dik fitsik balio [eztik fitsik balio] *Il ne vaut rien. (Se dit surtout pour les outils.)*

Ez dik bi sos balio! [eztik bi sos balio] *Il ne vaut pas deux sous! (cet outil, par ex)*

Ez dik bi sos balio istorio horrek [eztik bi sos balio ixtorio horrek] *App. Cette histoire/ cette affaire ne vaut pas la peine qu'on s'y attarde, qu'on lui prête attention.*

Ez dik guti balio holako batek etxean [eztik guti balio holako-atek etxin] *App. C'est très appréciable d'avoir une telle chose/ une telle aide à la maison.*

Zer balio du holako ganibet batek? [ze balio du holako ganiit batek] *Que vaut un couteau comme celui-ci? (Quand c'est une petite somme)*

Bortz orenak aintzin ez dik balio jitea [bortzoonak aintzin eztik balio jitia] *Ce n'est pas la peine de venir avant 5 heures (car je ne serais peut-être pas encore là).*

Euskal irratiek egiten duten lan baliosa [heskual irratiek iten duten lan baliusa] *Le précieux travail réalisé par les radios d'expression basque.*

Itzuli beraz balia *App. Profitant de mon déplacement (à Bayonne pour une quelconque raison, je vais saisir l'occasion pour aller voir...).*

Balia giten, beraz [balia giten, beez] *Profitons-en donc/ utilisons-le(s) donc.*

Baliatu duk hartaz [baliatu-uk hartaz] *Il a profité de lui. (Suivant le ton, peut avoir les deux sens: normalement ou abusivement.)*

Baliatzen duka bizikleta hori? [baliatzen duka bizikleta hoi] *Utilises-tu cette bicyclette?*

BARDIN// BERDIN ..... (Euskara batuan: BERDIN)

— BARDIN *(Au sens propre: pareil, égal, identique/ ("quand on est sûr et certain"?)*
— BERDIN *(Au sens figuré: probablement, sans doute/ ("quand on n'est pas sûr"?)*

(Ce sont des mots courants mais parfois difficile à classer! Cela ne pose aucun problème pour le beskoiztar d'origine; mais quel casse-tête pour celui qui parle en calculant et en choisissant les mots! Dans le doute, à mon avis, il faut prendre: **berdin).**
Voici un exemple de cette difficulté :
Uzten ahal duk kanpoan: ez duk bardin uririk [uzten ahal duk kanpun: eztuk bardin uriik] *Tu peux le laisser dehors; de toute évidence, il ne pleuvra pas (le temps est sûr).*

Uzten ahal duk kanpoan: ez duk berdin uririk... [uzten ahal duk kanpun: eztuk berdin uriik] *Tu peux le laisser dehors; il ne me semble pas qu'il va pleuvoir.*

Berdin munta dik [bardin munta-ik] *C'est (à peu près) égal.*

Berdin munta dik hor berean utzirik ere [bardin munta-ik hor beein utziikee] *Ça n'a aucune importance qu'on le laisse là même.*

Ez dik berdin munta [eztik bardin munta] *C'est loin d'être égal. (Expression consacrée.)*

Berdin balio dik [bardin balio-ik] *App. Tu peux faire ce que tu veux ça ne changera rien.)*

Ez bailuke berdin balio [ezpiluke bardin balio] *App. Ça ne serait pas sans importance...*

Bai, berdin, to... [bai, bardin, to] *App. Oui, on va faire ça (c'est une bonne idée.)*

Berdin joanen zitu [bardin juaan zitu] *De toute manière, il vous emmènera.*

Berdin egin behar-eta... [bardin in behar-eta] *Puisqu'il faut absolument le faire (faisons-le)!*

Berdin aski goiz jakinen duk... [bardin aski goiz jakien duk] *App. (Ne t'impatiente pas) tu connaîtras ton sort bien assez tôt...*

Ez dik balio < > berdin ez dik eginen [eztik balio, bardin eztik inen] *Ellipse de ? Ce n'est pas la peine (d'insister), de toute manière, il ne le fera pas.*

Berdin-berdina [bardin-bardina] *Identique (sens propre).*

Berdin-berdina jinen duk [bardin-bardina jien duk] *App. (Contrairement à ce que l'on pourrait penser) il peut très bien venir, se présenter.*

Ez baita bat berdinik [ezpita bat bardinik] *App. (Cherchant dans cette réserve de boulons) il m'en faudrait (absolument) deux identiques mais il n'y en a pas.*
(Sens proche: **Ez baita bat bertzea bezalakorik [ezpita bat bezia bezalakooik]***)*

Hogoita bortz soinu desberdinekin... [hoita bortz soinu desbardinekin] *Avec 25 intonations différentes... (25 sens différents avec un même mot!)*

(On peut faire des comparaisons avec le mot **BERA***)*

Bai berdin! *App. Oui, tu parles! Tu blagues, tu racontes des histoires!*

Hortarik ari duk to, berdin! [hortaaik ari-uk to berdin] *(Importance de l'intonation) Antiphrase. (Il faut comprendre le contraire) Je suis sûr qu'il l'entend de cette oreille!*

Hura etxerat ari zena, berdin [hua etxeat a-i zena berdin] *App. Sans être sûr, il est probable qu'il allait à la maison (à cette heure-là/ allant dans cette direction-là, etc...).*

BARKATU

Aldi bat, barka duk [aldi-at, barkha-uk] *La première fois on peut pardonner (mais la deuxième fois non).*
Ez dik barkatuko finitu artino [eztik barkhatuko finitu artio] *Il ne va pas abandonner, céder, avant d'avoir terminé; il n'aura pas de cesse qu'il ne termine. (Sans datif)*

Ez dakok aise barkatuko [eztakok aise barkhatuko] *Il ne lui pardonnera pas si facilement. (Avec datif)*

Ez dik aise barkatzen [eztik aise barkhatzen] *Il ne lâche pas le/ son morceau comme ça.*

Adinak ez dik barkatzen [adinak eztik barkhatzen] *L'âge ne pardonne pas. (On a beau être très solide mais, à partir d'un certain âge, des problèmes de santé se font sentir.)*

Bekatuien barkamenduia [bekhatuien barkhamenduia] *Le pardon des péchés.*

BARNA// BARNATU

Hazparnen barna [Azparnen barna] *À travers Hasparren (pour continuer vers...)*

Oihanetan barna ibilia duk [oihanetan barna iilia-uk] *App. Il a marché à travers les taillis/ronces plus ou moins épais.*

Debruietan barna duk [debruietan barna-uk] *C'est très loin, au diable.*

Ez ditakek fitsik erran: denak biziki barna hartzen baititu
[eztakek fitsik erran: denak biziki barna hartzen bititu] *On ne peut rien lui dire: il les prend (mal ou) trop au sérieux; (il n'accepte pas la moindre remarque).*

Ez zazula sobera barna har, ez baitu balio [etzazula sobera barna har, ezpitu balio] *Ne le prenez pas trop au sérieux (ce qu'il a dit ou fait); ce n'est pas la peine.*

Barnatu .....*Approfondir.*
Barnatasuna .....*La profondeur.*
Barnatik .....*App. Profondément, du plus profond.*

(On peut faire des comparaisons avec le mot **BARNE***)*

BARNE

Barne *Intérieur. // Faire partie. // En l'espace de...*
Barne hutsa *Vide à l'intérieur (au propre: une pelote par ex, et au figuré).*

Barne betea [barne bethia] *Plein à l'intérieur (la pelote gomme pleine par rapport à la pelote de tennis par ex.).*

Barne beroa [barne berua] *Vêtement, chaussures ou gants à doublure chaude.*

Euskal Herri barne hortan *App. Dans ce Pays Basque intérieur.*

Hamar urte barne *En l'espace de 10 ans.*

Miliun bat pagatu zian, fresak barne [miliun bat paatu zian, fresak barne] *Il le paya un million, frais inclus.*

Barne batzu, garbiak! [barne-atzu, garbiak] *Un intérieur/ des pièces intérieures propres!*

Barne handiko gizona *(Se dit de quelqu'un qui ne dit pas le fond de sa pensée; légèrement dépréciatif.)*

Zer barnea [ze barnia] *(Suivant l'intonation) Quel intérieur (beau/ propre/ vaste/ approprié)! // Quel estomac (pour contenir tout ce qu'il a avalé)! // Quelle capacité à encaisser sans rien laisser paraître... // Quelle haine intérieure persistante...*

Zer barnea duxuna haurra! [ze barnia-uxuna, haurra] *App. Qu'est-ce que tu peux être renfermé, enfant! (On ne peut pas savoir ce que tu penses!)*

Barnea atzemaiten/ pizten/ hunkitzen dik hunek [barnia hatxemiten/ pizten/ hunkitzen dik hunek] *App. (Cette boisson ou cette nourriture) te requinque, te redonne du punch...*

Barnea ilun ..... **[barnia ilhun]** ..... *App. Moral à zéro/ pessimisme/ vague à l'âme...*
Barnea ahul ..... **[barnia ahul]** ..... *App. Affaibli par la maladie, le jeûne, etc...*

Barnez barne *Dimensions intérieures d'un objet par opposition à ses dimensions extérieures. // À travers, mais par l'intérieur des bois, des champs, etc.*

Irri egin diat, barnez, hori erran dautalarik [irrin diat, barnez, hoi erran dautalaaik] *J'ai ri en moi-même quand il m'a dit cela.*

Ahoaren barnean bezain ilun zuian [auhaan barnin bezin ilhun zuian] *Litt. Il faisait aussi noir/ sombre que dans la bouche. C'était la nuit noire.*

Barneko lanak *Les travaux domestiques intérieurs (ménage, cuisine, chambres...)*

Sar < > barnerat, busti gabe [sar barneat, busti gabe] *Ellipse non systématique de* **<zite>.** *Rentrez à l'intérieur (il pleut) avant de vous mouiller.*

Barnetik *De l'intérieur.*

BASA// BASATU

Ahuntz basa .... *(Le) chevreuil.// (Le) cerf* (Batzuiek **Basahuntza** diote)
Ahate basa..... ..... *(Le) canard sauvage.*
Biper basa ..... **[bipher basa]** ..... *(Le) piment sauvage?*
Gatu basa ..... **[gathu basa]**..... *(Le) chat sauvage?*
Gerezi basa..... **[gehezi basa]**..... *(Le) merisier.*
Lapin basa..... ..... *(Le) lapin de garenne.*
Trefla basa .... *(Le) trèfle sauvage* (= treuta?).
Urde basa .... *(Le) sanglier.* (Batzuiek **Basurdea [basurdia]** diote)

Basajauna [basajauna] *Cerf-volant (insecte). // Homme sauvage ou classé comme tel.*

Basatuia duk [basatuia-uk] (*Se dit pour un animal domestique ou apprivoisé qui est (re)devenu sauvage.)*

BAT

Bat ! *(Se dit quand on doit faire un effort collectif en même temps: soulever une poutre par ex. Ce* "**bat**" *est utilisé aussi par les chasseurs qui doivent tirer en même temps lors d'un passsage de palombes par ex.)*

(Bi haurren aitak bat galtzen du. Kontsolatzeko, auzoak erraiten dako:)
— Bat baduzu... ..... **[bat ba-uzu]**..... *App. Vous en avez un...*
— Bat, bat baita! ..... **[bat, bat bita]** ..... *App. Un, ce n'est qu'un! (s'il disparaît?)*

Bat-banazka [ba-banazka] EDO **[bederazka]** *Un par un.*

Hori bat duk... [hoi bat duk] *App. Ça, c'est une chose (mais il y a aussi les autres avantages/ les autres difficultés dont il faut tenir compte).*

Hori baduk bat... [hoi ba-uk bat] *Celui-là c'est quelqu'un... (dans le mauvais sens).*

Herritik hogoi bat ikusle bildu zititzun bakarrik [herritik hogoi bat ikusle bildu zititzun bakharrik] *Il rassembla seulement une vingtaine de spectateur du village.*

Xoxokeria / xorokeria bat erran dik [xookeria-at erran dik] *Il a dit une grosse bêtise.*

Bilduko duk zanpako bat! [bilduko-uk zanpako-at] *Tu vas te ramasser une correction! (Se dit aux enfants.)*

Goaita zak oraino istant bat [guaita zak oono ixtan bat] *Attends encore un peu, un moment (peut-être qu'il viendra).*

Bazian adin bat, jadanik, < > ezagutzak egin ginituelarik
[bazian adin bat, jaanik, eza-utzak in gintiilaaik] *Ellipse de* **<elgarren>**? *Il avait déjà un certain âge, lorsque nous nous étions connus.*

Biziki bat baitire [biziki bat bitie] *(Un tel avec un tel) Ils sont très amis/ unis.*

Lehenik-eta bat... *En premier lieu / Avant tout autre chose... (Il faut faire tel travail/ assurer telle démarche)* (Aita zenak.)

Serios-eta bat! [serius eta bat] *App. Sérieux, décidé, concentré.*

Xuxen-eta bat! *App. Il faut se ce comporter comme il faut (sinon gare)!*

Ixilik-eta bat egon behar zela harekin [ixilik eta bat eon behar tzela harrekin] *Il fallait garder le silence avec lui (sinon gare)!*

"Ixilik-eta bat, niri" *(Aita zena employait cette expression quand on se chamaillait un peu trop. Nous étions sept frères et sœurs et avions, à peu près tous, le verbe facile...)*

i-bat gehiago emakok [i-bat gehioo emakok] *App. Mets-lui un tout petit peu plus en dimension/ un chouia de plus (traçage, dans le travail du bois).* (Aita zenak)
Bihi batik ere ez zuian [bihi batikee etzuian] *Il n'y en avait même pas un seul.*

Batik, ez baitute bere lekuian emanen! [batik, ezpitute bee lekhuian emaan] *Ellipse de* **<tresna>.** *Litt. Ils ne mettront même pas un seul à sa place. Autrement dit: ils ne rangent jamais leurs outils. (Expression d'aita zena, décidemment très porté à ce* "**bat**".)

Badik bat ederra [ba-ik bat eerra] *App. Il a subi un énorme affront.// Il a une belle gueule de bois. (Voir également* **BAT** *dans le chapitre* **"Elhearen indartzeko"***)*

Batek bertzea galdegiten dik [batek bezia galde-iteeik] *App. L'un exige l'autre.*

Egun baten lana duk hor, nunbait han [eun baten lana-uk hor, nunbeit han] *Tu as là/ il y a là, à peu près, pour une journée de travail.*

Batean hau (dela), bertzean hura (dela) [batin hau (dela) bezin hua (dela)] *App. Une fois c'est ceci, une autre fois c'est cela (toujours des obstacles/ des prétextes pour ne pas avancer/ travailler/ conclure).*

Bietarik batean nahiago diat etxean egon [bietaaik batin nahioo-iat etxin eon] *App. À choisir (entre ces deux possibilités) je préfère (celle qui consiste à) rester à la maison.*

Ziloka batetan [zilhoka-atetan] *App. Dans un endroit creux, en "entonnoir".*

Batetarat heldu duk [batetaa heldu-uk] *Ça revient au même.*

Batetarat zetzan erran zakoian [batetaa zetzan erran zakoian] *Il lui dit de les mettre ensemble, de les mélanger.*

Batekin berarekin eginen diat hori [batekin beraakin inen diat hoi] *Un seul (exemplaire) me suffira pour faire ce travail par ex.*

BATERE

Batere [batee] *Pas un.// Pas du tout.// Aucun, aucunement.*

Batere ez duk [batee eztuk] *Il est vraiment nul (cet homme).*

Batere ez dakidalarik [batee eztakialaaik] *Bien que je n'aie pas de preuve, je suis persuadé que... (Formule consacrée.)*

Hori ala batere ez [hoi ala bate-ez] *Ellipse de* **<berdin duk>** *Ça ou rien (c'est pareil).*

Hala gertatu, bertzerik batere ez [hala gerthatu, bezeeik bateez] *App. Il se trouve que ça s'est passé comme ça (il n'y a eu aucune machination, coup fourré, complot).*

Izigarri duk eta bertzerik batere ez [iziarri-uk eta bezeeik bateez] *App. C'est vraiment (une épreuve/ une période/ un passage) terrible.*

Gauza horietan ez nuk batere [gauza hoitan ez nuk batee] *Dans ces domaines-là/ sur ces sujets-là, je ne suis pas du tout à l'aise, je suis nul.*

Ez diat irri egiten gero, batere [eztiat irriten geo, batee] *App. Je ne plaisante pas du tout.*
Ez dik balio batere gordetzea: hortako jinak gintuian [eztik balio batee gordetzia: hortako jinak gintuian] *Ce n'est pas la peine de le cacher, nous étions venus pour ça.*

Ez dakiat batere norat joana den [eztakiat batee noat juana den] *Je ne sais pas du tout où il est passé. (On peut avoir une prononciation beaucoup plus contractée:*
[ezta(k) batee noa(t) juana-en] *et là, il faut s'accrocher! C'est pourtant relativement fréquent quand on est légèrement énervé, pressé ou qu'on répond d'un ton sec.)*

BAZTER// BAZTERTU

(La prononciation **[baztar]** *n'est pas systématique.)*

Bazter hadi [baztar hadi] *Écarte-toi (de là)!*
Bazter nahaslea [baztar nahaslia] *L'agitateur.*

Ikusiko duk nola jalgiko diren bazter guzietarik [ikusiko-uk nola jaliko dien baztar guzietaaik] *App. Tu verras, il en viendra/ sortira de tous les côtés.*

Bazter guziak xehatu baitauzkit oilo koloka zikin horrek [baztar guziak xehatu bitauzt oilo kooka zikhin horrek] *Cette satanée de poule-glousse m'a tout esquinté (au jardin).*

Egin zazue otoitz bazter guzietarik tresna batzu jalgiko baitire
[eizazii othoitz, baztar guzietaaik tresna-atzu jaliko beitie] (Mailuxa Peyrelongue Tanburreneko zenak bere aitzineko batzuieri adituia, 1910 inguruian.) *Traduction approximative de cette expression: "Priez (beaucoup), les temps viendront où des engins de toutes sortes viendront nous envahir et bousculer nos (bonnes) traditions". Remarquez* **[eizazii]** *au lieu de l'habituel* **[izazii]** *et* **[beitie]** *au lieu de l'habituel* **[bitie].**

Ilun bazterra [ilhun bazterra/ baztarra] *La nuit tombante.*

Bazterrak airean zituzteian... [bazterrak airin zuzteian] *App. Il y avait (dans ce lieu-là) du remue-ménage, chacun s'affairant à...*

Han bazterrak mehe dituk [han baztarrak mehe tuk] *App. Là-bas c'est un pays/ une région/ une maison pauvre.*

Bazterrak omore onetan [baztarrak omoonetan] *(Pour décrire une ambiance joyeuse.)*

Junt zituian bazterrak [junt zituian baztarrak] *(Se dit par ex. pour une maison dont les habitants étaient de mariage la veille et qui, le lendemain matin, avaient les volets et les portes clos, parce qu'ils dormaient.)*

Bazterretik beha [baztarretik beha] *App. Regarder d'à côté. (Se dit quand quelqu'un observe les autres travailler, alors qu'il pourrait peut-être lui aussi y prendre part.)*

Eta harek, bazterretik... [eta harrek, baztarretik] *Et lui, de son coin (lui fit cette observation...)*

Bazterretik erretx duk [baztarretik errex duk] *App. Il est facile de dire "y a qu'à"; si tu étais impliqué, tu verrais/ tu comprendrais la difficulté.*

To, nahi nitizkek bazterretik ikusi [to, nahi nizkek baztarretik ikusi] *App. Je voudrais bien les observer d'un coin (pour voir comment va se passer leur rencontre...).*

Baztertu zuian ez minartzeko; beharrik! [baztartu zuian ez minhartzeko; beharrik] *Il s'était écarté pour ne pas prendre mal; heureusement!*

Diruia baztertu *Mettre de l'argent de côté, épargner.*

BEDEREN

Harat joan beharra bederen... [haat juan beharra bedeen] *App. Si au moins j'étais parti là-bas... (il est encore possible (peut-être) d'y aller et je ferais une chose utile).*

Hola bederen ez duk ahantziko [hola bedeen eztuk ahantziko] *Comme ça au moins tu ne l'oubliera pas. (Après avoir pris une précaution exceptionnelle pour qu'il n'oublie pas.)*

Gauza bat bederen erran ditakek... [gauza-at bedeen erran takek] *On peut dire au moins une chose... // Ce qui est certain...*

Ez dituk nehorako, horik bederen [eztituk nehoako, hoik bedeen] *App. Ceux-là au moins ne vont pas s'en aller (tellement je les ai/ tu les as bien fixés/ accrochés).*

Den gutieneko bat bederen eman beharko [den gutieneko-at bedeen eman beharko] *Il faudra donner ne serait-ce qu'un minimum (à cette quête par ex.).*

— **Ari gire karraskan ? [ari gie karraskan]** *App. On travaille dur, avec ardeur?*
— **Ba, alegia bederen [ba, alegia bedeen]** *Oh, on fait au moins semblant (de travailler).*

(Un train contenant des barriques de vin déraille et des centaines de litres sont déversées...)
"Turrilo" han izan balitz bederen... [Turrilo han izan balitz bedeen] *Si au moins Turrilo avait été là (pour boire quelques litres...* **Turrilo** *était le surnom d'un grand buveur de vin au début de 20ème siècle.)*

Atxikazue (≈ atxik ezazue) bakea, pagatuz bederen [atxikazii bakia, paatuz bedeen] *App. Maintenez l'entente (entre frères et sœurs) en déboursant s'il le faut (si on ne peut pas autrement).* Martin Elissalde Kumaitegiko zenak.

(On peut faire des comparaisons avec le mot **SEGURIK***)*

BEGI

Begi ona .... *App. Celui qui a un bon coup d'œil.*
Begi ernea ..... **[begi ernia]** ..... *App. Celui qui a le regard vif.*
Begi xorrotxa .... *App. Celui qui a la vue perçante.*
Begi zorrotz batzu ... . *App. Des yeux (un peu) maladifs.*
Begi erori batzu ..... **[begi eori batzu]** ..... *App. Regard marqué par une longue fatigue.*
Begi jalgi batzu ..... **[begi jali batzu]** ..... *Des yeux exorbités.*
Begi lore batzu .... *Des yeux bleus clairs(?) Des yeux ayant peu dormi(?)*
Begi tzarra dik ..... **[begi tzarra-ik]** ..... *App. Il a un mauvais regard(?)*
Baditik begi sartu batzu... [batik begi sarthu batzu] *App. Il a des yeux cernés (par la fatigue, la maladie).*
Begi-ondo ubel batzuiekin [begiondo u(b)el batzueiekin] *Avec des cernes aux yeux.*

Sagardi, gelditurik, bere begi zuriekin... [Saardi, geldituuik, bee begi zuriekin] *App. S'arrêtant (de travailler, comme pour indiquer que ce qu'il va dire est important) avec ses yeux blancs... (= Yeux gris clairs?)* (Batita Larre Latsagako zenak 1982)

(Begi) keinu bat egin zakoian [(begi) kheinu-at in zakoian] *Il lui fit un clin d'œil.*

Begiak harmatuiak *Yeux écarquillés, avides, inquiets...*

Begi-beharriak idekitzea aski [begi-beharriak iekitzia aski] *Il suffit d'ouvrir les yeux et les oreilles.*

Begia gose *(Se dit aux enfants qui se servent trop copieusement et ne peuvent finir leur assiette.) En français on dirait: "Les yeux plus grands que la bouche/le ventre".*

Begia emana nakoian *Je l'avais "zieuté", repéré, remarqué.*

Begia gaizki huen [begia gaizki hiin] *App. Tu n'avais pas eu le coup d'œil (puisque tu t'es lourdement trompé dans ton estimation).*

Ur-begia *La source.* **(≈** iturburuia// itorrotxa)// *Un tout petit point d'eau qui sort de terre.*

Begiak ñir-ñir *Yeux avides (attendant une boisson, une friandise).* (≈ begiak zurituak?)

Ez dakiat zer eginen duten, Joanesek begiak hetsiko dituelarik
[eztakiat ze ine-uten, Juanesek begiak hetsiko tiilaaik] *Litt. Je ne sais pas ce qu'ils feront quand Joanes fermera les yeux. Autrement dit: quand il mourra.*

"Ikusten ez duen begiak ez dik nigarrik egiten" [ikusten eztiin begiak eztik niarrik'iten] *Dicton. App. L'œil qui ne voit pas (une chose qu'il n'est pas en mesure d'acheter) ne pleure pas (de ne pas l'avoir).*

Oilo-saldako begiak *App. Les bulles du bouillon de poule.*

Ez ditiat begien bistan ikusten ahal [eztitiat begien bistan ikusten ahal] *App. Je ne peux pas les voir "en peinture".*

Begiz jana *(Ayant) dévoré des yeux.*

Begiz ikus ahala urrun *À perte de vue.*

To, ez dik ene begiz ikusten... [to, eztik ene begiz ikusten] *App. Il est loin de faire la même analyse que moi (sur la personne/ sur la situation)...*

Begietarik ezagutu nian [begietaaik eza-utu nian] *Je le reconnus à ses yeux, à son regard (ressemblant à ceux de son père).*

Ala begietan dute, aments? *L'auraient-ils dans le collimateur?*

Begiztatu [begistatu] *"Zieuter"/ remarquer/ repérer.*
Begitarte pollita [begitarte pullita] *App. Joli traits de visage.*

BEGIRATU

Begira ari dituk [begira aai tuk] *App. (Ils vendent) au jugé (sans peser). (Tout animal et toute marchandise peut se vendre au jugé.)*

Begiratu [beiratu] *Conserver soigneusement.*

BEHA// BEHATU

Beha nagok ..... **[behaa nook]**..... *J'attends (avec quelque impatience, inquiétude)*
(Goaitatzen diat ..... **[guaitatzen diat]**..... *Je l'attends.)*
(Zain nagok ..... **[zain nook]**..... *Je surveille son passage pour lui dire...)*

Noiz jinen ziren beha nintagoian [noiz jien tzien beha nintooian] *App. J'attendais avec une certaine impatience, quand ils arriveraient.*

Zerbitza hadi, bertzeri beha egon gabe [zerbitza hadi, bezeri beha eon gabe] *App. Sers-toi, mange, sans attendre les autres qui discutent; tu as le "feu vert" de politesse.*

Beha-kolpe bat eman [beha-kolpe-at eman] *App. Jeter un (petit) coup d'œil.*

Behako bat eman *Jeter un coup d'œil (pour voir le temps/ lire le journal...)*

Behako eztia *Un regard doux.* **Behako bortitza** *Un regard dur, sévère...*

Behaka, behaka ari zautana... [behaaka, behaaka ari zautana] *(Importance de l'intonation) Il me regardait avec insistance...*

Langile baino behari gehiago [langile banoo behari gehioo] *Plus de spectateurs que de travailleurs. (Se dit quand deux ou trois personnes travaillent et que d'autres les regardent faire. Cette situation ne se prolonge pas; c'est un appel gentil, déguisé: ou bien "les spectateurs" se mettent au travail, ou bien ils continuent leur chemin.)*

Beha beha *(Suivant l'intonation) Regardez (ce que j'ai trouvé). // Regardez vite (avant qu'il ne se cache, qu'il ne disparaisse).*

To, beha zazu nor heldu den... *Tenez, regardez qui vient... (Remarquez ici que l'on peut dire dit* **<to>** *même quand on vouvoie. Mais on peut aussi dire*: **Zu, beha zazu...)**

Beha zak urtzo horieri! [beha zak urtzo hoieri] *Regarde ces palombes (qui passent)!*

Beha zak-eia [behazakeeia] *App. Regarde-moi ça! (C'est chiant/ c'est étonnant...)*

Behatzen ahal duta? *Est-ce que je peux regarder (avant d'acheter)?*

BEHAR// BEHARTU

Behar duka? [beha-uka] *(Suivant l'intonation) Tu as besoin (de cet appareil, de cette nourriture)? // Tu le veux? // Tu veux une gifle?*
Behar dik ikusi... [behaaik ikusi] *Il faut voir (ce qu'il fait, ce qui se passe exactement)...*
Behar ederrez gu ibiliak hor... [behar eerrez gu iiliak hor] *App. Quand je pense que nous étions allés là, que nous avions fait tout ça pour (presque) rien...*

Behar orduian baliatzeko *App. (Conserver/ ranger un produit ou un outil) pour l'utiliser quand on en aura besoin.*

Behar ere [beharree] *App. Il le fallait, c'est évident.// Heureusement que oui. (Expression consacrée)*

Ez behar ere [ez beharree] *App. Il ne le fallait pas./ Il n'en était pas question. // Évidemment que non. (Expression consacrée).*

Behar ez delarik! [behar eztelaaik] *Quand il ne faut pas (il va venir/ il va aller/ il va faire/ il va se ficher, etc.! (Expression consacrée quand on est un peu contrarié)*

Atzeman behar diat, non ere baita [hatxeman beha-iat nunee bita] *Il faut que je le retrouve où qu'il soit (bien que je ne sache pas du tout où il est).*

"Gatzak merkatu behar dik" [gatzak merkhatu beha-ik] *Dicton. Le sel va baisser de prix. (Se dit en bêtisant quand, un peu plus loin, quelqu'un se gratte le derrière...)*

Hola behar dik < > [hola beha-ik] *Ellipse de* **<izan>.** *App. Il faut se comporter comme ça. (C'est bien mon petit.)*

Hori duzu behar [hoi duzu behar] *C'est cela/ c'est celui-là qu'il vous faut.*

Holakorik ez zian egin behar eta fini! [holakooik etzian in behar eta fini] *Il n'aurait pas dû faire une chose pareille; un point c'est tout.*

Horri ez zakok hitzeman behar! [horri etzakok hitzeman behar] *À lui, à celui-là, il ne faut pas lui en promettre (mais lui en donner en abondance, à manger)!*

Batek duena bertzeak behar [batek diina bezik behar] *Si on en donne à l'un (des enfants) l'autre aussi en veut autant.*

Erre eta xikildu behar diagu! [erre eta xikhildu behar diaau] *App. Nous allons nous faire "cuire", "griller" sous ce soleil de plomb!*

Erhoa behar dik < > hortik abiatzeko [erhua beha-ik hortik abiatzeko] *Ellipse de* **<izan>** *Il faut être fou pour prendre cette direction.*

Huts egin behar dik! [hutsin beha-ik] *Il va le manquer (l'autobus, j'en suis sûr)!*

Orgen aitzindegia ere arranjatu behar ginikek [orgen ai(n)tzindeeiaree arranjatu behar ginikek] *Il faudrait que nous réparions la partie avant montante de la charrette.*

Galdegin behar jaun erretorari... [galde-in behar janartoraai] *(Voir l'intonation) Il faut demander à M.le Curé. // App. Si jamais tu demandes ça à M. le Curé, tu verras comment il te répondra! Car on connaît ses opinions sur le sujet.*
(Même utilisation avec: **Erran behar... //** **Aipatu behar...** *Etc.)*

Berdin egin behar-eta... [bardin in behar-eta] *Puisque, de toute façon, il faut le faire (alors faisons-le).*
Banakian ez zela urrun izan behar [banakian etzela urrun izan behar] *Je savais qu'il ne devait pas être bien loin (l'objet perdue, puisque je viens de le retrouver).*

Maitatu zian, azkenean [maitatu zian, azkeein] *(Se dit quand une vache ou une brebis finit par accepter d'allaiter un petit qui n'est pas le sien.)*

Nola gazteeri maitaraz euskara? [nola gazteri maitaaz heskuara] *Comment faire aimer l'euskara aux jeunes/ à nos jeunes?*

MANERA

Manera hortan *Dans cet état, dans ces conditions.*

Manera hortan joaiteko... [manera hortan jüiteko] *Partir (mourir) sans plus de... (On peut dire aussi:* **Funts hortan joaiteko...** *Voir le mot* **FUNTS***)*

Zer dire manera horik? [zer die manera hoik] *Qu'est-ce que c'est que ces façons?! (Se dit plutôt aux enfants mais peut se dire à des adultes dans un cadre conflictuel.)*

Errekolta on baten manera *Les prémices d'une bonne récolte.*

Dena manera baita [dena manera-ita] *App. Il sait s'y prendre, il a beaucoup de doigté.*
Dena mañera baita [dena mañera-ita] *(Même sens, mais en plus délicat, féminisé?).*

Erraiteko maneran [erteko maneran] *Pour ainsi dire. (Expresssion consacrée)*

Ez diat batere ikusi, erraiteko maneran [eztiat batee ikusi, erteko maneran] *App. Je ne l'ai pas vu, pour ainsi dire/ je ne l'ai pratiquement pas vu.*

Hau ederra diagu, ez badugu orai etxerat joaiteko manerarik... [hau eerra-iaau ezpaduu orei etxeat jüiteko maneraaik] *App. Nous sommes dans de "beaux draps" maintenant, si nous ne pouvons même pas rentrer à la maison (panne de voiture ou autres).*

Batere manerarik gabe... [batee maneraaik gabe] *Alors que l'on ne s'y attendait pas du tout, que rien ne le laissait prévoir...*

Kurritzeko maneratik ezagutu nian [kurritzeko maneratik eza-utu nian] *Je le reconnus à sa façon de marcher/ à sa démarche.*

(On peut faire des comparaisons avec les mots **MOLDE// MOLDATU***)*

MEHE// MEHATU

Mehe egin, garizuma denboran *Jeûner, pendant le carême.*

Gizon mehe bat *Un homme maigre.*

Gizon mehar bat *Un maigrichon/ un gringalet.*

Han, bazterrak mehe dituk [han, baztarrak mehe tuk] *App. Là-bas, c'est un pays/ une région/ une maison pauvre.*

Mehatu duk [mehatu-uk] *Il a maigri. // Tu l'as aiguisée (la faux avec le marteau et l'enclume).*

Sega mehatu *Amincir en battant le tranchant de la faux avec un marteau contre l'enclume.* **(Sega xorroxtu** *Aiguiser la faux (avec la pierre à faux.)*
"Mehatu ala xorroxtu", biak zonbeit zonbeit aldiz egin ditu gure aita zenak: primadera, uda eta udakabilean egun guziez aldi bat eta batzuietan egunean bietan; neguian ere frangotan, sega-motxarekin (tailuia) othe pikatzeko. Tresna untsa xorroxtuiak behar zituen.)

Tinduia mehatu [thinduia mehatu] *Diluer la peinture.* (Senperen: Tinta mehatu.)

Plazako itzulia egiteko denboran aski duzu sega mehatzea [plazako itzulia iteko denboran aski uzu sega mehatzia] *Le temps que je fasse un tour au bourg, vous n'avez qu'à aiguiser la faux (en la battant sur l'enclume).*

MEHEXI// MEHEXITU .....(Euskara batuan: MEREZI// MEREZITU)

Merezi likek aditzea [mehexi likek a-itzia] *Il mériterait d'entendre (ses quatre vérités.)*

Urkatzea merezi likek (holakoak) [urkhatzia mehexi likek (holakuk)] *App. Il mériterait d'être pendu/ étranglé ce chenapan. (Fait partie des expressions exagérées.)*

Zer tinkaldia merezi lukena! [ze tinkaldia mehexi lukena] *App. Il mériterait une de ces branlées! (Il s'agit ici de menace verbale, sans véritable intention.)*

Ez dik gaizkirik merezi [eztik gaizkiik mehexi] *App. Il ne mérite pas qu'on en dise du mal. (Se dit, par exemple, d'un outil qui a duré longtemps, qui n'a pas démérité.)*

Sega hunek ez dik gaizkirik merezi [sega hunek eztik gaizkiik mehexi] *App. Cette faux (archi usée et qui coupe encore) ne mérite pas qu'on en dise du mal.*

Hartaz, ez zian holakorik merezi [hartaz, etzian holakooik mehexi] *C'est vrai qu'il ne méritait pas cela. (Se dit pour une personne méritante, subissant une déconvenue.)*

Kantuiak merezi litizkek [khantuiak mehexi luzkek] *Il mériterait qu'on lui "donne des bertsus". (En effet les "bertsus" servaient souvent à mettre "en boîte", car il se dit aussi:*
Kantuiak ukhanen dituk hola segitzen baduk [khantuiak ukhaan tuk hola se-itzen ba-uk] *On te "donnera des bertsus" si tu continues dans cette mauvaise voie.)*

Badik merezimendu... [ba-ik meheximendu] *Il a vraiment du mérite (de s'être occupé de ce malade/ d'avoir travaillé avec abnégation)...*

Zer merezimenduiak! [ze meheximenduiak] *Quels mérites! (d'avoir élevé tant d'enfants.)*

Plazerrak ukan baditu, merezituiak zitian [plazerrak ukhan batu, mehexituiak zitian] *App. Si elle a eu des plaisirs, elle les avait mérités! (À propos d'une femme qui avait eu beaucoup d'enfants mais qui, si on la plaignait, disait qu'elle avait eu aussi des plaisirs.)*

MENTURA// MENTURATU

Mentura ttipia *Peu de chance de l'avoir, de l'obtenir.*

Menturan, to! [mentuan, to] *App. Bravo (c'est bien)!*

Haren menturan egon gintuian... [harren menturan eon gintuian] *App. Nous attendîmes, en comptant toujours sur lui (nous n'avions pas vraiment le choix d'ailleurs)...*

Ihiziaren menturan dagona... [ihiziaan menturan doona] *App. Celui qui espère vivre seulement de la chasse...*

Gerokoaren menturan ez dik egon behar... [geokuaan menturan eztik egon behar] *App. Il ne faut pas rester en espérant que ça va tomber du ciel (il vaut mieux agir).*

Ez nuk menturatu aipatzerat [enuk menturatu aiphatzeat] *Je n'ai pas osé en parler.*

Ez nintuian menturatzen... [enintuian menturatzen] *App. Je n'osais pas.*

Hori, menturazkoa duk [hoi, menturazkua-uk] *App. Ce projet-là a un avenir incertain.*

MIHI

Mihi gizena dik, izigarria [mihi gizena-ik, iziarria] *Il a souvent des propos grossiers, vulgaires/ libertins.*

Mihi zabala duk poxi bat [mihi zahala-ita poxi bat] *(Se dit de quelqu'un qui prononce* "eZkualduna" *au lieu de* "eSkualduna" *(?) Un cheveu sur la langue (?)*

Mihi zaluia, amatar [mihi zalhuia, amatar] *App. A la langue bien pendue, parlant sans retenue comme sa mère.*

Mihi xorrotxa *Litt. Langue aiguisée. Autrement dit: qui a le verbe caustique, virulent.*

Mihi gaixtoa [mihi gaixtua] *Qui a un parler acerbe.*

Mihi luzea [mihi luzia] *App. Bavard, qui raconte des affaires familiales, conjugales.*

Mihi azpiko zaina zalu dik [mihi azpiko zaina zalhu-ik] *Litt. Elle a le muscle du dessous de la langue agile. Autrement dit et approximativement: elle a la parole facile, mais le contenu laisse à désirer.* (Ama zenak frangotan errana.)

Harek ere ez baitu mihia sakelan [harrekee ezpitu mihia sakelan] *Lui non plus n'a pas la langue à la poche (il a la langue bien pendue).*

Mihia galduia duka? [mihia galduia-uka] *As-tu perdu la langue? (Se dit aux enfants qui hésitent à parler, par caprice?/ par timidité?)*

Mihiaren puntan nian [mihiaan puntan nian] *Litt. Je l'avais au bout de la langue. (Se dit pour un léger trou de mémoire, lorsqu'on est tout près de trouver le mot recherché.)*

Mihiarekin EDO **mihiz errex duk [mihiaakin** EDO **mihiz erretx duk]** *Le dire c'est facile... (sous entendu: le faire c'est autre chose!)*

Mihiarekin azkar duk... [mihiaakin azkar duk] *Il est fort en gueule (mais en acte)...*

Taula mihiztatuiak [taula mihistatuiak] *Planches bouvetées (***mihia** *= mâle et* **ezpaina** *= femelle.)*

MIN// MINTU .....(Euskara batuan: MIN// MINDU)

Min diat beso huntan *J'ai mal à ce bras.*

Tripan min *Avoir mal au ventre. // App. Avoir des soucis/ des inquiétudes.*
Minbizia *Le cancer.*

Uda mina..... .....*App. Au cœur de l'été.*
Negu mina ....*App. Au cœur de l'hiver.*
Perde mina .....**[pherde mina]** .....*App. Non mûr, acide.*
Karmina .....**[kharmina]** .....*App. Complètement vert, acide...*
Bihotzeko mina..... .....*App. Une maladie cardio-vasculaire.*
Bihotz-mina..... .....*App. Le chagrin (d'amour/ de tristesse).*
Erortzeko mina .....**[eortzeko mina]**.....*L'épilepsie.*
Ahoko mina..... .....*Le mal de dent.*
Buruko mina .....**[buuko mina]**.....*Le mal de tête/ la migraine.*

Eskuko mina (Pilotarien eskuko mina.)

Ageri dik, hortarik, zer duen tripako mina [aeri-ik, hortaaik, zer diin tripako mina] *App. À sa réaction (parole/ geste), on voit bien ce qui le tracasse.*

Bazian bertze tripako minik [bazian beze tripako minik] *App. (Apparemment il était venu nous aider, mais en réalité) il voulait parler de quelque chose qui le tracassait.*

Buruko mina emaiten dautak, mutikoa! [buuko mina emiten dautak, muthikua] *App. Tu me donnes mal de tête, garçon tracassier (avec ton vacarme)!*

Buruko minak eta denak jauziak baititut [buuko minak eta denak jauziak bititut] *(Avec tous ces embêtements), j'ai attrapé une migraine.*

Adiskide minak zituian [a-ixkide minak zituian] *Ils étaient amis intimes.*

Minarekin, ezin egona nian! [minaakin ezin eona nian] *App. À cause de la douleur, il m'était impossible de rester en place!*

Bihotzeko minarekin hil zuian [bihotzeko minaakin hil zuian] *Il mourut d'une maladie du cœur* (eta ez: bihotzeko minez)

Minartzeko jokoak dituk horik denak! [minhartzeko joku(k) tuk hoik denak] *App. Ça, c'est bon pour se faire mal/ se casser la gueule.*

Esne mintuia ..... **[esne minthuia]** ..... *App. Le lait (qui a) tourné.*
Odolgi mintuiak ..... **[oolgi minthuiak]** ..... *App. Les boudins tournés, avariés.*
Eltzekari mintuia .... **[kozina minthuia]** .... *App. La soupe tournée, avariée.*
Pixagile mintuia ..... **[pixile minthuia]** ..... *App. Ayant grande envie d'uriner.*

Esnea mintzen hasia [esnia mintzen hasia] *App. Le lait a commencé à tourner.*

Mindulin bat [minthulin bat] EDO **[minttulin bat]** *App. Un pleurnicheur.*

MINTZO// MINTZATU

Zertaz mintzo da gehienki jendea? [zetaz mintzo da gehienki jendia] *De quoi parlent les gens le plus souvent?*

Mintzatzez, mintzo duk [mintzatzez mintzo-uk] *Ah ça, pour parler, il parle (sous entendu: c'est le contenu qui laisse à désirer).*

Mintza hadi klarkiago [mintza hadi klarkioo] *Parle plus clairement, d'une manière plus compréhensible.*

Bainan orai euskaraz mintzatzea "nahizko" gauza bat duzu [banan ore(i) heskuaraz mintzatzia "nahizko" gauza-at duzu] *Mais maintenant, parler basque, c'est une question de volonté (alors qu'autrefois c'était un comportement naturel).*

Euskaltzaleek joan beharko dizugu euskara mintzatu horri buruz [heskualtzalek juan beharko-izuu heskuara mintzatu horri buuz] *Nous, les basquisants, nous devrons aller vers cette langue parlée.*

Aita mintzatu nahi nikek *Je voudrais parler à son père/ à ton père (c'est le contexte qui détermine).*

Bi-bieri mintzatu nahi zuela [bi-bieri mintzatu nahi ziila] *App. Qu'il voulait parler aux deux en même temps...*

Mintzaire diat *App. Je parle souvent avec lui, je suis très à l'aise avec lui.*

MIRAKULU

Ez duk mirakulu ixilik baitzagon [eztuk miakulu ixilik bitzoon] *Ce n'était pas étonnant qu'il se taisait (maintenant on le sait: il avait d'autres soucis/ ambitions/ idées).*

Mirakuluz < > jinen duk [miakuluz, jien duk] *Ellipse de* **<kanpo>** *Sauf accident, il viendra.*

Mirakuluz < > ez dik luzatuko [miakuluz, eztik luzatuko] *Ellipse de* **<kanpo>** *Il serait très étonnant qu'il tarde à arrriver.*

Ez duk mirakulurik [eztuk miakuluuik] *Il n'y a pas de miracle/ il ne faut pas s'attendre à des miracles (seul le travail fait donnera des résultats).*

MOLDE// MOLDATU

Molde hortan ez hiz helduko [molde hortan ehiz helduko] *App. En t'y prenant ainsi tu n'est pas près d'y arriver.*

Xuxentzat daukazut ikusteko molde hori [xuxentzat daukazut ikusteko molde hoi] *App. Je trouve ce point de vue très juste.*

Azkeneko berrogoi urte hauetan sanjatu baitire mintzatzeko moldeak
[azkeneko berrooi urthe hautan sanjatu bitie mintzatzeko moldik] *App. La manière de parler a bien changé ces quarante dernières années.* (moldeak ALA manerak?)

Mintzatzeko moldetik ezagutu nian nongoa zen [mintzatzeko moldetik eza-utu nian nunkua zen] *À sa manière de parler? je reconnus d'où il était (de quelle maison).*

Ez dik jende molderik ere [eztik jende moldeeikee] *App. Il ne connaît pas la courtoisie/ il n'a pas une attitude d'homme.*

Ez dituk jende-moldeak horik [eztituk jende-moldik hoik] *App. Ce comportement/ ces agissements ne sont pas dignes de personnes dignes de ce nom.*

Badueia molderik batere? [badii moldeeik batee] *Est-ce qu'il sait s'y prendre (dans son travail)?*

Emaztea moldatu [emaztia moldatu] *App. Tenir (énergiquement) le rôle masculin dans une relation sexuelle.*

(On peut faire des comparaisons avec le mot **MANERA***)*

MOTZ// MOZTU

Beso motza ....*App. Celui qui est manchot.* **(≈ Mantxota***?)*
Erhi motza..... .....*App. Celui à qui il manque un doigt/ doigt coupé.*
Hortz motza ....*App. Celui à qui il manque une ou plusieurs dents.*
Lepo motza ..... **[lepho motza]**.....*App. Celui qui a un cou très court.*
Zango motza..... .....*App. Celui à qui il manque une partie de jambe.*
Mihi motza ....*App. Celui qui prononce: eZkualduna au lieu de eSkualduna)* **(≈ Mihi zabala [mihi zahala] ?)**
Lepoa moztu [lephua moztu] *Couper le cou.// Guillotiner.*

Bilo mozterat joan [bilo mozteat juan] *Aller (chez le coiffeur) couper les cheveux.*

(Pikatu *Idée de couper;* **Moztu** *Idée de raccourcir?)*

Uztarri motxa..... *Le joug à une tête (pour atteler une seule bête).*
Sega motxa ..... *Le fauchon.*
Gider motxa ..... *(L'outil) à manche court.*

MUNDU

Mundu guzia kurrituia dik harek [mundu guzia kurrituia-ik harrek] *Il a parcouru la "planète" entière, lui. (Se dit de quelqu'un qui a beaucoup voyagé.)*

Zer munduia zena! [ze munduia zena] *Il y avait foule (À cet enterrement, à ce spectacle.)*

Bazuian sekulako jendea; munduia [bazuian sekulako jendia; munduia] *App. Il y avait un monde fou.*

Munduiaren akabantza... [munduiaan akhabantza] *La fin du monde. (S'emploie rarement, à l'occasion d'une tempête/ d'un orage/ d'un vent exceptionnellement forts.)*

Mundu huntako jenderik hoberena duk, onean delarik [mundu huntako jendeeik hobeena-uk, onin delaaik] *App. Quand elle est de bonne humeur, c'est la personne la plus gentille qui soit...*

Mundu huntako sinpleena duk [mundu huntako xinplena-uk] *C'est la personne la plus simple qui soit. // Le maniement de cet appareil est le plus simple qui soit.*

Mundu huntako gauzarik txarrena eta hoberena: sosa [mundu huntako gauzaaik txarrena eta hobeena: sosa] *App. L'argent, c'est la meilleure et la pire des choses.*

MUNTA// MUNTATU

Berdin munta dik [bardin munta-ik] *C'est égal/ ça m'est égal.*

Berdin munta dik hor berean utzirik ere [bardin munta-ik hor beein utziikee] *Ça n'a pas d'importance qu'on le laisse là même.*

Ez dik berdin munta! [eztik bardin munta] *App. (L'avoir sous la main ou ne pas l'avoir) c'est loin d'être la même chose! (Expression consacrée.)*

Zerbait munta dik, to, nik uste... [zeeit munta-ik, to, nik-uste] *Antiphrase. App. Ça a failli avoir de l'importance...*

Munta dik (to) poxi-poxi bat [munta-ik (to) poxi-poxi-at] *Antiphrase. (Voir l'intonation) App. Cela n'a aucun espèce d'importance.* (Senperen: Munta dik, pitta-pitta bat...)

Buruia muntatu dakoie [buruia muntatu-akoie(k)] *App. Ils lui ont "chauffé" la tête.*

Sekulako bordela muntatu ziteian [sekulako bordela muntatu zuteian] *Ils créérent un bazar épouvantable.*

Gaitzeko ekipa muntatu die(k) *Ils ont formé/ ils ont constitué une équipe formidable.*

Ez dik balio hortako mila istorio muntatzea... [eztik balio hortako mil-ixtorio muntatzia] *App. (Ce problème est secondaire et) ce n'est pas la peine d'en faire une montagne...*

Kexatuia, bizikleta ezin muntatuz [kexatuia, bizikleta ezin muntatuz] *App. Il était furieux car il n'arrivait pas à remonter sa bicylclette (démontée pour nettoyage).*

Muntadura [munta-ura] *(La) monture d'un appareil/ (l')équipement pour un travail.*

Desmuntatu *Démonter (au sens propre seulement).*

MUTIKO

Mutiko bat ..... **[muthiko-at]**..... *Un garçon.*
Mutiko ttipi bat ..... **[muthiko ttipi-at]**..... *Un petit garçon.*
Mutiko gazteak ..... **[muthiko gaztik]** ..... *Les jeunes hommes.*

Mutiko jina [muthiko jina] *(S'emploie surtout pour les jeunes hommes (de 17-20 ans?) qui commencent à prendre des allures d'homme, à raisonner comme un homme.)*
Mutiko tristea, paltoa galtzeko! [muthiko tristia paltua galtzeko] *App. Quel étourdi ce garçon, pour perdre sa veste! (Même sens avec :)*
...paltoa ahanzteko! ..... **[paltua ahanzteko]**..... *pour oublier sa veste!*
...paltoa funditzeko!..... **[paltua funditzeko]**..... *pour abîmer sa veste!*
...paltoa zikintzeko! ..... **[paltua zikhintzeko]** ..... *pour salir sa veste!*

(À la place de **tristea,** *on peut trouver d'autres qualificatifs et à la place de* **paltoa** *d'autres noms...)*

Mutiko ortzia baita hori [muthiko ortzia-ita hoi] *(À Briscous* **"ortzia"** *= orage) App. Ce garçon serait aussi détestable que l'orage...*

Mutiko tzar horren lana diat bai! [muthiko tzar horren lana-iat bai] *(Importance de l'intonation) App. C'est (encore) ce garnement qui m'a fait cette bêtise!*

Zer mutiko gaizki ikasia! [ze muthiko gaizk'ikasia] *Quel garçon mal élevé!*

Uste duka mutiko andoila horrek zer egin dautan! [uste-uka muthiko andoila horrek ze in dautan] *App. Vas-tu croire ce que cet andouille m'a fait.*
(Même sens avec: **...kankail horrek/ ...zozo horrek...,** *etc...)*

Hik, mutikoa, iguzkia ekartzen duk etxerat [hik muthikua, iuzkia ekhartze-uk etxeat] *App. Toi, avec l'ambiance que tu mets, tu amènes le soleil à la maison. (Ama zenak enetzat)*

Hi beti mutiko ona hintzen [hi bethi muthiko ona hintzen] *App. Toi, tu étais toujours un garçon bien/ un fils digne. (Dit par une mère âgée à son fils qui habite loin et qui était venu lui rendre visite.)*

Gure mutikoa [gue muthikua] *Notre fils.// Notre garçon (qui peut ne pas être un fils).*

Ene mutikoa! [ene muthikua] *App. Mon petit (garçon préféré. Puéril?).*

"Mutikoa, ez duka ikusten hitzen erdiak jaten ditugula?" [muthikua, eztuka ikusten hitzen erdiak jaten tuula] *Jeune homme, ne vois-tu pas que nous "mangeons" la moitié des mots? (Il s'agit des ellipses et des contractions liées à la prononciation.)*

Eho hintirot mutikoa! [eho hintiot muthikua] (**eho** *= moudre) Je t'administrerais une raclée monumentale si (je savais que cela te corrigerait)! (Menaces verbales).*

Zanpa hintirot, mutikoa! [zanpa hintiot, muthikua] *Je te donnerais une raclée si (tu n'étais pas un grand garçon, si j'avais l'espoir que ça te corrigerait). (La prononciation du* **"Z"** *de* **Zanpa** *est proche du* **"Z"** *français.)* **(hintirot ≈** hindezaket/ hintzaket)

Zolarik ez duk, mutikoa! [zolaaik eztuk, muthikua] *Litt. Tu n'as pas de fond! Autrement dit: tu manges sans t'arrêter, comme si ton estomac était sans fond.*

Aurdikak besogainka, mutikoa, zikinkeria hori! (= Aurtiki ezak)
[aurdikak besoainka, muthikua, zikhinkeria hoi] *Jette au diable cette saloperie (de jouet)!*

Hura, mutikoa, atzulo bat duk! [hua, muthikua, atzulo-at duk] *Litt. Lui, mon gars, c'est un têtard! App. Il est sans virilité, incapable de se défendre. (Appréciation exagérée.)*

Hobe dik mutikoa < > (neska baino) gerlarik ez bada...
[hobe-ik muthikua, (neska banoo) gerlaaik ezpaa] *Ellipse de* **<izaitea>** *Il vaut mieux être un garçon (plutôt qu'une fille) s'il n'y a pas de guerre... (Paroles d'autrefois.)*

Zer pentsatu duk mutikoa, hortik abiatzeko? [ze pentsatu-uk, muthikoa, hortik abiatzeko] *App. Comment as-tu fais pour prendre cette (mauvaise) direction?*

Mutikokia [muthikokia] *(Se dit pour un comportement typique d'un garçon; plutôt péjoratif.)*

(Mutil duk [muthil duk] *Il est domestique à la campagne, dans une ferme ou à la boulangerie, par ex.)*

NAHASI

Nahasak! *Mélange-le!* **(Higi zak!** *Remue-le! (la sauce/ le bouillon...)*

Ez nahas horik! [ez nahas hoik] *Ne (me) mélange pas ceux-là!*

Nahasi ..... *Mélanger des élements.*
Haize nahasia..... *Vent à direction variable/ vent tournant.*
Estomaka nahasia..... *Estomac barbouillé.*
Jende nahasia..... *Personne qui raconte n'importe quoi.*
Emazteki nahasia ..... *Femme qui parle trop, "dangereuse".*

Oilo koloka bezain nahasia [oilo kooka bezin nahasia] *App. Aussi tracassière qu'une poule glousse. (Se dit plutôt pour les femmes?)*

Gizon horrek nahasten dituenak! [gizon horrek nasten tiinak] *App. Se dit pour quelqu'un qui se démène sans compter, qui bouge et fait bouger les autres.* **(Nahasia** *est un terme assez péjoratif mais ici il est largement atténué à cause des efforts fournis et qu'on veut souligner, même si tout cela n'est pas toujours parfaitement honnête, coordonné et cohérent.)*

Nahasten ditiat [nahasten tiat] *Je les confonds (les deux jumeaux par ex.) // Je les mélange (les deux produits).*

Nahasten nuk *Je m'embrouille/ je confonds (les choses).*

Kaka nahaslea **[kaka nahaslia]** *Un fouille-merde.*
Bazter nahaslea..... **[baztar nahaslia]**..... *Un agitateur.*

Nahasmendu .... *Remue-ménage, chamboulement.*
Nahastekatu ..... **[nahastikatu]**..... *Mélanger différents éléments.*
Ur eta arno nahasteka.. **[ur et'arno nahastika]** .. *App. De l'eau et du vin mélangés.*

Zer naharika egina dukana hor! [ze naharika ina-ukena hor] *Quel mélange (alimentaire) épouvantable que tu as fait là (enfant)!*

NAHI// NAHI BADU

Nahi bada [nahi baa] *Si l'on veut (on peut).// Si on veut (on peut voir ça comme ça).*

Nahi baduk eta ez baduk... [nahi ba-uk eta ezpa-uk] *Que tu le veuilles ou non...*

Nahi duka erosi ene marfandia? [nahuka eosi ene marfandia] *Est-ce que tu veux acheter mon rhume? (Se dit en plaisantant, parfois sans aucun but, mais il arrive que ça puisse être une manière commode d'indiquer à son interlocuteur ses petits problèmes pour qu'il en tienne éventuellement compte. (Même utilisation avec:)*
-...ene erremastisma(k) *Mes rhumatismes./* **-...ene buruko mina** *Ma migraine, etc.*

Nahi duka < > hunat heldu dela? [nahuka hunat heldu-ela] *Ellipse de* **<pariatu>.** *App. Veux-tu parier qu'il vient ici? / Je parie ce tu veux qu'il vient ici...*

Nahi duzuia paper-xaku bat? [nahuzii(ya) paper-txaku bat] *Voulez-vous une pochette? (Question du vendeur au client; peu importe que la pochette soit en papier ou en plastique.)*

Nahi bezala duk [nahi bezala-uk] *App. Il est très bien installé, avec un travail, une famille, une maison, etc. (Expression consacrée.)*

Nahi bezala izaiten ahalko zelarik [nahi bezala iziten ahalko zelaaik] *App. Alors qu'il aurait pu être si bien (au point de vue travail, famille, etc. s'il n'avait pas fait cette bêtise).*

Nahi diat eri zela poxi bat, bainan halere egin beharko zian [nahi-iat eri zela poxi bat, banan halee in beharko zian] *Je veux bien admettre qu'il était un peu malade, mais il aurait quand même dû le faire.*

Beharri sahetsetik nahi nikek aditu [beharri sahetsetik nahi nikek a-itu] *App. J'aimerais bien l'entendre d'un coin (discrètement).*

Ez dik aditu nahi ere! [eztik a-itu nahiree] *Il ne veut même pas en entendre parler!*

Ez zian hura baizik nahi [etzian hua bezik nahi] *Il ne demandait que ça.*

Jainkoak nahi badu, joan behar nakok ikusterat [Jinkuk nahi baau, juan behar nakok ikusteat] *Litt. S'il plait à Dieu, j'irai le voir. (Avec* **Jainkoak nahi badu**, *on veut surtout indiquer notre propre intention et notre détermination d'aller voir quelqu'un/ ou de faire un travail quelconque.)*

Euskara ikasi nahi baduzue, izkiria zazue, ez baita holakorik [heskuara ikasi nahi ba-uzii, izkia zazii, ezpita holakooik] *App. Si vous voulez apprendre le basque, écrivez en basque! (il n'y a rien de tel)*

Nundik nahi duzu eros dezan, sosik ez dizu [nuntik nahuzu eos dezan, sosik eztizu] *Comment voulez-vous qu'il l'achète, il n'a pas d'argent.*

Nola nahi duk egin dezan, ez dik sega(rik) hartu... [nola nahuk in dezan, eztik sega(aik) hartu] *Comment veux-tu qu'il le fasse (le fauchage), il n'a pas pris de faux...*

"Puska eskainirik ez dik nehork nahi" [puska eskainiik eztik nehok nahi] *Dicton. Litt. Personne ne veut de choses offertes (...) (Se dit pour une jeune fille qui fait des "avances" aux garçons, sans résultat. Ce dicton confirmerait que les hommes aime bien "conquérir".)*

Johan deia nahi bezala? [johan dee nahi bezala] *App. (Le travail/ la santé) ça va comme vous voulez?/ Comme on veut?*

Nahi duenak nahi duena erranik ere [nahi diinak nahi diina erranikee] *App. Quoi qu'en disent les gens (je connais mieux que quiconque ses qualités/ ses défauts/ ses mérites)...*
Zer nahi duk? .... **[ze nahi-uk]** .....*Qu'est-ce que tu veux (acheter)?*
Zer nahi duk... ... **[zenahuuk]**.....*Que veux-tu, c'est comme ça... (Ici encore, cette tendance des beskoiztar à distinguer, par la prononciation, le sens propre du sens figuré.)*

Aspaldian egin nahia nian [aspaldian inahia nian] *Il y avait bien longtemps que j'avais envie de le faire (ce travail/ cette démarche).*

Ez duk ez egon nahia! [eztuk ez eon nahia] *(Ce satané objet) ne veut pas rester en place (là où je voudrais qu'il reste. On le dit quand on est fâché et en parlant à soi-même.)*

Ez nahiz iratzarrarazi [ez nahiz iatzarraazi] *App. Ne voulant pas le réveiller (j'ai pris mille précautions pour ne pas faire de bruit).*

Aita ere, beharbada, ez baitzen nornahi [aitaree, beharba, ezpitzen nornahi] *App. (Je ne l'ai pas connu mais) il est fort possible que son père aussi était quelqu'un de très bien.* (Louis Ithurbide Larremendikoak errana 1984.)

Hura dizut nahiena [hua-izut nahiena] *C'est ça/ c'est celui que je préfère.*

Miletan nahiago diat... [miletan nahioo-iat] *Je préfère mille fois...*

Bietarik batean nahiago diat hau [bietaaik batin nahioo-iat hau] *Des deux solutions/ propositions/ outils, je préfère celui-ci (puisque j'ai le choix).*

Non-nahi ..... **[nunahi]** .....*N'importe où.*
Nornahi..... .....*N'importe qui.*
Noiznahi..... .....*N'importe quand.*
Nolanahi ....*N'importe comment.*

(Une utilisation particulière de **nahi badu,** *assez courante, quand on est plus ou moins fâché ou déterminé. N'oublions pas l'importance de l'intonation qui peut tout modifier...)*

Leher egin beza, nahi badu! [leherrin beza, nahi ba-u] *Litt. Qu'il crève, s'il veut... (Se dit quand on ne peut pas obtenir un résultat malgré tous les efforts fournis... On peut même en rajouter:* **Leher eta zapart egin beza, nahi badu...)**

Izorra bedi, nahi badu! [izorra bedi, nahi ba-u] *App. S'il ne veut pas nous écouter, tant pis pour lui...// Si cet engin ne veut pas fonctionner, qu'il aille au diable!*

Errekoño, nahi badu! [errekoño, nahi ba-u] *Très app. Bordel de merde! (Il y a sûrement une ellipse, mais laquelle?)* (Aita zenak)

Aski dun ikastea nahi badun... [aski-un ikastia, nahi ba-un] *App. (Ah, tu ne sais pas l'euskara...) tu n'as qu'à l'apprendre, si tu veux, je ne vais pas faire la traduction, tracassière!* (Amatxi zenak, Mañeñe Duhau-k errana 1950 inguruian *; voir le chapitre* **« Elheari arrapostu ».**

Hasten ahal duk nahi duenean [hasten ahal duk nahi diinin] *Il peut commencer quand il veut (et le plut tôt sera le mieux)!* (Senperen ere berdin da ahozkatzea salbu.)

NAUSI// NAUSITU ..... (Euskara batuan: NAGUSI// NAGUSITU)

Nagusi kondu [nausi khondu] *Considéré comme le patron/ son délégué.*

Nagusi duk [nausi-uk] *Il est plus fort que toi. // C'est beaucoup mieux (ainsi, avec ce nouvel équipement). // C'est plus efficace.*

Nagusi paratuia [nausi phaatuia] *Il s'est érigé en patron.* (Arreba Marie-Jeanne-k, 1988)

Nagusi eta etxekandere [nausi-ta etxek'andere] *App. Patron absolu, qui n'a de comptes à rendre à personne. (Se dit le plus souvent pour des situations momentanées.)*

Gaztea nagusi [gaztia nausi] *App. Le jeune était/ a été supérieur (à la pelote par ex) ou a été meilleur dans l'exécution d'un travail, dans un discours électoral, etc.)*

Nagusia [nausia] *Le patron. // L'employeur.*

Meza nagusia [meza nausia] *La messe chantée/ solennelle du dimanche.*

Belarra nagusituia [belharra nausituia] *Les mauvaises herbes ont pris le dessus (sur le maïs).*

Haurrak nagusituiak [haurrak nausituiak] *(Se dit quand les parents n'arrivent plus à se faire obéir de leurs enfants.)*

Nagusitzen ari zakok [nausitzen aai zakok] *(Se dit quand le patron n'arrive plus à se faire obéir de son domestique.)*

Zainak nagusitzen hasiak ditiak [zainak nausitzen hasia(k) tiat] *App. Les nerfs commencent à me prendre le dessus.*

NESKA

Neska .... *(La) fille (de plus de douze ans?)*
Neska eder bat ..... **[neska eer bat]** ..... *Une belle (jeune) fille.*
Neskatokoa ..... **[neskatekua]**..... *La (jeune) fille.// C'est une fille qui est née (et non un garçon).*
Neska(toko) ttipi bat .... **[neska(teko) ttipi-bat]** .. *Une fillette.*
Neska(toko) gazteak .... **[neska(teko) gaztik]**..... *Les jeunes filles.*

Neska mutikoa baino izpiritusago baita [neska muthikua banoo izpiitusoo bita] *App. La fille est plus intuitive que le garçon.* (Arreba Léonie-k, 1956 inguruian)

Neskato *"Bonne à tout faire" à la campagne.* **(Sehi** *"Bonne à tout faire" en ville.)*

Neskatoa [neskatua] *La "bonne à tout faire" à la campagne.// La suspension pour crémaillère (quand on cuisait les aliments dans le feu de cheminée d'autrefois).*

Neska(teko)kia *(Se dit d'un comportement typique de jeune fille; légèrement dépréciatif.)*

Neska hori, mari-mutikoa baita [neska hoi, mari-muthikua-ita] *App. Cette fille, c'est un garçon manqué.*

NOIZ// NOIZBAIT// NOIZNAHI

Noiz altxatuko diren beha dagok [noiz altxatuko dien beha dook] *App. Elle (la serveuse) attend que les clients se lèvent (pour desservir et faire le ménage.)*

Noiz ere izanen baita... [noizee izaan bita] *Je ne sais pas quand ça arrivera, mais ce jour-là... (Je lui dirai deux mots/ je prendrai ma revanche/ je me ferai plaisir.)*

Ageriko noiz artino... [aeriko noiz artio] *On verra bien jusqu'à quand (ce beau temps/ cette période faste va durer)...*

Han zagoian zain, noiz pasatuko zen [hantzooian zain, noiz pastuko zen] *Il attendait là-bas, guettant son passage.*

Noiztik? *(Suivant le ton) Depuis quand? // Ce que tu dis là est impossible (puisque...)*

"Noizbait", baita hura [noizbeit, bita hua] *(App. Se dit pour quelqu'un qu'il, faut toujours attendre une éternité avant qu'il ne vienne/ qu'il ne finisse un travail, etc.)*

Noiznahi jiten ahal duk EDO **Jiten ahal duk, noiznahi!** *(Suivant le ton) Il peut venir quand il veut. // Il peut venir et le plus vite serai le mieux. // Il peut venir à l'improviste.*

Noiznahi prest gituk [noiznahi pres gituk] *App. Nous sommes prêts et bien décidés...*

NOLA// NOLAZPAIT// NOLANAHI

Nola *Comment (?)/ comme.*

Nola duk izena? [nola-uk izena] *App. Comment tu t'appelles? (Se dit quand on demande son prénom à un enfant; mais, parfois, en voulant connaître son nom et son prénom.)*

Nola handitu den!..... *Comme il a grandi! (Même utilisation avec:)*
..."....**loditu den!**..... ...."....*il a grossi!*
..."....**mehatu den!**..... ...."....*il a maigri!*
..."....**ttipitu den!**..... ...."....*Il est diminué (physiquement et/ou intellectuellement)!*
..."....**zahartu den!** ...."....*il a vieilli!, etc.*

Nola den [nola (d)en] *App. C'est pour dire/ c'est comme ça. (Expression consacrée, avec de nombreuses intonations et significations.)*

Nolaz du harek bizikleta eta nik ez? [nolaz du harrek bizikleta eta nik ez] *Comment se fait-il que lui ait une bicyclette et pas moi?*

Nolazpait *(Est rare; le plus souvent on utilise* **Zerbait gisaz.)**

Nolanahi *Dans n'importe quel cas de figure. (À rapprocher de* **Erran dena, Nola den...)**

Nola nahi duk...?..... **[nola nahi-uk]** ..... *Comment veux-tu (qu'il se corrige)?*
Nolanahika ari duk ..... **[nolanahika ari-uk]** ..... *App. Il travaille n'importe comment.*

NOR// NORBAIT// NORNAHI// NEHOR

Nor da? ....*Qui est-ce?*
Nor da hori?...**[nor da hoi]**.....*App. Qui est-ce, cet individu?*
Nor hori? .....**[nor hoi]** .....*Qui ça? (Je n'ai pas bien saisi)* **(Zer hori? [ze hoi]** *Quoi ça?)*

Lo eginen duela norbaitek [lo inen diila norbeitek] *App. J'en connais un qui va bien dormir (sans somnifère, depuis le temps qu'il est levé, qu'il n'a pas dormi.)*

Atsegin hartu duela, norbaitek [atsin hartu diila, norbeitek] *App. Je connais quelqu'un qui doit apprécier (la conclusion/ l'heureux dénouement)...*

Telefonatu diat bizpahiruretan: ez zuian sekulan nehor [telefonatu-iat bizpahiruetan; etzuian sekulan nehor] *J'ai téléphoné par 2 ou 3 fois; il n'y avait jamais personne.*

Ez die nehork ikusten ahal [eztie(k) nehok ikusten ahal] *Personne ne peut le voir en peinture...*

(À la porte d'entrée d'une maison) **Badeia nehor? [badee nehor]** *Y-a-t-il quelqu'un?*

NORBERA

Norberak egina... [norberak ina] *App. Quand c'est fait par soi-même (le travail) on sait à quoi s'en tenir.*

NUN// NUNBAIT// NUNAHI// NEHUN.
..... **(**Euskara batuan: NON// NONBAIT// NONAHI// NEHON)

Nun behar duk? [nun behaauk] *Où veux-tu (que je pose cette fourchée/ que je frappe le piquet avec la masse... (Avec une masse entre les mains, on peut plaisanter:* **Nun behar duk, buruian ala zangoan?** *App. Où veux-tu que je cogne: sur la tête ou sur les orteils?)*

Nun ziren horik? [nun zien hoik] *Où étaient-elles (ces personnes-là/ ces choses-là)?*

Nun zen hori? [nun zen hoi] *App. Où était-elle placée cette chose-là? (Se dit à un enfant pour qu'il apprenne qu'il doit remettre les choses là où il les a trouvées.)*

Nunbait han ...**[nunbeit han**].....*App. À peu près (quantité/ poids).*
Han nunbait ...**[han nunbeit]**.....*Là-bas, quelque part.*

Nunbaiteko zozoaren arrazoinamenduia [nunbeiteko zozuaan arrazoinamenduia] *App. Voilà le raisonnement type d'un imbécile (...).*

Ni ere, nunbaiteko enuxenta... [ni-ee, nunbeiteko enuxenta] *Moi aussi, naïf comme je suis...*

Nunahi uzten baititu bere aferak [nunahi uzten bititu bee aferak] *App. C'est qu'il laisse ses affaires n'importe où.*

Nehun ezin atzemanez ari izana nuk [nehun ezin hatxemanez a-izana-nuk] *App. J'ai eu les pires peines du monde à le retrouver/ à l'attraper.*

Nehun atzemaitekotz, han atzemanen duk [nehun hatxemitekotz, han hatxemaan duk] *Si tu dois le trouver quelque part, c'est là-bas (dans ce magasin) que tu le trouveras...*

ODOL

Odol beroa [ool berua] *Qui a le sang chaud, violent...*

Odol hotzean erran zakoian [ool hotzin erran zakoian] *App. Il le lui dit sans ménagement, ni préalable.*

Odol gaixtoa egin [ool gaixtua in] *Se faire beaucoup de soucis (par rapport à la santé/ à l'avenir...)*

Odol kolpea [ool kolpia] *Le coup de sang des bovins (que l'on saigne à cause de cela).*

Odola heldu zautaian pegarretik bezala! [oola heldu zautaian pearretik bezala] *Mon sang coulait comme d'une cruche!* (Aitatxi zenak errana; Hamalaueko gerlan handizki kolpatuia izana baitzen, ixterrean.)

Odola ekartzen zian sudurretik [oola ekhartzen zian suurretik] *Il saignait du nez.*
Odola hozten hasia baitut [oola hozten hasia bitut] *(Se dit en vieillissant lorsqu'on devient sédentaire et qu'on ressent un plus grand besoin de chauffage qu'avant.)*

Harat ez ditakexu hurbil, denak odolean ditutxu [haat eztakexu hurbil, denak oolin tutxu] (Odolean ≈ *Au prix du sang...) App. On ne peut rien acheter là-bas; c'est un magasin très cher.* **(**Antoinette Claverie Labiagerreko zenak errana.)

Odoleko zaldia [ooleko zaldia] *Le cheval pur-sang.*

Eskuia odoletan zian [eskuia ooletan zian] *Il avait la main en sang.*

Odolik ez die [oolik eztie(k)] *Litt. Ils n'ont pas de sang. Autrement dit: ils n'ont pas d'énergie, de caractère.*

Emazte horiek ez baitute odolik [emazte hoiek ezpitute oolik] *Litt. Ces femmes n'ont pas de sang! (Se dit parce qu'elles se plaignent toujours du froid.)*

Odolgiak [oolgiak] *Les boudins.*

Odolki tatxa (zerbait) duxu hori [oolki tatxa (zeeit) duxu hoi] *App. C'est une tâche de sang quelconque (et il faudra l'enlever avec un produit adéquat.).*

Odoluria [ool-ulia] *Ampoule de sang sous la peau après un pincement, un coup...*

ON// ONTU ..... (Euskara batuan: ON// ONDU)

"On baino hobe!" [on bano hobe] *App. C'est mieux que bien! (Expression bien connue.)*
On duk holako bat etxean [on duk holako-at etxin] *C'est bon d'avoir quelqu'un comme ça chez soi (qui a une bonne retraite ou qui donne un bon coup de main, par exemple).*

— Jinen zire gure ikusterat? [jien zie gue ikusteat] *(Une fois guéri) vous viendrez nous voir?*
— On baniz! *App. Si j'en suis capable/ si je me remets!* (Otto Janpiarri Lafourcade-k errana 1986an; ondoko urtean zendu zen.)

On nikek haren ikusterat itzuli bat egitea [onikek harren ikusteat itzuli-at itia] *App. Ça me ferait du bien d'aller le voir (le dentiste, par ex.).*

On bazako eta ez bazako... [on bazako eta ezpazako] *App. Que cela lui plaise ou non.*

On deno ez baitire agertuko [on deno ezpitie aertuko] *(Voir l'intonation) App. Ils ne viendront pas nous aider, tant qu'il serait encore temps (avant qu'on n'ait terminé).*

Ez bainintzen on [ezpinintzen on] *Je n'en étais pas capable (physiquement/ intellectuellement).*

Ez duk enetzat on [eztuk enetzat on] *Ce n'est pas bon pour moi (cette escalade/ cet effort intellectuel/ ce travail pénible; il faut être plus jeune/ plus doué que moi pour le faire).*

Heientzat on bazen, guretzat ere hala izanen duk [heientzat on bazen, guetzatee hal'izaan duk] *Si c'était bon pour eux, ça le sera pour nous aussi. Autrement dit: ils ne l'auront pas.*

Dena ere on [denaree on] *App. Ce n'est pas grand chose mais c'est quand même bon à prendre/ à recevoir/ à utiliser.*

Iguzki on batek salba lezakek [iuzki on batek salba lezakek] *Un beau soleil sauverait la (récolte de foin quelque peu endommagée par la pluie). (Litt. Un "bon" soleil...)*

(En buvant un coup)

— **Zure osagarrian! [zu osagarrian]** *À votre santé!*
— **On dagizula! [on daaitzula] (≈ on egin diezazula)** *(Grand) bien vous fasse!*

On-gaitzeri ohartzea [on-gaitzeri ohartzia] *Repérer, remarquer les bons et les mauvais côtés (d'une chose).*

On-ona duk, oraino [on-ona-uk, oono] *Tu l'as/ il est encore en parfait état (malgré qu'il ait servi/ malgré son âge).*

Oñ-oñak sakelan *Les bonbons dans la poche. (S'emploie plutôt au sens figuré pour ironiser sur quelqu'un qui vient avec un cadeau dans l'espoir d'obtenir quelque chose.)*

Jatea bezain on huke pausatzea [jatia bezin on huke pausatzia] *App. Tu ferais mieux de te reposer au lieu de manger (pour récupérer).*

Ezkontza ona egin zian [ezkontza ona in zian] *Il avait fait un "bon" mariage (sur le plan humain/ matériel/ financier...)*

Animale ona!..... **[animal'ona]** .....*Antiphrase. Drôle de garnement!*
Errekitu ona! ....*Drôle de loustic!*
Xori ona(k)! ..... **[xori ona(k)]** .....*Antiphrase. Drôle(s) d'oiseau(x), difficile(s) à manœuvrer!*

Begi ona..... .....*Bon coup d'œil.*
Bixta ona ....*Bonne vue.*
Botiges ona ..... **[boties ona]**.....*Bon commerçant.*
Buru ona..... .....*Intelligent.*
Erreki ona ....*Bon rôti.*
Xinda ona ....*Visage respirant la santé.*

Marka ona ..... **[mark'ona]** ..... *(Suivant le ton) Bon signe/ mauvais signe.*
Marka ona, abantzu... .. **[mark'ona, aantzu]**..... *Ça a failli être un bon signe...*
(Marka txar(ra) ..... **[marka txar(ra)]** ..... *Mauvais signe.)*

Ontsa ona! [unts'ona] *(Il est) bien bon (ce plat)!*

Zafraldi bat ona (eman) [zafraldi-at ona (eman)] *Donner une bonne fessée. // Porter un rude coup à une réserve de fourrage // Avancer considérablement son travail.*

Ederra bezain ona [eerra bezin ona] *Aussi beau que bon (nourriture, vêtement).*

Airaldi bat ona eman dakoiat! [airaldi-at ona eman dakoiat] *App. Je lui ai donné une bonne engueulade!*

Arnoaren ona ez die sekulan aipatzen [arnuaan ona eztie(k) sekulan aiphatzen] *Ils ne parlent jamais des bienfaits du vin (lorsqu'il est bu avec modération, bien sûr...).*

Kaniketan ona zuian *C'était un bon joueur de billes.*

Ez diat ona hori [eztiat ona hoi] *Ce n'est pas celui qu'il me faut, ce n'est pas le bon.*

Ez dik ona hori [eztik ona hoi] *(Se dit quand on apprend qu'une personne à des signes inquiétants de maladie, avec des risques pour l'exercice de sa profession/ pour sa vie...)*

Pottona [pottuna] *Baiser sur les lèvres non appuyé (puéril).* (Maritxu Olano saratarrak ere erran du bere iloba ttipiari, 1985-04-06an)

Elhe guti eta hek onak! *App. Peu de paroles mais qu'elles soient sensées! (Pas de bla-bla-bla.) (Expression bien connue.)*

Hitz guti eta hek onak! *App. Peu de paroles mais que celles-là soient bonnes/ sensées.*

Ez bakarrik elhe onak [ez bakharrik elhe onak] *Pas seulement des bons mots (des actes).*

Bortz metra onak [bos metre onak] *Cinq bon mètres (légèrement plus de 5 m).*

Bazian zerbait onik ere orai artino iraun duenean... [bazian zeeit onikee oai artio iraun diinin] *App. Il fallait qu'il soit solide pour durer (depuis le temps) jusqu'à aujourd'hui.*

Gauza onik ez baita hori... [gauz'onik ezpita hoi] *(Se dit de quelqu'un qui a fait un mauvais coup.)*

Deus onik ez baita hori [deus onik ezpita hoi] *C'est un vaurien, celui là. (Toujours ce langage exagéré.)*

Onik deusik ez dutela, hori haatik gauza segura < > [onik deusik ez dutela, hoi haatik gauza seura] *Ellipse de* **<duk>** *(Ce ne sont peut-être pas des poisons, mais) ce qui est sûr, c'est qu'ils n'ont rien de bon non plus.*

Onik ez baitute ukanen hautsi artio [onik ezpitute ukhaan hauts-artio] *App. Ils n'auront pas de paix/ de cesse avant de le casser (ce jouet qu'ils se disputent).*

Ez duk sekulan onik ukanen horrekin [eztuk sekulan onik ukhaan horrekin] *App. Tu ne seras jamais tranquille avec cet (engin toujours en panne/ homme inconstant...)*

Badiagu onik... [badiaau onik] *Antiphrase. L'affaire a failli se présenter bien...*

— Zer du Manexek? *Qu'est-ce qu'il a Manex?*
— Deus onik (ez). *Rien de bon. (Réponse donnée quand il s'agit de maladie grave.)*

Bihotz oneko jendea [bihotz oneko jendia] *Personne généreuse.*

Leku onean (zuian) [leku onin (zuian)] *(Suivant l'intonation) Il était dans une bonne place (travail) // Antiphrase. Il s'est trompé de cible, de personne...*

Leku onean ari hintzen... [lekhu onin ari hintzen] *Antiphrase. (Par ex: Manex propose à Ganix de voter pour la "droite"; mais Manex ne sait pas que Ganix est de "gauche". L'entourage va taquiner Manex avec cette expression-là.)*

Omore onetan zirezte! [omo'onetan ziizte] *(Se dit par quelqu'un qui arrive dans un groupe où règne une ambiance joyeuse.)*

Bazterrak omore onetan! [baztarrak omoonetan] *App. L'ambiance joyeuse!*

Onerat egin [oneat in] *Aller vers une amélioration (par opposition à empirer).*

Onerat ari [oneat ari] *En train de s'améliorer (maladie/ météo).*

Hura beti onerat [hua bethi oneat] *Lui, il est toujours arrangeant, cherche des solutions.*

Harek beti onerat [harrek bethi oneat] *Lui, il ramenait toujours la pelote (même les plus difficiles).*

Hori guzia bide onerat heldu artino [hoi guzia bide oneat heldu artio] *Tout ça jusqu'à atteindre un chemin meilleur, plus carrossable.*

Eltzekaria ontu [eltzekaria onthu] *Améliorer (avec divers éléments) le potage.*

Sagarrak ontzen ari [saarrak ontzen ari] *Les pommes sont en train de mûrir.*

Eztula ontzen ari *Litt. La toux, commence "à mûrir". Autrement dit: commence "à guérir". (S'utilise avec le même sens pour:*
– Marfandia ..... *Le rhume...*
– Suia ..... *L'acné...*
– Handitsuia..... *Le furoncle...)*

Onago [onoo] *(Cet aliment a un) goût meilleur. (Expression assez rare.)*
(Hobea [hobia] *Meilleur, au sens beaucoup plus large.)*

Onartu [onhartu] *Accepter, reconnaître.*

ONDO

Ondo-ondoan [ond-ondun] *Tout à côté.*

Paue ondo hortan bizi duk [Pabe ondo hortan bizi-uk] *Il réside aux alentours de Pau.*

"Atzemaitea eta hutsegitea elgarren ondoan baitire" [hatxemitia eta hutsitia elgarren ondun bitie] *Dicton. App. Peu de choses séparent (parfois) la réussite de l'échec.*

Zahartu ondoan ikusi diat nik hura hiru giletan ari, ontsaxko [zahartu ondun ikusi-iat nik hua hiru giletan ari, untsasko] *App. Alors qu'il était déjà vieux (depuis quelques temps) je l'ai vu jouer très bien aux quilles de trois.* (Batita Larre Latsaga zenak, 1982.)

Lanean ar-arazi ondoan, idiak edanarazten gintitzun [lanin arr-aazi ondun, idiak eanaazten gintitzun] *Ap. Après avoir fait travailler les bœufs, nous les faisions boire.*

Egin ondoan [in ondun] *Après (l')avoir fait.*

(On peut faire des comparaisons avec le mot **ALDE(AN)**

Ez nuk ondorik kexu [enuk ondooik kexu] *Je ne m'en fais pas du tout.*

— Arrangura huena? .. **[arrangura hiina]**..... *Étais-tu inquiet?*
— Ez, ondorik ere... .... **[ez, ondooikee]** ..... *Non, pas du tout...*

Zerbaiten EDO **zenbaiten ondotik ibiltzea [zeeiten** EDO **zonbeiten ondotik iiltzia]** *Être à la recherche de quelque chose ou de quelqu'un.*

Zure ondotik! [zu(e) ondotik] *Après vous! (Paroles de politesse pour laisser passer quelqu'un devant soi).*

Beti ondotik diat *Il ne me lâche pas (car il veut obtenir quelque chose de moi).*

Beti hor nian (ene) ondotik [bethi hor nian (en')ondotik] *Je l'avais toujours à mes trousses, pour obtenir une faveur quelconque/ pour être en ma compagnie...*

Til, til, til, hor nian ondotik] *Il était toujours après moi (comme un petit chien).*

Atzoko entseialdiaren ondotik [atzoko eseialdiaan ondotik] *Après les efforts (énormes) d'hier (un peu de repos aujourd'hui).*

Jendarmeak ondotik ditik [jandarmik ondoti'tik] *Les gendarmes le recherchent.*
Gure ondotik jinen direnek... [gu(e) ondotik jien dienek] *Ceux qui viendront après nous (les générations futures)...*

Ondokoak [ondokuk] *Le suivant / les suivants.// Celui/ ceux d'à côté. // Les secondines de la femme ou des femelles en général.*

Ondokina *(Personne bien constituée mais trapue. (Diminutif*: **Onddokina.)**

Beharri ondoko bat eman zakoian [beharr'ondoko-at eman zakoian] *Il lui donna une gifle (monumentale).*

Agian ondoko egunetan sariztatuko dituk [agian ondoko eunetan saristatuko tuk] *App. Il faut espérer qu'un jour, tu sauras le leur rendre!* (Aita zenak Paxkal bere semebitxiari.)

Ondoko egunetan ..... **[ondok'eunetan]**..... *Dans les jours qui viennent.*
Ondoko igandean ..... **[ondok'iandin]** ..... *Le dimanche suivant.*
Ondoko aldian ..... **[ondok'aldian]**..... *La fois suivante.*
Ondoko hostoan..... **[ondoko hostun]**..... *À la page suivante.*

Gure ondokoek eginen dizie nahi dutena edo ahal dutena [gu-ondokuek ine-izie nahutena edo ahal dutena] *Nos descendants feront ce qu'ils voudront ou ce qu'ils pourront (mais nous, faisons ce qui est dans nos possibilités).*

Ondorat joan [ondoat juan] *Aller vers quelqu'un (à la recherche d'une protection?)*
Amaren ondorat joan [amaan ondoat juan] *Aller vers (le confort de) sa mère.*

Errient-ondo ....*Ancien instituteur.*
.....**[sarrient-ondo]**....*Ancien huissier.*
Pesta-ondo .....**[pest'ondo]**.....*Lendemain de fête (avec fatigue, gueule de bois...)*

Apez-ondo *(Homme ayant été au séminaire jusqu'à revêtir la soutane, mais revenu à la vie civile avant d'avoir été ordonné.)*

Zernahi sagar-ondo landatu zitian aita zenak; mahastia bertzalde: mila ondo bederen [zernahi saarrondo landatu zitian aita zenak; mahastia bezalde: mil'ondo bedeen *App. Notre défunt père planta un grand nombre de pommiers; la vigne en plus: au moins un millier de pieds.*

Ukondo [ukhundo] *Coude.*

ORAINO

Hor zuian, segur nuk; erran bainakon, oraino, goizegi jin zela [hor zuian, seur nuk; erran binankon, oono, goizei jin zela] *App. Il était là, j'en suis sûr, je me rappelle même lui avoir dit qu'il était venu trop tôt.* (EDO **...oraino erran bainankon**...)

Etxea xutik zuian oraino [etxia xutik zuian oono] *(À l'époque) la maison était encore "debout".*

Holakorik oraino < >... [holakooik oono] *Ellipse de* **<behar ginuela ikusi>.** *App. (Il a plu presque tous les jours pendant 4 mois) qu'il nous fallait voir (un été 2002) comme ça...*

Ohakoan zuian oraino... [ohakun zuian oono] *(À l'époque) il était encore au berceau...*

Battitta bularrean nian, oraino [Battitta bulharrin nian, oono] *(À l'époque) j'allaitais encore Battitta.* (Ama zenak, 1975)

Berri duk, oraino [berri-uk, oono] *C'est encore récent.*

Gibela duk, oraino [giela-uk, oono] *Il a encore beaucoup de retard...*

Ez duk oraino sendoa [eztuk oono sendua] *Il n'est pas encore guéri/ il n'a pas encore surmonté l'épreuve (physique/ morale).*
Semea hor zutelarikan, oraino! [semia hor zutelaaik, oono] *Alors que le fils était là... (qu'est-ce que ça aurait été s'il n'avait pas été là?)*

Orainokoan kurritzen dik [oonokun kurritzen dik] *Jusqu'à présent, il fonctionne encore (je ne sais pas si ça va durer, vu l'âge de la machine...)*

ORDE// ORDEAN.....(Euskara batuan : ORDE// ORDEA)

Aspaldiko orde = aspaldiko partez (Beskoitzeko berezitasun bat ?)

Ganixen orde Manex jin duk *À la place de Ganix, c'est Manex qui est venu.*

Behi kurtsa eta gainerateko, biziki ontsa dituk: iraun behar baita ordean!
[behi kurtsa eta gainaatiko, biziki untsa tuk: iraun beha-ita ordin] *App. Courses de vaches et autres (occasions de s'amuser) c'est très bien; mais c'est qu'il faut tenir le coup! (Parce que travailler le jour et faire la fête la nuit...)*

Kurritiera baita, ordean [kurritiera bita, ordin] *App. Mais c'est qu'il est toujours par monts et par vaux (et ça, ce n'est pas bon pour produire un travail sérieux).*

Errota itzulikatzen baita (ordean) [errota itzulikatzen bita (ordin)] *App. Mais c'est que la roue tourne (ce qui était impensable hier devient un jour possible).*

Hura ez baitzen ordean, sekulan bera utzi beharko [hu-ezpitzen ordin, sekula(n) bera utzi beharko] *App. Mais c'est qu'il n'aurait jamais fallu le laisser tout seul.*

Ez dizu balio, ordean, kexatzea hortako! [eztizu balio ordin, kexatzia hortako] *App. Mais ce n'est pas la peine de se fâcher pour ça!*

(On peut faire des comparaisons avec le mot **BAINAN***)*

ORHOIT// ORHOITU .....(Euskara batuan: OROIT// OROITU)

Orhoit nizeno behar daiat eman *Tant que je m'en rappelle, il faut que je te le donne.*

Behien deizteko, orhoit < >! [behien deizteko, orhoit] *Ellipse de* **<hadi>** *Rappelle-toi de traire les vaches! (Recommandation d'une autre époque où les vaches n'avaient pas beaucoup de lait et où on pouvait parfois "sauter" une traite.)*

Nor zen orhoit? *App. Je ne m'en rappelais pas du tout (que tu étais de sortie, de noces, que tu avais un rendez-vous, etc.)*

Hamenik ez diagu jan atzotik [hamenik eztiaau jan atzotik] *App. Depuis hier, nous n'avons pas avalé une seule bouchée (de nourriture).*

Fits bat ez baita etxe huntan [fis bat ezpita etxe huntan] *App. Il n'y a rien dans cette (foutue) maison. (Se dit dans un moment de colère, quand on est contrarié de ne pas trouver ce que l'on aurait voulu trouver.)*
Miko bat .....*Un brin.*
Poxi bat.....*Un petit peu.*
Poxiño bat .....*Un tout petit peu.*
Pozi bat.....*Un morceau assez important.*

Kotsuia .....*Un tout petit peu de quelque chose. // La contagion.*
Doi-doia bizi.....*Vivant avec peine.*
Atxikimendu izpi bat.....*Un tout petit peu d'attachement, de soutien.*

Emak ur xorta bat.....*Mets un petit peu d'eau.*

Emak xorta-xorta bat.....*Mets un tout petit peu (de ce liquide).*
Emak ihiz bat.....*Mets-en(seulement) une goutte (de cet alcool, dans ce café).*

Gutitu .....*Diminuer légèrement (la production de lait, le salaire).*
Ttipitu.....*Diminuer fortement. (Voir ce mot)*
Hurritu .....*Diminution dans l'allure, la démarche.*
Murritz duk .....*Ça manque en quantité, en confort.*

Ez nuk batere laketzen [enuk batee lakhetzen] *Je ne m'y habitue pas du tout.*

Bolda baten buruian .... **[bolda-aten buruian]**.... *Au bout d'un bon moment.*
Boldda baten buruian .. **[boldda-aten buruian]**.. *Au bout d'un bon petit moment.*

("Bustidura" ez da beti 'guti'-arazlea, soinuia lagun)

(Voir également le mot **GUTI** *;* **DEUS(IK)** *;* **FITS(IK)**

"Noiz" adiarazteko

Argi puntan..... ..... *Au lever du jour.*
Goiza..... ..... *Le matin.*
Goizetik .... *Dès le matin.*
Goizalderat ..... **[goizaldeat]**..... *Vers le matin.*
Eguerdi..... **[eguardi]**..... *Midi.*
Eguerdi alderat..... **[eguardi aldeat]** ..... *Vers midi.*
Eguerdi gainean..... **[eguerdi gainin]** ..... *Sur le coup de midi.*
Aratsaldea ..... **[atsaldia]**..... *L'après-midi.*
Aratsalde apalean..... **[atsalde aphalin]**..... *En fin d'après-midi.*
Aratsalde erditan ..... **[atsald'erditan]** ..... *En milieu d'après-midi.*
iluntxean ..... **[ilhuntxin]** ..... *App. À la tombée de la nuit.*
ilun bazterra ..... **[ilhun bazterra]** ..... *App. À la tombée du jour (?)*
iluna ..... **[ilhuna]** ..... *App. La nuit // App. Il fait nuit.*
ilun kukuia ..... **[ilhun kukuia**] ..... *App. La nuit noire.*
Gaua..... ..... *La nuit.*
Gauerdi ..... **[gauherdi]**..... *Minuit.*
Egun ..... **[eun]**..... *Jour. // Aujourd'hui. (Voir* **EGUN** *p. 95)*
Gaur..... ..... *Ce soir.*
Bezpera(n)..... ..... *La veille.*
Bezperagoa(n)..... **[bezperaua(n)]** ..... *L'avant-veille.*
Atzo..... ..... *Hier.*
Barda .... *Hier soir.*
Herenegun ..... **[heeneun]**..... *Avant hier.*
Bihar..... ..... *Demain.*
Biharamuna ..... **[bihaamuna]**..... *Le lendemain.*
Biharamunagoa ..... **[bihaamunaua]** ..... *Le surlendemain.*
Etzi..... ..... *Après demain.*
Etzidamu .... *Un jour après le surlendemain.*

Bihar zortziko *(Supposons que demain c'est jeudi; c'est alors pour le jeudi de la semaine suivante.)*

Egun zortzi ..... **[eun zortzi]** .....*(Litt. Aujourd'hui en huit) Il y a 7 jours.// Dans 7 jours.*
Egun hamabortz . **[eun hamoortz]**....*(Litt. Aujourd'hui en quinze) Il y a 14 jours// Dans 14 jours.*
Egun hogoi ..... **[eun hooi]**.....*(Litt. Aujourd'hui en vingt) Il y a 21 jours// Dans 21 jours.*

Atzo zortzi ....*(Litt. Hier en huit) Hier + 1 semaine.*
Atzo hamabortz .. **[atzo hamoortz]**...*(Litt. Hier en quinze) Hier + 2 semaines.*
Atzo hogoi..... .....*(Litt. Hier en vingt) Hier + 3 semaines.*

To, atzokoa diat [to, atzokua-iat] *App. Tiens (ce n'est pas vieux), je l'ai appris hier.*

Ez bainiz atzo sortuia, ni ere... [ezpiniz atzo sorthuia ni-ee] *Litt. C'est que je ne suis pas né d'hier, moi non plus (j'ai de l'expérience, je sais me défendre...)*

Zortzi-urrena ..... **[zortzi urruna]** ..... *La huitaine (une semaine + 1 jour?)*
Bederatzi-urrena ..... **[beatzi urruna]** ..... *La neuvaine.*

Urtarrilaren lehena ..... **[urtharlaan lehena]** ..... *Le 1er janvier.* **Urtats [urthats].**
Ereiaroaren biga ..... **[eriaruaan bia]**..... *Le 2 juin.*
Agorrilaren hirura ..... **[aorlaan hirua]** ..... *Le 3 août.* (Eta ez [hiruia])
Buruilaren seia ..... **[buulaan seia]**..... *Le 6 septembre.*
Urriaren bederatzia ..... **[urriaan beatzia]**..... *Le 9 octobre.*

Sarridino! ..... **[sarriino]** ..... *À cet après-midi!*
Sarrixago ..... **[sarrixoo]**..... *Un peu plus tard dans l'après-midi.*
Berehaladino! ..... **[behalaaino]** ..... *À tout à l'heure!*
Bihardino! .... *À demain!*
Etzidino! ..... **[etziino]**..... *À après demain!*
Egun horietaraino! ..... **[eun hoitaaino]**..... *À ces jours-ci! (À bientôt!)*

Atzoz geroz ..... **[atzoz geoz]** ..... *Depuis hier (comment ça va) ?*
Atzoz geroztik ..... **[atzoz geoztik]**..... *Depuis hier (il n'arrête pas de souffrir).*
Atzotik igande artio..... **[atzotik iande artio]**..... *D'hier à dimanche (prochain; les fêtes).*

Astelehena .... *Le lundi. // La "gueule de bois".*
Astearta ..... **[asteharta]**..... *Le mardi.*
Asteazkena ..... **[astezkena]** ..... *Le mercredi.*
Ortzeguna ..... **[ortze-una]**..... *Le jeudi.*
Ortziralea ..... **[ortzialia]**..... *Le vendredi.*
Larunbata ..... **[la-unbata]**..... *Le samedi.*
Igandea ..... **[iandia]** ..... *Le dimanche.*

Ageri duk astelehena dukala... [aeri-uk astelehena-ukela] *App. Ça se voit que tu as fait la fête hier/ que tu as veillé, que tu as la gueule de bois.*

Ez duk astelehenik batere ageri... [eztuk astelehenik batee aeri] *App. On ne dirait pas que tu as fait la fête hier...*

Zazpiak hogoita bortz guti ..... *Sept heures moins vingt cinq.*
Zazpiak hogoi guti..... ..... *Sept heures moins vingt.*
Zazpiak laurden guti.... ..... *Sept heures moins le quart.*
Zazpiak bortz guti .... *Sept heures moins cinq.*

Zazpi orenak ..... **[zazpi oonak]**..... *Sept heures.*

Zazpiak eta hogoita bortz..... **[zazpiak eta hoitabortz]***Sept heures vingt cinq.*
Zazpiak eta hogoi .... *Sept heures vingt.*
Zazpiak eta laurden .... *Sept heures et quart.*
Zazpiak eta bortz..... ..... *Sept heures cinq.*
Zazpiak eta erdiak..... **[zazpiak et'erdiak]**..... *Sept heures et demi.*

Zazpiak hamar gutitan hor izanen gituk [zazpiak hamar gutitan hor izaan gituk] *Nous serons là à sept heures moins dix.*

Zazpiak hamar gutitako hor izanen gituk [zazpiak hamar gutitako hor izaan gituk] *Nous serons là pour sept heures moins dix.*

Orenak luze dituk hemen [orenak luze tuk hemen] *Ici les heures sont "longues" (à l'hôpital, par ex.)*

Orenean..... **[orenin]**..... *(10 km) à l'heure (vitesse).*
Oreneko..... ..... *(10 euros) par heure (on le paie).*
Orenka..... ..... *(Il est payé) à l'heure (par opp. à la journée).*

Bi orenetan..... **[bi oontan]**..... *À deux heures.*
Bi orenez..... ..... *En deux heures (tu le feras).*
Bi oreneko bat..... ..... *À peu près deux heures (ça a duré).*

Ehun kilometre orenean egiten ahal ditik [ehun kilometre orenin iten ahal tik] *App. Il peut aller jusqu'à 100 km à l'heure.*

Ehun libera oreneko pagatzen ziteian [ehun lia oreneko paatzen zuteian] *Ils le payaient 100 francs de l'heure.*

Bortz orenak gabe hor zuian [bortzoonak gabe hor zuian] *Il était arrivé avant 5 heures (en avance. Le tueur de cochon par ex.).*

Tenorea dizugu [tenoria-izuu] *(Suivant le ton) C'est l'heure, le moment. // Il est temps de.*

Tenorea, bete-betea [tenoria, bethe-bethia] *App Il est grand temps (que je parte, vu le temps qu'il me faut pour aller jusque là-bas).*

Zer tenore da? ..... **[ze tenor da]** ..... *Quelle heure est-il? (Le matin?)*
Zonbat orenak dire? .... **[zonbat oonak die]** ..... *Quelle heure est-il? (L'après-midi?)*

Hori duka tenorea (jiteko)? [hoi duka tenoria (jiteko)] *App. C'est ça que tu appelles être à l'heure? C'est maintenant que tu arrives? (tu aurais dû être là depuis longtemps).*

Hoinbertze denbora huntan [hobeze denbora huntan] *App. Depuis tant de temps que je l'attends (pour faire un travail particulier et il ne vient toujours pas.)*

Hura beti azken puntan [hua bethi azken puntan] *Lui il arrive toujours au dernier moment (au travail, au rendez-vous...)*

Ez dik luzatuko [eztik luzatuko] *Il ne va pas tarder à arriver (car il est ponctuel.)*

Gu ere heldu baigire, goiz-goiza [guee heldu bigie, goiz-goiza] *Litt. App. Nous aussi, nous venons tôt. Antiphrase, car le ton indique le contraire, c'est-à-dire que nous sommes à la traîne.* (Senperen ere berdin da, ahozkatzea salbu)

Prunta..... ..... *Toujours prompt, à l'heure au travail.*
Goizegi ..... **[goizeei]** ..... *Trop tôt.*
Goiztiar hiz ..... **[goixtiar hiz]**..... *Tu es matinal (aujourd'hui).*
Berant habila ..... **[beant haaila]**..... *App. Où est-ce que tu te balades si tard?*
Beranta, gorria ..... **[beanta, gorria]**..... *App. Énormément en retard.*
Berantegi ..... **[beanteei]**..... *Trop tard.*
Berantior ..... **[beantior]**..... *Retardataire. (Voir* **BERANT***)*
Gaubelea ..... **[gaubelia]**..... *App. Toujours à traîner tard la nuit.*

Orai pollita nuk to! [ore pullita nuk, to] *App. Je suis "mignon" maintenant (que j'ai fait cette bêtise/ que j'ai manqué le bus)...*

Ez duk oraikoa hura ere [eztuk oaikua hu'ee] *App. Il n'est pas d'hier lui non plus. Autrement dit: il commence à être vieux.*

Oixtian ..... **[ostian** EDO **aixtian]**..... *Tout à l'heure (passé).*
Segidan eginen daiat .... **[segidan inen daiat]** ..... *Je vais te le faire tout de suite.*

Heldu nuk segidan! *J'arrive/ je viens tout de suite! (Les Basques traduisent par: J'arrive en suivant!). (Voir le mot* **HELD**U*)*

Minutan egina diat ..... **[minutan ina iat]**..... *App. C'est tout de suite fait.*
Istantean ..... **[ixtantin]**..... *App. Dans un petit moment.*
Istant bat ..... **[ixtan bat]**..... *Un moment.*
Bulta bat ..... **[bolda-at]**..... *Un certain temps (assez long).*
Bulta baten buruian .... **[bolda-aten buruian]**.... *Au bout d'un certain temps (assez long).*

Ordu berean [ordu beein] *Tout de suite / sur le champ.*
Orai berean behar duka? [ore beein beha-uka] *Il te le faut tout de suite?*

Badik istant baten! [ba-ik ixtan baten] *Litt. Il en a pour un moment! Ellipse de:* **<finitu aitzin>/ <idortu artean>,** *etc. (Le ton indique qu'il en a pour longtemps)*

Geroxago ..... **[geoxoo]** ..... *Un peu plus tard. (Voir* **GERO***)*
Sekulan..... ..... *Jamais. (Voir* **SEKULA***)*
Behin ere ..... **[behinee]**..... *Jamais/ pas une fois.*
Betan..... ..... *(Tous) ensemble. // En même temps.*
Bet-betan..... ..... *Tout d'un coup.*
Tanpez... .... *App. Et vlan...*
Pikoz ..... **[pikhoz]**..... *App. D'un seul coup.*
Tupustean ..... **[tupustin]**..... *App. Au premier abord/ subitement.*

(Voir aussi **AIZINA** *;* **DENBORA** *;* **NOIZ** *)*

“GU” eta “GURE” berezi batzu

Nork atxik gu! [nok atxik gu] *App. Qui pourrait nous tenir? Qui pourrait rivaliser avec nous? (Se dit par ironie pour quelqu'un ou pour soi-même lorsque le niveau social monte/ qu'on déborde d'énergie.* "Nork atxik ni" *est impossible. Peut être utilisé sans* **"gu"**.*)*

Mahaiko hobeak gituk laneko baino [mahiko hobik gituk laneko banoo] *Nous sommes plus forts à table qu'au travail. (On le dit pour soi quand on commence à vieillir un peu.)*

Egurra izanen duk bai gu ez baigire izanen [eurra izaan duk bai gu ez bigie izaan] *Il y aura encore du bois (de chauffage) alors que nous, nous ne serons plus là (au diable les économies!) ("que nous ne serons plus là" veut dire: "que je ne serai plus là".)*

Badiagu holako bat ikusirik [badiuk holako-at ikusiik] *App. Nous en avons vu d'autres (ce n'est pas la peine de nous affoler). (En réalité: j'en ai vu d'autres)*

Zahartzen ari gituk, to! [zahartzen aai gituk, to] *Nous sommes en train de vieillir, tiens! (On dit "nous sommes", mais en réalité c'est "je suis" qu'il faut comprendre.)*

Ukanez bizi gituk [ukhanez bizi gituk] *App. Nous vivons en recevant. (La retraite d'une part, les enfants qui nous gâtent d'autre part, par opposition à "gagner sa croûte".)* (Ama zenak beretzat errana 1995)

Eginen diagu erretretan sartzean... arribatzen bagire! [inen diaau erretretan sartziaan... arribatzen bagie] EDO **...erretretarat heltzean.** *App. Nous allons le faire à la retraite; si nous parvenons à vivre jusque là! ("si nous parvenons" = "si je parviens".)*

Beharbada gu lehenago < > baina... [beharba gu lehenoo, bana] *Ellipse de* **<hilen gituk>**. *App. Nous mourrons peut-être avant lui, mais (vu son état physique pitoyable, il ne va pas durer bien longtemps). ("nous mourrons" = "je mourrai" (ou l'un d'entre nous?)*

— Ari zireia karraskan? [a-i ziee karraskan] *Vous travaillez dur? (En taquinant un peu.)*
— Ba, gu < > karraska ttipian... *Ellipse de* **<gure adinean>.** *App. Oh, nous, à notre âge, peu de travail nous suffit. (Il faut comprendre: Oh, à mon âge, peu de travail me suffit!)*

Kurri eta pestan, hori hori gurea! [kurri eta phestan, hoi hoi guria] *Sortir, se promener et faire la fête, nous aimons ça! (Ce sont les adultes qui le disent à l'endroit des jeunes. On peut l'utiliser aussi pour déplorer des passions non-productives (...) par exemple: la pelote, la danse, le jeu de quilles... On dit* **"gurea",** *mais en réalité, il s'agit "d'eux".)*

Ez gituk nornahi, gero! [ez gituk nornahi, gio] *App. Nous ne sommes pas n'importe qui, qu'est-ce que tu crois! (On utilise "nous" alors qu'il s'agit bien "d'eux".)*

Gure ama..... **[gue ama]**..... *Notre mère.// Ma mère.*
Gure aitatxi..... **[gu(e)-aitatxi]** ..... *Notre aitatxi.// Mon grand'père.*
Gure gizona..... **[gue gizona]** ..... *Notre homme.// Mon mari.*
Gure mutikoa..... **[gue muthikua]** ..... *Notre fils.// Le fils de la maison.*

Gure Manex [gue Manex] *Litt. Notre Manex (celui de notre famille ou celui dont on parle avec une certaine affection).*

Gure biziak ez dik fitsik balio, bainan harena ere ez duk izigarria
[gue biziak eztik fitsik balio, bana harrenaree eztuk iziarria] *App. Notre vie (= ma vie) ne vaut rien, mais la sienne n'est pas formidable non plus.*

Zertan gire? [zetan gie] *Litt. Comment allons-nous? App. Comment allez-vous?// App. Comment va le membre de la famille qui est/ était malade?*

"ZUEK" eta "ZUEN" berezi batzu

Zuek zuek bazirezte poxi bat! [ziek ziek, baziizte poxi-at] *App. Vous, vous êtes de drôles d'énergumènes! (Cela peut se dire à un seul des enfants; mais on englobe ici les autres enfants de la famille s'ils se ressemblent:* **Hi eta hire anai-arrebak.)**

Zuek, zernahi badakizue... [ziek, zernahi baakizii] *Litt. Vous autres, qui en savez tant... (Antiphrase et l'intonation indique qu'il faut comprendre le contraire; ça se dit aux jeunes qui croient tout savoir. Il peut se dire à une seule personne et là il faut prendre ce* **ZUEK** *pour quelque chose comme:* **Hik eta hire idurikoek.)**

Zuek aise ibiltzen (≈ erabiltzen) ditutzue jendeak... [ziek aise iiltzen tutzii jendik] *App. (Dans vos projets de fêtes) vous manipulez facilement les gens... (Ce* **ZUEK** *s'utilise même si on parle à une seule personne; dans la remarque faite toute l'équipe organisatrice est englobée:* **Hik eta hire lagunek.)**

Ez baitakizue zer eginen duzuen gure adinerat orduko [ezpitakizii ze ine-uziin gu'adinaat orduko] *Vous ne savez pas ce que vous ferez parvenu à notre âge (ne vous moquez donc pas de notre prudence, notre résignation, notre fatalisme. Peut se dire à une seule personne; il faut donc comprendre:* **"Hik eta hire adinekoek".)**

— **Zer berri da, aspaldiko partez? [ze berri da, aspaldiko partez]** *App. Quoi de neuf, depuis le temps qu'on ne s'est pas vus?* (80 urteko gizonak)
— **Zahartzen hasiak girela! [zahartzen hasiak giela]** *Qu'on a commencé à vieillir!* (55 urteko gizonak)
— **Ez dakizue ez, zuek, zer den zahartzea, oraino! [eztakizii ez, ziek, zer den zahartzia, oono]** *App. Vous ne savez pas non encore, à votre âge, ce que c'est que de vieillir! (= Ce que c'est dur...) (Remarquez ce* **ZUEK** *dans ce tête-à-tête aussi.)*

Zertan duzue ama? [zetan duzii ama] *Comment va votre mère? (Santé). (Cela se dit même en parlant à une seule personne si cette mère est mère de plusieurs enfants; sinon ce serait:* **Zertan duk/dun/ duzu/ duxu ama?)**

Baduzueia berririk? [ba-uzii(ya) berriik] *Avez-vous des nouvelles (de celui qui est au service militaire, par ex.)? (On utilise* **duzue** *même si on est face à une seule personne; à condition, bien sûr, qu'ils soient plusieurs dans la famille.)*

Zuen hura hor izan balitz... [zien hua hor izan balitz] *Si le vôtre avait été là... (le musicien bien connu de votre famille, pour mettre de l'ambiance, par ex. Toujours en tête-à-tête, peut s'utiliser dans bien d'autre cas.)*

Zertan zirezte? [zetan ziizte] *Comment allez-vous (vous autres à la maison)?// Comment va le malade de la maison? (Cette 2ème utilisation est étonnante, mais assez courante.)*

Zertan duzue Oinak-Arin? [zetan duzii Oinak-Arin] *App. Comment va votre groupe folklorique Oinak-Arin? (Question posée par une personne à un danseur du groupe.)*

Zertan duzue Jaun Erretora? [zetan duzii Janartora] *Comment va votre Curé/ M. le Curé? (J'ai entendu qu'il a été malade... Question posée en tête-à-tête)*

— Zuen osagarrian! [zien osaarrian] *App. À la santé des vôtres, de la maisonnée qui m'accueille! (Ceci est possible, même en tête-à-tête). (Réponse suivant le cas)*
— **On dagikala! /On dagizula!/ On dagixula!** *etc.*

Nor duzue buru? [nor duzii buru] *App. Qui avez-vous à la tête de votre association? (question posée à une personne qui en fait partie)*

Plural (edo mugagabe) berezi batzu

(Dans ce chapitre il faut remarquer l'utilisation du pluriel, tout simplement.)

Urtatsak [urthatsak] *Le(s) présent(s) offert(s) aux alentours du nouvel an.*

Pazkoak eginak ditik [Pazkuk ina(k) tik] *App. Il a fait sa dévotion de Pâques (confession et communion).*

Eguberriak eginak ditik [Eguarriak ina(k) tik] *App. Il a fait sa dévotion de Noël (confession et communion).*

Jondoni Martinak gainian ditiagu [Jondoni Martinak gainin tiaau] *La St-Martin est tout proche (il faut labourer pour semer le blé).*

Jondoni Joanitan egunak luzenean dituk [Jondoni Juanetan eunak luzenin tuk] *App. C'est à (période de la) la St Jean, que les journées sont les plus longues.*

Andre Dena Marietan *Aux environs de l'Assomption (les journées raccourcissent).*

Bixintxotan egunak hasten dituk luzatzen [Bixintxotan eunak hasten tuk luzatzen] *À La St-Vincent (le saint patron de Briscous, le 22 Janvier), les jours commencent à s'allonger.*

Ezteietan zuian *App. Il était au mariage, à la noce.*

Lur Sainduietan [Lur Seinduietan] *En Terre Sainte.*

Bidaxuneko feriak *La foire de Bidache.* [feriak] eta ez [feirak]

To, beskoiztarrak hemen [to, bezkoiztarrak hemen] *Litt. Tiens les beskoiztar ici. (Je l'ai dit quand Marcel Larre m'avait rendu visite à Saint-Pée. Après coup je m'étais demandé si j'avais bien fait d'utiliser le pluriel alors qu'il était tout seul. Il semblerait que oui car j'ai eu la confirmation avec un saratar rencontrant un autre saratar dans notre magasin et qui lui a dit:* **To, saratarrak!** *Naturellement, j'aurais pu dire:* **To, beskoiztar bat hemen!** *mais là ç'eut été marquer un grand étonnement plutôt que la surprise simple, ce qui était mon cas.)*

Belarrak eginak ..... **[belharrak inak]** ..... *Les foins (sont) faits.*
Ogiak eginak ..... **[ogiak inak]** ..... *Le(s) blé(s) semé(s).*
Artoak eginak ..... **[arthuk inak]**..... *Le(s) maïs semé(s).*

(Mais) **Harbia egina** ..... **[harbia ina]** ..... *La rave est semée.*

Jaunen jaunak *App. Il y a toujours quelqu'un de plus fort, de plus instruit...*

"Dang"! *(Un coup au clocher du village)*
— **Zer ziren horik?** ..... **[zer zien hoik]** .....*Qu'était-ce? (Quelle heure?)*
— **Hamarrak eta erdiak** ... **[hamarrak et'erdiak]** ....*Dix heures et demie.*

Galtzak *Le pantalon.*

Galtza pare bat xuritu *Laver un pantalon.*

Orga pare berria *Une charrette neuve.*

Ahaideak [ahidik] *(Les gens de) la parenté.*

Fama txarrak ditik [fama txarra(k) tik] *App. Il a mauvaise réputation.*

Atorra berriak eta denak [athorra berriak eta denak] *Litt. Chemise neuve et tout et tout! (tu as mis le paquet, tu n'as pas lésiné sur les moyens).* (**...eta denak** *peut s'utiliser dans bien des cas...)*

Izendatzeko molde batzu

Agorret ikusi diat [Aorret ikusi-iat] *App. J'ai vu/ rencontré l'homme de la maison Agorreta; peu importe qu'il soit propriétaire ou fermier (1).*

(De la même façon on dira).....*(de la maison)*

(Ikusi diat) **Arbeldegi** .....**[Arbaldeei]**.....**(Arbeldegia)**
Barrandegi.....**[Barrandeei]** .....**(Barrandegia)**
Ertoran.....**[Ertoan/ Erttoan]**.....**(Ertorarenea)** (2)
Garro..... .....**(Garroa)**
Haraneder.....**[Haaneer]**.....**(Haranederrea)**
Harriet ....**(Harrieta)**
Hegi ....**(Hegia)**
Larrist .....**[Larrixt]**.....**(Larrista)**
Mendibil.....**[Mendiil]** .....**(Mendibilea)**
Mulo .....**[Mulho]** .....**(Muloa)**
Uhagon .....**[Uhaaun]**.....**(Uhagonea)**
Uzpuru ....**(Uzpuruia)**

Agerrekoborda.....**[Aerrekoborda]** .....**(Agerrekoborda)**
Harrietakoborda.....**[Harritakoborda]**.....**(Harrietakoborda)**
Larristakoborda.....**[Larrixtakoborda]** .....**(Larristakoborda)**
Mentakoborda..... .....**(Mentakoborda)**
Mentaberrikoborda .....**[Mentaarrikoborda]** .....**(Mentaberrikoborda)**
Oihartzabalekoborda .....**[Oihartzaalekoborda]**...**(Oihartzabalekeborda)**

(Mais) **Ñoble** ....(**Ñoblerenea)**
Xuxu ....(**Xuxutegia)**
Xurto ....(**Xurtotegia)**

(Peut-être qu'avec des mots très longs comme **Hargindegiberria** *par ex., le système pourrait souffrir quelques hésitations...)*

(1) Pour une femme on dira plutôt: **Agorretako etxeko anderea ikusi diat [Aorretako etxek'anderia ikusi-iat]** *App. J'ai vu la "patronne" d'Agorreta.*

(2) **"Erttoan"** beskoiztar giletari famatuia.

GIZONA! .....*(Voir également le mot* **GIZON***)*

Gizona, indarrak juanak ditu horrek! *App. Homme, ne voyez-vous pas qu'il n'a plus toutes ses forces (sur/naturelles) celui-là!* (Aitatxi zenak.) *(Voir le mot* **JOAN***)*

MUTIKOA! .....*(Voir également le mot* **MUTIKO***)*

Kasu emak, mutikoa, hilen hu horrek! [kasumak, muthikua, hilen hu horrek] *Fais attention, mon gars, il (ce taurillon) va te tuer!* (Erramun Mouesca zenak gure aita zenari.)

(NESKA! *et* **EMAZTEKIA!** *sont un peu plus rares; il faut voir l'intonation.)*

BARRABAS ! *App. Maladroit, gauche (tu casses tout)!*

SAN TOMAS ! *App. Incrédule (tu ne veux rien croire de ce que je te dis)!*
(Voir également: **Mandahero/ Kalixtro/ Eskapitxota/ Kinkanputz/ Galtza-pot...***)*

Elheari arrapostu

— Johan dee? *App. Ça va? (Théoriquement:* **Johan deia?** *Litt.. Cela va-t-il?)*
— Bai, eta hor? *Litt. Oui, et là?/ Oui et vous-même?*

==========

— Johan dee? *App. Ça va? (Théoriquement:* **Johan deia?** *Litt.. Cela va-t-il?)*
— Ba, joanarazten [ba, juanaazten] *Oui, on fait aller... (ça ne va pas si fort que ça.)*

==========

— Johan dee? *App. Ça va? (Théoriquement:* **Johan deia?** *Litt. Cela va-t-il?)*
— Ez hor bezain ontsa, ez [ez hor bezin untsa, ez] *Pas aussi bien que là (que toi/ que vous. Cette réponse se fait généralement envers des plus jeunes qui sont sensés êtres plus en forme que les anciens ou quand on observe que la personne est en pleine forme, ou même quand on veut taquiner et savoir si elle est vraiment en forme.)*

==========

— Johan dee? *App. Ça va? (Théoriquement:* **Johan deia?** *Litt. Cela va-t-il?)*
— Ez soberarik, ez [etsoberaaik, ez] *Pas trop, non.*
(Suivant l'intonation, cette réponse peut être motivée par des problèmes personnels de santé, qu'il est prêt à donner, ou par un problème quelconque qu'il veut faire savoir.)

==========

— Johan dee nahi bezala? *App. (Le travail) ça avance comme on veut?*
— Ez nahi bezala ez: ahal den bezala! *App. Oh, ce n'est pas comme on veut: c'est comme on peut!*

==========

— Johan dee nahi bezala? *App. (Le travail) ça avance comme on veut?*
— Ba, zerbait; ez duk nahi den bezala [ba, zeeit; eztuk nahi den bezala] *App. Bah! on fait quelque chose; on ne fait pas ce qu'on veut (pour mille raisons).*

==========

— Zer diok? *Que racontes-tu? /* **Zer diozu?** *Que racontez-vous?*
— Ba, deusik/ deus arradorik [ba, deusik/ deus arradooik] *==========Oh, rien/ rien de spécial...*

==========
(À plusieurs personnes)
— Zer diozue? [zer dioziite] *Que racontez-vous?*
— Ba, deusik/ deus arradorik [ba, deusik/ deus arradooik] *Oh, rien/ rien de spécial...*

==========

==========

— **Azkarrean?** ..... **[azkarrin]** ..... *En forme? (Mot-question toujours taquin.)*
— **Ba, hoberenean** .. **[baa, hobeenin]** ..... *App. Oui, je n'ai jamais été mieux... (Réponse donnée par dérision, à partir d'un certain âge.)*

==========

— **Zertan gire, azkarrean?** .....**[zetan gie, azkarrin]**.....*App. En forme?*
— **Ba, (orai) hoberenerat ari**.....**[ba, (ore) hobeeneat ari]**....*App. Oh, on va vers la meilleure période (de notre vie... Ce dialogue se passe entre deux personnes d'âge ou de santé très différents. La question est légèrement taquine avec le mot* **"azkarrean"** *et la réponse se veut ironique mais elle n'est pas méchante.)*

==========

— **Ontsa < >?** **[untsa]** *Ellipse de* **<zireia ama>** *Ça va (maman)?*
— **Ba, johan duk**... **[ba, joha-uk]**.....*App. Ça va, ça peut aller (il ne faut pas trop demander).*

==========

— **Ez duk biziki ontsa egina [eztuk bizik'unts'ina]** *Ce n'est pas bien beau ce que tu as fait là.*
— **Ahal den bezala, to!** *App. J'ai fait ce que j'ai pu, tiens! (J'ai fait de mon mieux.)*

==========

— **Zer lan pollita!** ... **[ze lan pullita]** ..... *Quel joli travail, bravo!*
— **Ba, zerbait...** ..... **[ba, zeeit]** ..... *Bah! quelque chose. (Par modestie)*

==========

— **Zer lan pollita!** ..... **[ze lan pullita]** *Quel joli travail, bravo!*
— **Ba, zerbait; ez duk nahi den bezala**..... **[ba, zeeit; eztuk nahi den bezala]** *App. Bah! quelque chose; on ne fait pas ce qu'on veut (pour mille raisons).*

==========

— **Arredailak eginak?** ..... **[ardailak inak]**.....*Avez-vous fait les regains?*
— **Aurten ez egitekotan...** **[aurthen ez itekotan]**.....*App. Si cette année ils ne sont pas faits (ils ne le seront jamais, vu le beau temps qu'on a eu en cette fin d'été).*

==========

— **Milesker! [mertzi (biziki)]** *Merci beaucoup (pour ton aide, ton coup de main)!*
— **Deusetaz!** *De rien!*

— **Milesker ! [mertzi (biziki)]** *Merci beaucoup (pour ton aide, ton coup de main)!*
— **Ez duk zeren! [eztuk zen]** *Il n'y a pas de quoi (on vous devait bien ça.)*

==========

==========

— Nahi duka mila libera pariatu? [nahuka mila lia pariatu] *Veux-tu parier mille francs?*
— To, eginak dituk! [to, ina-tuk] *App. C'est fait! (d'accord, tope-là!)*

==========

(À midi) **— Egin zazue bazkari! [izazii bazkari]** *App. Bon appétit!* **(≈ Egizue bazkari!**
— Gisa bera! *Litt. et app. Pareillement! (Il n'y a pas de "Merci")*

(Le soir) **— Egin zazue afari! [izazii afari] (≈ Egizue afari!)**

==========
(Après avoir discuté d'un projet ensemble)

— Johan nuk. Ez adiorik! .....**[johan nuk. Ez adiooik]** .....*Je m'en vais. Au revoir!*
— Bai, erran bezala! ....*Oui, comme convenu!*

==========
(Quand on va se revoir prochainement)

— Johan nuk. Ez adiorik! .....**[johan nuk. Ez adiooik]** .....*Je m'en vais. Au revoir!*
— Bai, egun horietaraino! .....**[bai, eunhoitaaino]** .....*Oui, à ces jours-ci!*

==========
(Quand on arrive dans une maison où les habitants sont en train de manger)

— Egun on!/ Gau on! Badeia apetitu? [Eun on!/ Gauhon! Badee apetitu]
— Ba, mahaineko hobeak gituk laneko baino! [ba, mahiko hobik gituk laneko banoo]

— Bonjour! ou Bonsoir (suivant le cas)! App. Avez-vous bon appétit?
— Bah, nous sommes meilleurs à table qu'au boulot! (Se dit plutôt quand on est bon travailleur.)

==========

(Au jeu de mus) **— Paso... — Bi tantoz inbido ! — Iguriki ! [iuki].**

==========

— Arrangura huena? .. **[arrangura hiina]**..... *Avais-tu quelque soucis/ inquiétude?*
— Ez, ondorik ere... .... **[ez, ondooikee]** ..... *Non, pas du tout...*

==========

— Erraiten dizu ez duela denborarik bilkuretan ibiltzeko... [erten dizu eztiila denboraaik bilkhuretan iiltzeko] *Il (m'a) dit qu'il n'a pas le temps d'aller aux réunions...*
— Hiltzeko denborarik ukanen dueia? [hiltzeko denboraaik ukhaan dii] *Aura-t-il le temps de mourir? (Se dit à propos de ceux pour qui il n'y a que le travail qui compte.)*

==========

==========

— Tenore huntan harat abiatuko zireztela, ez balinba! [tenore huntan haat abiatuko ziiztela, ez balinba] *App. À cette heure (tardive) vous n'allez pas partir là-bas, j'espère!*
— Beharko! *App. Il va bien falloir! (Nous n'avons pas le choix.)*

==========

— Nahi ditutzuia bi billet? [nahi tutzii(ya) bi billet] *Voulez-vous deux billets? (Loterie)*
— To, nahi baduk egia aditu, ez diat pilik sakelan... [to, nahi ba-uk egia a-itu, eztiat pilik sakelan] *App. Si tu veux savoir, je n'ai pas un "rond" sur moi.*

==========

— Zer gormanta! [ze gormanta] *Quel gourmand!*
— Baduk zerbait erraiteko! [ba-uk zeeit erteko]*Tu as quelque chose à dire (tu l'es autant que moi)!*

==========
(Quand on est en train de lire le journal et pour taquiner un peu)

— Berri onak? *Les nouvelles sont bonnes?*
— Ba, baduk hemen denetarik... [ba, ba-uk hemen denetaaik] *Oh, il y a de tout ici...*

==========

(Supposons qu'Agorret est un enquiquineur)
— Agorretarat galdea duk artho biltzerat... [Aorretaat galdia-uk artho biltzeat] *On te demande à Agorreta pour aider à ramasser le maïs...*
— Bai, kaka zaharra, badizut presatuiagokorik [bai, kaka zaharra, ba-izut presatuiookooik] *App. Oui, la merde/ mon œil, j'ai plus pressé (à faire).*

==========

— Amatxi hil zaukuzu [amatxi hil zaukuzu] *(Notre) grand-mère vient de mourir.*
— To, hola-hola pentsatzen nian... *J'avais deviné (en te voyant ici, à cette heure-ci).*

==========

— Suia piztuia... *Le feu est allumé... (quelle chance, c'est bien.)*
— Ez diat egin zaharra [eztiat in zaharra] *Il n'y a pas longtemps que je l'ai allumé.*

(On peut aussi répondre: **Egin berria diat [in berria diat])**

==========

— Giristino zare? — Bai, baditut hamar zare... *Litt. Êtes-vous chrétien? Oui, j'ai dix paniers... (Les enfants s'amusaient à ce jeu de mots, tiré de "question-réponse" de l'ancien catéchisme; celui-ci était écrit en labourdin et pour nous "***zare***" veut dire "panier". Remarquez aussi la prononciation sans contraction.)*

==========

==========

— **Autoa hartzen duguia? [otua hartzen duuia]** *Allons-nous prendre la voiture?*
— **Bai, zera: hemendik horrat** < > *Ellipse de* <**joaiteko**> *Tu parles, pour aller d'ici à là...*

==========
*(C'était l'été 1947; je n'avais que 4 ans et demi et je me trouvais en haut d'*Urtubia*, lorsque Charlotte Duguine-Lafourcade qui passait par là me demande)*

— **Zonbat urte ditutxu? [zonbat urte tutxu]** *App. Quel âge as-tu?*
— **Ba, goitirik, hamar bat! [ba, goitiik, hamar bat]** *Depuis le temps (que je suis né), au moins une dizaine! (J'ai voulu paraître plus âgé pour ne pas qu'elle me réprimande de me promener tout seul, bien que j'allais vers mes parents qui travaillaient justement à* Urtubia*. Ce qui est amusant, c'est qu'un enfant de 4 ans (du voisinage de St-Pée) et pour la même raison que moi a dit exactement la même chose dans notre magasin en achetant une arme en plastique (en l'an 2000, je crois); étonnant, non?)*

==========

— (Erosleak) ..... **Fizela paketa bat, odolgientzat!** *(Je voudrais) de la ficelle pour les boudins!*
— (Zerbitzariak)... **Hau, hala.** *App. De celle-ci donc. (Ici,* **hala ≈ beraz)**

— (Zerbitzariak)... **Karioa baita: hola? [kariua bita, hola]** *App. Comme c'est très cher, combien j'en mets, comme ceci? (avec geste à l'appui)*
— (Erosleak) ..... **Bai, hola, hala.** *App. Comme ça, alors. (Ici,* **hala ≈ beraz)**

==========

(Auzoko bi neska ttipi (5 eta 6 urte?) heldu dire gure etxerat, 1950 inguruian; osabak ekartzen ditu orgetan: haurrak beti prest baitire norapait joaiteko... Heien izenak baginazkien ontsaxko bainan usaia den bezala, gure etxeko zonbaitek galdatu zakoten:)

— **Nola duzue izena? [nola-uzii izena]** *Comment vous appelez-vous?*
— **Mayik Mayi eta nik Martta.** *App. Marie s'appelle Marie et moi Marthe.*

==========

— **Zer? [zee]** *App. Quoi?*
— **Zee, zee... "mantzut" erran behar dik! [zee, zee... "mantzut" erran beha-ik]** *App. Quoi, quoi... c'est "comment ?" qu'il faut dire!*

(**"mantzut"** hori **"entzun"** aditzaren forma trinko bat da: "dantzut" ≈ "entzuten dut". "Bentzu" inperatiboko forma da eta hortarik gero azkenik "mantzut"; "b" "m" bilakatzen baita frangotan. Ikus HASIAN-HASI "Lehena"**,** 28. orrialdean)

==========

==========

— Nun debru emana duzu tresna hura? [nun debru emana-uzu tresna hua] *Où diable avez-vous mis cet engin/ appareil?*
— Ez diat jana, ez... [eztiat jana, ez] *(Je ne sais pas mais) je ne l'ai pas mangé...*

==========

— Erakutsadak hori ... **[iakutsaatak hoi]**. *Montre-moi ça... (Cet objet)*
— Ez duk ukanen ..... **[eztuk ukhaan]**.... *Je ne te le donnerai pas!*
— Ez daiat janen, ez .... **[eztaiat jaan, ez]**.. *Je ne vais pas te le "manger" (= je vais te le rendre.)*

==========

— Zer ikasi-duk? [ze ikasi-uk] *Qu'as-tu appris? (au cours de ce repas, de cette rencontre.)*
— Ez gauza handirik [ez gauza handiik] *Pas grand chose.*

==========

— Ez duela ahantzi hunek... [eztiila ahantzi hunek] *Il n'a pas oublié celui-ci (c'est gentil)...*
— Ez behar ere! [ez beharree] *App. Il ne fallait pas, il n'était pas question que j'oublie.*

==========

— Zer egiten dugu hau: aurdikitzen? [ze-iten duu hau: aurdiitzen] *Que faisons-nous de ça (cette nourriture douteuse), on le jette?*
— Bai, hoberena (naski) [bai, hobee(ne)na (naski)] *App. Oui, c'est ce qui à de mieux à faire.* (Senperen ere berdin da ahozkatzea salbu)

==========
(Anaiak anaia lanerat manatzean)

— (Lan) hori egin behar duk [(lan) hoi in behauk] *Il faut que tu fasses ce travail...*
— Bai, nahi badut [bai, nahi ba-ut] *App. Oui, si j'ai envie! (Je ne suis pas ton domestique!)*

==========

— Salduko diat... [salduko-iat] *Je vais le vendre...*
— Egiten ahal duk, bistatik! [iten ahal duk, bistatik] *Tu (le) peux; il est temps qu'il disparaisse!*

==========

— Kukusoa jeikia duxu... [kukusua jeikia-uxu] *(Litt. la puce s'est levée) Le rejeton s'est levé.*
— A bon...
—Telebixta martxan duxu, beti *App. La télé est allumée (ça ne peut être que lui).*

==========

==========

— (Semeak) **Aitari galda zazu eian bakantzak ez dituen hartu nahi... [aitaai galda zazu eian bakhantzak eztitiin hartu nahi]** *Demandez (*) à papa s'il ne veut pas prendre quelques jours de vacances...*
— (Amak) **Bai, hatzemana < >!** *Ellipse de* **<gisa>.** *App. Oui, t'as trouvé! (Il ne risque pas d'être d'accord.)* (Erdal itzulpena Xarles Bidegainek bilduia Baionan.)

(*) En basque, il est impossible de tutoyer ses parents (sauf dans de rares villages) et de ce fait, lorsqu'on leur parle français, on les vouvoie souvent.)

==========

— Hiltzen baniz? *Si je meurs (en tombant d'ici par ex.)?*
— *(Des rires...)*
— Irri egiteko duk, abantzu! [irriteko-uk, aantzu] *App. Il n'y a pas de quoi rire (car il y a vraiment danger)!*

==========

— Ez hadila nitaz trufa! [ehitela nitaz trufa]..... *Ne te moque pas de moi!*
— Ez nuk egiten... ..... **[enuk iten]** ..... *Je ne me moque pas...*
— Ez, gabe! .... *App.Tu parles! (tu te gênes; je te connais.)*

==========

— Zer huen irri egiteko? .....**[zer hiin irriteko]** *Qu'est-ce tu avais à rire? (en douce...)*
— Deusik; ez nian irri egiten .[deusik; enian irriten] *Rien, je ne riais pas...*
— Humm, ez dakiat... .....**[humm, eztakiat]** *App. Je ne sais pas; je ne te crois pas.*

==========

— Nahi duzu xokoleta, dutearen plazan? [nahuzu xokoleta dutiaan plazan] *Voulez-vous du chocolat plutôt que du thé? (Voici deux réponses possibles)*
— (Bai,) bardin..... *App. Oui, si tu veux, pourquoi pas?*
— Bai, berdin! ..... *App. Oui, tu parles! (il ne faut pas se compliquer pour moi.)*

==========

— **Aita zena hor izan balitz** ....*Si (le/ son/ mon) défunt père avait été là...*
— **Bai, egia...** .....*Oui, c'est vrai (mais malheureusement, il n'est plus là)...*

==========

— (Aitak) .....**Erna hadi, mutikoa, lan horren egiterat... [erna hadi, muthikua, lan horren iteat]** ..... *Dépêche-toi de faire ce travail!*
— (Semeak).....**Ari nuzu... [a-i nuzu]** ..... *Je m'active...*
— (Aitak) .....**Bai, lodi !** ..... *(Sceptique) App. Oui, tu parles!*

==========

==========

(En se quittant) — **Izan ontsa! [izan untsa]** .... *App. Bonne santé!*
— **(Bai) gisa bera!**..... *App. Oui, pareillement, de même!*

==========

— (Semeak)..... **Egun gazteen pesta duzu... [eun, gazten pesta-uzu]** *Aujourd'hui, c'est la fête des jeunes...*
— (Aitak) ..... **To, nor zen orhoit...** *App. Alors là, je ne m'en rappelais pas du tout...*

==========

— (Aitak) ..... **Habil behien xekha! [hail behien xekha]** *Va chercher les vaches!*
— (Semeak)..... **Uria ari duzu [uria ari-uzu**] edo **Uria ari dizu [uria ariizu]** *Il pleut...*
— (Aitak) ..... **Ez hiz urtuko ez! [ehiz urthuko ez]** *Tu ne vas pas fondre (comme le sucre)!*

==========

— (Semeak)..... **Behi kurtsetarat itzuli bat egin... [behi kurtsetaat itzuli-at in]** *Faire un tour aux courses de vaches (d'Hasparren)...*
— (Aitak) ..... **To, hiretzat... [to, hietzat]** *Je te le laisse... (Après avoir travaillé toute la journée, le père indique ainsi qu'il préfère aller se reposer et qu'il n'est pas jaloux du tout.)*

==========

— (Aitak) ..... **Ekar atzik! [ekhar-atzik]** *Apporte-les!*
— (Semeak)..... **Zeee < >?** *Ellipse de* **<behar dut ekarri>**. *Que dois-je (ap)porter?*
— (Aitak) ..... **Ekartzeko! [ekhartzeko]** *App. Apporte-les! (Tu sais très bien de quoi je parle.)*

==========

— **Zonbat haur ditutzu? [zonbat haur tutzu]** *Combien d'enfants avez-vous?*
— **Ba, ez biziki ez: hiruño! [ba, ez biziki ez, hiruño]** *Bah, pas beaucoup: trois seulement!* Janbattitt Sabarots koinat zenak bilduia1987*)*

==========

— **Zer du Manexek?** *Litt. Qu'est-ce qu'il a Manex? App. De quoi souffre Manex?*
— **Deus onik (ez)!** *Rien de bon! (C'est à dire qu'il est atteint d'une maladie très grave, incurable.)*

==========

— **Heldu hiza?** ..... **[heldu-iza]** ..... *Tu arrives?*
— **Baaai...**..... ..... *Ouais...*
— **Ez nuk hiri ari!** ... **[enuk hiri ari]**..... *Ce n'est pas à toi que je m'adresse!*

==========

==========

— **Beharbada, joan behar nikek harat [beharba, juan behar nikek harat]** *Il faudrait, peut-être bien, que j'aille là-bas (le voir...)*
— Beharbadarik gabe, joan behar duk [beharbaaik gabe, juan beha-uk] *App. Il n'y a pas de "peut-être", il faut que tu y ailles...*

==========

— Adiskide dituk..... **[aixkide tuk]**..... *Ils sont très amis...*
— Ba, axaletik........ ..... *Oui, en apparence (superficiellement)...*

==========

— **Atxung!** *(Éternuement)*
— Ehun urtez! *App. Que ça te dure 100 ans! (En français on dirait: À tes/ vos souhaits!)*
— Bai, egunean oilaxko bat janez eta urtean haur bat eginez! [bai, eunin oilasko bat janez eta urthin haur bat inez] *Oui en mangeant un poulet par jour et en faisant un enfant par an...* (Beronika Hirigoyen Leizarretxekoak errana 1990.)

==========

— Eeeeeh, zera... *(Quand on n'arrive pas à trouver le mot...)*
— Bai, antzararen hera! [bai, antzeraan hera].. *Oui, le gésier de l'oie! (Jeu de mots rimé. Se dit pour taquiner quelqu'un qui tarde à trouver le mot qu'il cherche.)*

==========

— Xu, ni baino biziki gazteago xire... [xu, ni banoo biziki gaztioo xie] *Toi, tu es beaucoup plus que jeune que moi...*
— Zoratuia xireia? urte bat nuxu xu baino gazteago! [zoatuia xiee? urthe-at nuxu xu banoo gaztioo] *App. Tu es folle ou quoi: je n'ai qu'un an de moins que toi! (Propos apparemment durs mais que l'intonation rend tout à fait amicaux entre femmes qui se connaissent et qui plaisantent.)*

==========

— **"Dang"!** *(Un coup au clocher du village...)*
— Zer ziren horik? [zer zien hoik] *App. Qu'est-ce que c'était?* (eta ez [zer zen hoi])
— Hamarrak eta erdiak [hamarrak et'erdiak] *Dix heures et demie.*

==========

— Bizi zireztea? [bizi ziiztia] *Êtes-vous vivants? (Se dit en arrivant dans une maison où on ne voit personne mais où on entend quelqu'un travailler.)*
— Hiltzailea igorria huen ala zer? [hiltzalia iorria hiin alaze] *Tu avais envoyé un tueur ou quoi? (La réponse se veut cinglante mais en réalité on plaisante, c'est tout. Il est évident qu'il faut être en d'excellents termes pour tenir des propos de ce genre.)*

==========

==========

— Zertako? [zetako] *Pourquoi (tu as fait/ dit/ prit...)?*
— Hartako! *App. Parce que! (Je n'ai pas de compte à te rendre; réponse cinglante à cause de la rime)*

==========

— Mixel, emak hori bere lekhuian! [Mixel, emak hoi bee lekhuian]
— (Mixel ttipia da eta ez du segidan obeditzen. Amak berriz mintzoa goratuz:)
— Zer erran du amak? [ze erran du amak] (Senperen ere berdin da)

— Michel, mets ça à sa place (s'il te plaît)!
— (Mixel, qui est encore petit, n'obéit pas tout de suite. La mère reprend fermement)
— Litt. Qu'a dit maman? App. Qu'est-ce que je viens de dire?

==========

— (Arrebak) .... **To, galtxa-pot!** ..... *(Taquinerie pas vraiment méchante)*
— (Anaiak)..... **Bai eta xu, zaia-pot!** ..... *(Réponse du berger à la bergère)*

==========

— Haritz hori enea duk! [haitz hoi enia-uk] *Ce chêne-là m'appartient!*
— Noiztik? *Depuis quand? (On conteste l'affirmation.)*
— Egundainotik! [eundanotik] *Depuis toujours! (En somme ils ne sont pas près de se mettre d'accord. Mais* **Noiztik?,** *avec une intonation différente, peut être utilisé pour contester amicalement une affirmation dans le cadre d'une discussion entre jeunes qui bêtisent.)*

==========

— Edan zak xorta bat.. .... **[eazak xorta-at]** ..... *Bois un coup... (et il accepte)*
— Hire osagarrian! ..... **[hi'osagarrian]** ..... *À ta santé!*
— On dagikala! ..... **[on daaikela]** ..... *(Grand) bien te fasse!*

— Edan zazu xorta bat... .. **[eazazu xorta-at]**..... *Buvez un coup...(et il accepte)*
— Zure osagarrian!..... **[zu'osagarrian]** ..... *À votre santé!*
— On dagizula! ..... **[on daaitzula]** ..... *(Grand) bien vous fasse!*

(**On dagikala!** ≈ On egin dezala hiri //// **On dagizula!** ≈ On egin dezala zuri)

==========
(Gure aitatxi zenaren (ama zenaren aita) erranaldi batzu)

— Gure aldia < > jina duk; baina zuena ere jinen duk [gu-aldia jina-uk; bena zienaree jie-uk] *Ellipse de* **<hiltzeko>** *C'est notre tour de mourir, mais le vôtre viendra aussi.*
(À l'époque, on trouvait cela très bête; mais depuis...) (Remarquez le **[bena]** *d'aitatxi.)*

— Ontsatuz geroz, gizonak, hiltzeko mementoa hurbilduia dik [untsatuz geoz, gizonak, hiltzeko mementua hurbilduia-ik] *App. Quand l'homme atteint un peu de bien-être social, il est proche de la mort.*

(Bidaxuneko ferietan tira-birak gertatu direla dio kazetak)

— Ikusi duzuia zer gertatu den atzoko ferietan? [ikusi-uziya ze gerthatu den atzoko ferietan] *Vous avez vu (dans le journal) ce qui s'est passé hier à la foire (de Bidache)?*
— Ba horrek emanak hartzen ditik [ba horrek emanak hartzen-tik] *Litt. Celui-là (le journal) prend ce qu'on lui donne. Autrement dit: entre la réalité et ce qui est écrit, il peut y avoir une marge...*

(Auzoko etxekoandere bat jin zen gure aitatxi zenaren ikusterat. Aitatxik ordukotz 88 urte zituen eta dena erreumatisma eta ezindura)

— (Auzoak) .... **Gaixoa!** ..... **[gaaixua]** ..... *Le pauvre!*
— (Aitatxik) ... **Bai, miserablea!** .. **[bai, misaablia]** .... *Intraduisible. App. Oui, tu parles! (je n'aime pas beaucoup qu'on me plaigne et je ne suis même pas sûr que tu sois sincère!)*

(Bertze auzo bat ere jin zen gure aitatxiren ikusterat)

— (Auzoak) ..... **Azkar zire oraino... [azkar tzie, oono]** *Vous êtes encore solide...*
— (Aitatxik) ... **Bai, nehork ezin atxikia!** [**bai nehok ezin atxikia]** *Oui, intenable! (ne me raconte pas de boniments, je sais à peu près où j'en suis.)*

==========

(Ene aitatxi bat, Beñat Olhatz, "okerra" deitzen zuten eta koblaria ere zela errana dugu HASIAN-HASI "Lehena"n. Behin ostatuian lagun batekin, hau erran zuten elgarri)

— Emaztea sorgina dutala erraiten dautaie... [emaztia sorgina-utela erten dauteie(k)] *Les gens disent que ma femme est une sorcière...*
— To, hi hartzean ez zuian hala... [to, hi hartziaan etzuian hala] *App. Tiens, quand elle t'a épousé elle ne l'était pas... (Car, parmi les différents pouvoirs d'une sorcière, il y a celui d'être devineresse...)*

==========
(Gure ama zenari, apezak)

— (Amak) ..... **Familia handia baitut...** *App. J'ai sept enfants (et je fais ce que je peux).*
— (Apezak) ..... **Jainkoak eman dauzkitzu: baitzakien zurekin ontsa izanen zirela.** *App. C'est Dieu qui vous les a donnés parce qu'Il savait qu'ils seraient bien avec vous.*

==========

(Amatxi Apeztegiko zena (Mañeñe Duhau) eta ttanta Akizekoa bi ahizpak Lurderat ari treinez. Haur batzu ere heiekin euskaldun eta erdaldun, denetarik. Haurrak hasten dire libertitzen, sekulako harrabotsetan. Eta amatxi Apeztegikoak, ezin soporta, kexaturik:)

— Zaudezte geldirik, haur ozpinak! [zauzte geldiik, haur ozpinak] *App. Restez tranquilles, garnements!*

(Baiones neska biziki ontsa ikasi bat, johan zako umil-umila erraiterat:)
— *Pardon, Madame, je ne comprends pas le basque...*
— Aski dun ikastea, nahi badun! [aski-un ikastia nahi ba-un] *App. Tu n'as qu'à l'apprendre, si tu veux, (espèce de tracassière)!*
==========

==========
(Aspaldi zenduia den auzoko emazte xahar batek errana eta arreba Alberte-k bilduia)

— Lunetak erosten ditinat *"Chez Caméléon"* [lunetak eosten tinat *Chez Caméléon*] *J'achète mes lunettes "Chez Caméléon"...*
— Ez, amatxi: "Chez Camelin!" *App. Non, amatxi: il faut dire: "Chez Camelin"...*
— Hik erranen dun ontsa, ene adinean... [hik erraan dun untsa, ene adinin] *App. C'est toi qui va prononcer comme il faut, à mon âge...*

==========
(Mutiko gazteen beila Lurderat prestatzen ari. Gazte batek bere lagunari)

— Ez hiza heldu Lurderat? [ehiza heldu Lurdeat] *App. Tu ne viens pas à Lourdes?*
— Zertarat jin behar diat: ez deia Ama Birjina bera hemen ere? [zetaat jin beha-iat: eztee Ama Birsina bera hemen-ee] *App. Pourquoi viendrais-je: n'est-ce pas la même Vierge ici aussi?*

==========
Sauveur Duhau zenak errana 1953an.

Baionan, *"Caserne de la Nive"* berriki desegina izana den hortan, soldado zen. Eta behin batez *"Police Militaire"* delakoak hatzeman zuen hirian lagunekin ostatuan goraxko mintzo edo holako zerbait. Aitzindariak jauki zuen, bertzeak bertze erranez: *"...et de plus vous parlez patois!" Sa*uveur-ek ihardesten dako fermutasun ikaragarri batekin: ***"Je ne parle pas patois, je parle NOTRE langue!"*** Gertakari hunek kazerna guziko itzulia egin omen zuen...

Istorio hunen kondatzerat bera jin zaut Jean-Pierre Olaizola Senpereko adiskide bat. Elgarrekin ziren biak soldado. Sauveur-en ausartziak harritu zituen bazterrak! Milesker Jean-Pierre, holako ixtorio ederra jakinarazirik; orai herriak ere jakinen du.

==========
(Errankizun/ Elhe zahar *Dicton/ Légende*. Medikuiak harginari:)

— Harginaren hutsak morteroak estaltzen ditik [harginaan hutsak morteruk estaltzen tik] *Les maladresses du maçon (pour aligner les pierres ou les parpaings) sont recouvertes par le mortier (qui camoufle tout)...*
— Eta medikuarenak, lurrak! [eta miikuiaanak, lurrak] *App. Et les fautes du médecin (sont recouvertes) par la terre! (Réponse cinglante du maçon.)*
==========
(Zapatainean/ Chez le cordonnier)

— Eginak dituzka ene zapetak?..**[inak tuka ene zapetak]** .....*As-tu arrangé mes souliers?*
— Aspaldi, ahantziak ere... .....**[aspaldi; ahantziakee]**.....*App. (Ils sont faits) depuis longtemps, je les avais même oubliés... (On ajoute* "**ahantziak ere**" *soit pour plaisanter, soit pour indiquer qu'il aurait pu venir les chercher un peu plus tôt, peut-être...)*

==========
(Haur ixtorio, Aita Piarres Lafitte zenak kondatuia.)

(Misioneak ziren Beskoitzen; Jendea heldu mezarat eta aita misionesta denen agurtzen ari eta ongietorria egiten. Huna heldu dela aita familiako bat bere bortz edo sei urteko mutiko ttipiarekin. Aitak, ur benedikatu untzia erakutsiz, "Aitaren" egiteko:)

— Harraxu ur benedikatuia, Jesus hor baita... [harraxu ur-beneeikatuia, Jexux hor bita]

(Eta haurrak aitari, abantxu nigarrez:)

— Jesus hor baita, trenpan? [Jexux hor bita, ttenpan]

==========
(Haur ixtorio)

(Bazen gizon bat "Xixari" izengoitia zuena. Egun batez gure etxerat jin zen eta aitarekin biak sukaldean elheketan ari ziren. Arreba Martxela, –ttipi-ttipia zen oraino, lau bat urte– kanpoan zabilan eta arropak zikinduiak zituelakotz, amak erran zakon:)

— Ez xitela sukalderat joan, dabantail zikin horrekin, "Xixari" hor baita!
[etxitela sukhaldeat juan, daantal zikhin horrekin, "Xixari" hor bita]

(Baina amak buruia itzuli orduko, Martxela sukalderat doa eta –egiazko haurra– galdegiten du:)

— Nun da xixaria ?...

==========
(Mozkor istorio)

(Ba omen zen behin edale handi bat, hilzorian; begiak ere hetsirik zauzkan. Apeza ekar-arazi zuten. Hunek, usaiako otoitzak egin ondoan, ezpainetarat hurbildu zakon kurutzefika sainduia; bainan eriak, begiak hetsiak eta mintzoa doi-doia entzun zakiokeela, hau atera zuen:)

—Idekazu buxuina! [iekazu buxuina] *Enlevez le bouchon! (Il avait pris le crucifix pour une bouteille de vin...)*

==========
(Mozkor istorio. Batak bertzeari:)

— Jaun erretorak nahia nindian bildu elizarat, kofesatzeko... Ez dik lanik ukanen! [Janartorak nahia nintian elizalat bildu koosatzeko... Eztik lanik ukhaan] *App. Monsieur le Curé aurait voulu que j'aille à confesse... Il n'aura pas le plaisir de m'y entendre...*

==========
(Buhami istorio)

— **Ama, auzoko emazteak xingar-azpi bat eman dautazu...** *Maman, la voisine m'a donné un jambon...*
— **Jainkoak eta Ama Birjinak lagun dezala(*) holako arima ona!** *Que Dieu et la Vierge bénissent cette bonne âme!*
— **Harrak ere badititzu...** *Il y a des asticots aussi...*
Arropaturik habil ! [arropatuuik hail] *Emmitoufle-toi bien, habille-toi suffisamment pour aller si loin!*

Ez hintzen aski arropatuia [ehintzen aski arropatuia] *Tu n'étais pas assez (chaudement) habillé (c'est pourquoi tu as pris froid).*

Bezti hadi! *Habille-toi (suffisamment)!*

Minarrak! [minharrak] *Antiphrase. Litt. (?) Prends mal, fais-toi mal! App. Fais-toi mal et je ne te dirais rien! (= Fais attention, nom d'une pipe!)* (≈ Minar ezak)

Ez duk holakorik erraiten! [eztuk holakooik erten] *On ne dit pas des choses comme ça! (Recommandation aux enfants.)*

Ikasak obeditzen! [ikasak obe-itzen] *Apprends à obéir!*

Irri egin dezagun: nigarrak aski goiz jinen baitire [irrin dezaaun: niarrak aski goiz jinen bitie] *App. Rions, amusons-nous: les pleurs et les chagrins viendront toujours assez tôt.*

Haugi hunat, biloak pika < >! [haui hunat, biluk pika] *Ellipse du verbe auxiliaire en batua* **<diezazkiadan>;** *Viens ici (pour) que je te coupe les cheveux!*

Haugi hunat, bisaia ikuz < >! [haui hunat, bisaia ikuz] *Ellipse du verbe auxilliaire en batua* **<diezaadan>** *Viens ici (pour) que je te lave le visage!*

Haugi hunat, zapatak < > zira < >! [haui hunat, zapetak zira] *Ellipse possible de* **<horik>** *d'abord puis de* **<diezazkiadan>.** *Viens ici, que je te cire tes/ ces chaussures!*

Papoa zabal-zabala [papua zahal-tzahala] *Le col (de la chemise) largement ouvert (alors qu'il fait froid/ qu'il faudrait mettre une cravate).*

Papo hori hetsak (poxi bat) [papo hoi hetsak (poxi-at)] *Boutonne ce col (un peu) (ça fait débraillé comme ça/ il fait froid.)*

Ez zakala ahantz ene komisionea, niri! [etzakela ahantz ene komisionia, niri] *N'oublie pas ma commission, tu m'entends! (Il faut relever ici le sens app. de:* **niri!** *Tu m'entends!)*

Ez zakala hauts [etzakela hauts] *Ne le casse pas.*

Ez zatzikala denak hauts! [etzatzikela denak hauts] *(Tu viens de casser une assiette) ne me les casse pas toutes (s'il te plait!).*

Zer zaitzu? *Qu'en pensez-vous?* (**Zer zaitzu zuri?** *En quoi ça vous regarde?)*

Zer dio aitak? *Qu'en pense, ton/son père?// App. Donne-moi des nouvelles de ton père.*

Ganixek eta biek bilduko duzue mahatsa [Ganixek eta biek bilduko-uzii mahatsa] *Ganix et toi, vous allez ramasser le raisin.*

Ganix, Manex eta hirurek bilduko ditutzue sagarrak [Ganix, manex eta hiruek bilduko tutzii saarrak] *Ganix, Manex et toi, vous allez ramasser les pommes.*

Emazue pilotan nahi bezainbat bainan lanik ez huts egin
[emazii pilotan nahi bezinbat bana lanik ez hutsin] *Jouez à la pelote autant que vous voulez mais ne manquez pas le travail. (Peut se dire à une seule personne; c'est comme une recommandation globale. On a déjà vu d'autres cas semblables.)*

Eta hautatu behar... [eta hautzatu behar] *(Le ton est important.) App. (Quoiqu'il en coûte,) il nous faut choisir (et c'est difficile)...*

Aurtengoa egina duk [aurthengua ina-uk] *App. Ç'en est fait pour cette année (on ne peut rien y changer maintenant; en espérant que l'année prochaine, on s'y prendra mieux/ plus tôt.) On peut dire aussi:* **Aurtengoa hola joanen duk [aurthengua hola juaan duk].**

Irakutsakok ..... **[iakutsakok]** ..... *Montre-le lui (comment il faut s'y prendre).*
Ikasakok .... *Apprends-le lui.*

Erasiatu ..... **[easiatu]** ..... *Gronder/ réprimander.*
Hizkatu .... *Prise de bec/ se quereller un peu.*
Zernahi erran..... ..... *Dire de tout, donner une bonne engueulade.*
Punimenduia..... ..... *La punition.*

Goraintzi amari!..... **[gohaintzi amaai]**..... *Bien le bonjour à ta/ à votre maman!*
Gorantzi aitari! ..... **[gohaintzi aitaai]** ..... *Bien le bonjour à ton/ à votre papa.*
Goraintzi arrebari!.. **[gohaintzi arrebaai]**. *Bien le bonjour à ta/ à votre sœur! Etc...*

Zoazi polliki! [zozi pulliki] *Litt. Allez gentiment! App. Bon (voyage de) retour!*

Oharpen eta laudorio

Deneri ohartuia baita [deneri ohartuia-ita] *App. Il est très éveillé et il remarque tout.*

Ohartzen hasia duk [ohartzen hasia-uk] *Il a commencé à se rendre compte.*

To, hor zinena... *Ah, vous voilà.../ vous étiez là... (je ne vous avez pas entendu arriver)*

Trankil baita ere [trankil bitaree] *Il faut dire qu'il n'a plus de soucis (maintenant, par rapport à une autre période).* (Louis Ithurbide Larremendikoak)

Konfiantzazko gizona duk [konfientziazko gizona-uk] *C'est un homme sur lequel on peut compter; un homme de confiance.*

Ez dik urgulurik [eztik urguluuik] *Litt. Il n'a pas d'orgueil. App. Il n'a pas d'ambition (alors qu'il devrait en avoir un peu).*

Ez duk urguluz! [eztuk urguluz] *Ce n'est pas du luxe! (Se dit de quelques investissements —achat de vêtements ou autres— devenus depuis longtemps nécessaires, indispensables.)*

Zangoak hutsean zitian [zanguk hutsin zitian] *Ils avaient les pieds dans le vide (il n'avait pas d'appui...)*

Dudan egona nuk... [dudan eona-nuk] *Je suis resté indécis...*

Zer pena dutena... [ze pena-utena] *App. Ils souffrent d'un terrible chagrin...*

Urrunerat iduri zian mozkorra < > [urruneat iuri zian mozkorra] *Ellipse de* **<zela>**. *De loin, on aurait dit qu'il était soûl.*

Gazte lagunak dituk [gazte la-unak tuk] *App. Ce sont des amis de jeunesse.*

Gazteago zuian to, orduian [gaztioo zuian to, orduian] *Il était plus jeune, tiens, à cette époque... (Formule courante qui se dit en regardant une photo de jeunesse.)*

Gazte zonbait hiltzen dituk; (bainan) zaharrak denak! [gazte zomeit hiltzen tuk; (bana) zaharrak denak] *App. C'est vrai qu'il y a quelques jeunes qui meurent mais les vieux, eux, ils meurent tous! (C'est une personne âgée qui peut dire cela en plaisantant un peu.)*

90 urte? Gu aspaldi ahantziak izanen gituk; ni beti. [90 urte? Gu aspaldi ahantziak izaan gituk; ni bethi] *App. 90 ans ? Nous, à cet âge-là, nous serons oubliés depuis longtemps; en ce qui me concerne du moins.*

"Izanen duk han ere, astean ortzirale bat" [izaan duk hanee, astin ortziale bat] *Dicton. Litt. Il y aura, là-bas aussi, un "vendredi" par semaine. Autrement dit: les plus belles promesses de vie ont leur revers, même si on ne les voit pas au premier abord.*

Ez gituk mundu huntakoak [ezgituk mundu huntakuk] *Nous ne sommes pas de ce monde (la vie terrestre est courte, nous sommes destinés à une autre vie "ailleurs").*

Zuritu duk paltoa [zuritu-uk paltua] *App. Tu t'es sali la veste (contre le mur).* (Senperen ere berdin da.)

Zer hutsa! [ze hutsa] *Quel vide! (Peut se dire aussi bien après le départ d'une marchandise volumineuse/ après le départ de quelqu'un/ après le décès d'une personne.)*

Ez duela ahantzi hunek! [eztiila ahantzi hunek] (*Suivant la tonalité) Il n'a pas oublié, tiens, celui-ci! Bravo! (Courant.) // Il n'a pas oublié, tiens celui-ci! Merde alors! (Plus rare.)*

Zoin ontsa! [zoin untsa] *Que c'est bien (dit/ d'être gentil/ travailleur...) (Courant.)*

Ahantzia bere istorioetan [ahantzia bee ixtoriuetan] *App. Il racontait ses histoires à n'en pas finir...*

Aldi bat barka duk [aldi bat barkha-uk] *La première fois c'est pardonnable. (Mais la deuxième fois, ça ne le sera plus...)*

Aldi bat barka; bi aldi, urka! [aldi bat barkha, bi aldi urkha] *App. On pardonne une fois, mais la deuxième fois, on pend! (Expression exagérée, intéressante à cause de la rime.)*

Hire aitak zioian... [hie aitak zioian] *Ton père (qui était un sage) disait...*

Hiretzat utzia nian [hietzat utzia nian] *Je l'avais laissé pour toi (pour que tu le fasses). // Je croyais que c'était toi (qui passait par là, par ex.).*

Biba hi! *App. Bravo! Félicitations!! (Expression courante.)*

Biba hori! // Biba hura! [biba hoi // biba hua] *(Suivant le ton) Bravo à celui-là! // App. Il croit avoir fait quelque chose de bien, le pauvre! // Bravo le mec, pour sa conscience "élastique"!*

Ergelek badie abantail bat: ez die sofritzen! [ergelek badie(k) aantail bat: eztie(k) sofritzen] *Les niais/ les "têtes légères" ont un avantage (sur les autres), ils ne souffrent pas (autant devant les injustices/ les difficultés, etc.)*

Trenpu gaitzean zuian [trenpu gaitzin zuian] *Il était en pleine forme.*

Jaunean zuian ..... **[jaunin zuian]** ..... *Il était habillé très chic...*
Anderean zuian ..... **[anderin zuian]** ..... *Elle était habillée très chic...*

Adio, muñu! [aio, muñu] *App. Salut, mignonne! (Légèrement galant...)*

Zer mununa! [ze mununa] *App. Qu'est ce qu'il est beau et adorable (ce gosse)!*

Urratsik ez dik egiten ahal hori(k) gabe [urratsik eztik iten ahal hoi(k) gabe] *Il ne peut pas faire un pas sans lui/ il ne peut pas faire un pas sans ses lunettes...*

Zer nahi duk, adina... [ze nahuuk, adina] *Que veux-tu, c'est l'âge! (On n'y peut rien)*

Adinak ez dik barkatzen [adinak eztik barkhatzen] *L'âge ne pardonne pas. (On a beau être très solide, à partir d'un certain âge, des problèmes de santé apparaissent.)*

Elhe* airos eta kitzika .....(Euskara batuan: *Ele airos eta kitzika)

Zakurra hor bada, jabea ez duk urrun [zakhurra hor baa, jabia eztuk urrun] *Si le chien (de quelqu'un qu'on attend) est là, son maître n'est pas loin.*

(Lors d'un déplacement habituel, et à pied, le chien précède souvent son maître. En voyant le chien du surnommé "Banttur" (= Vantard) on peut lancer à demi-voix)
To, Banttur hor diagu! [to, Banttur hor diaau] *App. Tiens, voilà Banttur qui s'annonce!*

Kozinertsa amorosean ginian [kozinertsa amuusin ginian] *La cuisinière était amoureuse. (Se dit quand le bouillon est un peu trop épicé et que l'on est en groupe.)*

Gizon ederra izanen duk, berriz ere... [gizon eerra izaan duk, berriz-ee] *App. S'il se soigne, se repose comme ça, il sera/ il continuera encore à être un bel homme.*

"Bi sos balio ukan bazinitu, hilen zinen bai" [bi sos balio ukhan bazintu, hilen zinen bai] *App. (En tombant de si haut) si vous aviez valu deux sous, vous vous seriez tué (alors que vous vous êtes à peine fait mal). (Célèbres paroles d'Antoni Curutchet de Xobatenea à Martin Sagardi. Voir* HASIAN-HASI « lehena », *page 126. Cette accusation est sévère mais il faut voir l'époque et surtout les personnages hauts en couleurs! Pour comprendre le sens, il faut savoir qu'il se dit communément que les gens valeureux meurent jeunes et que les autres réussissent à vieillir.)*

Urtatsez ukanen dituk bi pott [urthatsez ukhaan tuk bi pott] *Au premier de l'An, tu auras deux bises. (Paroles de fille à qui un garçon vient de rendre un (petit) service.*
À ce propos, on ne s'embrassait guère autrefois. Le jour de l'an était une exception et cela nous coûtait d'ailleurs beaucoup, à nous les enfants, d'aller embrasser nos parents en disant: **Urte on, ama! [urthe on, ama// Urte on, aita! [urthe on, aita])**

Denbora batez, janen nian eta orai dolu diat ez janik! [denbora batez, jaan nian eta orei dolu-iat ez janik] *App. À une époque, je l'aurais croquée (ma femme, à belles dents) et maintenant, je regrette de ne pas l'avoir fait! (Bavardage)*

Hik hala diok... *Ça, c'est toi qui le dit (mais est-ce vérifié?)...*

Ez dezala ametsik egin... [eztezala amentsik-in] *App. Qu'il ne se fasse pas d'illusions...*

Iduri duk harrituia [iuri-uk harrituia] *Tu as l'air très étonné/ tu as l'air ahuri...*

Gure bi mandaheroak [gure bi mandaheruk] *App. Nos deux compères. (Bavardage)*
(Appellation fantaisiste comme: **Kalixtro/ Eskapitxota...** Eta **Kinkanputz** zer da?)

Zer sakatrapuia egiten duena! [ze sakatrapuia iten diina] *App. Qu'est-ce qu'il est mal habillé! Quel accoutrement il a...*

Galtza-pot ! [galtxa-pot] *App. Espèce de gavroche/ galopin! (Se dit à un garçon (de 5-8 ans?) Ce n'est pas méchant mais taquin. Si c'est la sœur qui "attaque", le garçon peut répliquer* **"Zaia-pot" (zaia =** *robe) comme une réponse du berger à la bergère.)*

— Giristino zare? — Bai baditut hamar zare... *Jeux de mots: Ceux qui n'aimaient pas le catéchisme s'amusaient à dire cela. (À Briscous:* **zare** *= panier, d'où le jeu de mots.)*

"Biba hori eta Poxoluko asto zena!" [biba hoi eta Poxoluko asto zena] *Vive lui et l'âne mort (depuis longtemps) de Poxoluia! (Ancien, peu utilisé; se dit quand quelqu'un croit faire une bonne action alors que ce qu'il fait est plutôt ridicule/ dérisoire (?).)*

To, hor hiza, ametsetako lukainka! [to, hor hiza, ametsetako lukinka] *Litt. Tiens, te voilà, saucisse des rêves! Autrement dit. "Gros fada"// "Étourdi". Ne peut se dire que quand l'amitié et l'estime des protagonistes est plus qu'évidente et dans une certaine ambiance.*

Apezen erdian, ontsa eroria zuian... [apezen erdian, unts'eoria zuian] *Antiphrase pour ironiser. Au milieu des prêtres, il était bien tombé (lui qui ne va jamais à la messe.)*

Trufatzen baitzaizko [trufatzen bitzazko] *Ils se moquent de lui, lui font subir des vexations.*

Uko duka? [ukho-uka] *Alors comme ça, tu abandonnes (ce travail/ ce projet. Plus ou moins taquin; se dit aux enfants ou aux jeunes après avoir observé des signes de lassitude dans leur entêtement à faire un travail que les personnes plus âgées savent difficile.)* (Aitatxi zenak erraiten zuena)

Haize tzar hori! [haize tzar hoi] *Litt. Ce sale vent! (Se dit pour taquiner celui qui tord un clou en l'enfonçant; car on sait bien que ce n'est pas à cause du vent que le clou se tord, mais par maladresse...)*

Ihaute diagu, beraz! [ihaute diuk, beez] *App. (Avec des travailleurs et des équipements si peu adaptés aux besoins) ça va être carnaval!*

Zer goaitatzen huen, Izpiritu Sainduia? [ze guaitatzen hiin, Izpiitu Senduia] *Qu'attendais-tu, l'Esprit Saint? (Se dit quand quelqu'un a attendu bêtement et longuement. Cette expression serait donc quelque peu blasphématoire...)*

Kinkirindurik plantatuia zuian [kinkirindu-ik plantatuia zuian] *Il était devenu joyeusement (amoureusement) excité.*

Aise karraiatzen dik gantza [aise kharreiatzen dik gantza] *App. Il porte facilement "sa graisse". (Se dit pour une personne assez maigre).*

Lumatzen hasia... *Qui a commencé à avoir des poils au pubis (plaisanterie...)*

Gaturik ere ez nikek nahi hartarik ernari! [gathuuikee enikek nahi hartaaik ernari] *Très app. Je ne voudrais même pas que ma chatte soit pleine de lui! (Sous entendu, et encore moins qu'une de mes filles se marie avec lui! Cela a été dit dans une certaine ambiance.)*

Tripako minak zitian *App. Il avait des soucis/ il était embêté, avait des rancœurs...*

Kaka hire! EDO **Kaka hiretzat! [kaka hire** EDO **kaka hietzat]** *App. Va chier! (Suivant le ton: ça peut être méchant ou pas du tout méchant.)*

Kaka dela harentzat [kakaala harrentzat] (≈ kaka izan dadila harentzat) *Tant pis pour lui (il n'avait qu'à être là); il n'a qu'à aller chier... (N'est pas bien méchant...)* (Senperen eta Ezpeletan ere berdin da). *Autre version plus atténuée malgré les apparences:*

Kaka mokordo < > harentzat! [kaka mokhordo harrentzat] *avec ellipse de* **<dela>.**

Kaka egiten dik hartaz [kak'iten dik hartaz] *Il s'en fout de cette personne/ de cette chose.*

Kaka egiteko denborarik ere ez diagu! [kakiteko denboraaikee ez tiaau] *Nous n'avons même pas le temps d'aller faire nos besoins! (Quand les employeurs imposent trop de travail.)*

Kaka egina duk bai... [kakina-uk bai] *App. Tu ne pourras absolument pas (le convaincre/ le réussir/ le porter/ le couper/ le casser) j'en fais le pari...*

Zakurraren briulinak! [zakhurraan briulinak] *Litt. Les testicules du chien (?). (Se dit pour contester allègrement une affirmation et dans une certaine ambiance.)*

Panpalinak *Les "couilles" (entre camarades; gauloiseries).*

Ez duk jinen ez hura, zoraturik [eztuk jien ez hua, zoatuuik] *App. Il ne va pas venir non lui, par un coup de folie (donner un coup de main, fainéant tel qu'il est).*

Ez duk atzo jin to, tronpaturik [eztuk atzo jin to, trunpatuuik] *App. Il n'est pas venu tiens hier, en se trompant (fainéant tel qu'il est, il savait que nous avions du boulot et qu'il aurait dû bosser avec nous).*

Parekatzekoak dituk bai horik [parekatzekuk tuk bai hoik] *App. Ceux-là, tu peux les mettre dans le même sac.*

Hitzemaiten ez dakiena, hura fitsik ez duk! [hitzemiten eztakiina, hua fitsik eztuk] *Celui qui n'est même pas capable de promettre, n'est rien. (Se dit en période électorale.)*

(Zernahi) hitzemaiten dik... [(zernahi) hitzemiten dik] *Il en promet des choses... (sous entendu: pourra-t-il tenir ses promesses?)*

Atrebituia duk, hori, denetan [atrebituia-uk, hoi, denetan] *App. Il s'introduit partout, audacieux et "gonflé" tel qu'il est.*

Erhia ausiki (duka)? *Tu as mordu ton doigt? (Question taquine, en voyant quelqu'un avec un doigt bandé. On plaisante car on pense qu'un doigt blessé n'est jamais bien grave.)*

Leher egin baietz, hura zela [leherrin baihetz, hua zela] *Je te jure que c'était lui.*

Ala fede baietz! [ala fe baihetz] *App. Je te jure que oui!*

Zoazte zuek < >... [zozte ziek] *Plusieurs ellipses sont possibles. Très app. Voyez-vous ça, si ce n'est pas bien/ il a réussi, alors qu'il n'avait pas tous les atouts en mains...*

Tuñako bat ez hakona emaiten ahal? [tuñako-at ehakona emiten ahal] *App. Ne pouvais-tu pas lui donner un coup-poussant (?)? (Se dit mais on ne se fait pas.)*

Zunkako bat eman [zunkako-at eman] *Donner discrètement un petit coup de coude (à son voisin; parce que dans le groupe, on se moque "gentiment" de quelqu'un, parce qu'il est drôle/ ou parce qu'il vient de dire quelque chose qui mérite l'attention.)*

Iskilima xixtako bat askiko dik! [ixkilima xixtako-at askiko-ik] *App. Un petit coup d'aiguille (à coudre) suffira pour le faire réagir (cette personne dont on parle)!*

Holako tresna duena ez duk deus(ik) gabe [holako tresna diina eztuk deus(ik) gabe] *Celui qui a un outil comme ça, n'est pas sans rien (moquerie légère le plus souvent, parce qu'il s'agit d'un outil très usé, à moitié cassé, etc.)*
(Voir également le mot **ELHE***)*

Elhe* bortitz eta xorrotx* ..... (Euskara batuan: *Ele bortitz eta zorrotz)

Buztana istapean joan zuian [buztena ixtapin juan zuian] *App. Il s'en alla (la queue basse) comme un chien battu.*

Kurios pinterdia baita [kurius pinterdia-ita] *Litt. Il est curieux comme un demi-litre! (Curieuse expression!) En français, on dirait: "Curieux comme un pot de chambre".*

Bizirik ehortziko dik harek jendea [biziik ehortziko-ik harrek jendia] *Litt. Lui, il va t'enterrer quelqu'un vivant. App. Lui, il va te mettre les gens plus bas que terre.*

Ez dik jendearen usainik ere horrek... [eztik jendiaan usainik-ee horrek] *Litt. Celui-là n'a même pas l'odeur d'une personne humaine. Autrement dit: il est méprisable. (Cette expression a peut-être une origine très lointaine. En effet, des primitifs quand ils se rencontraient, faisaient "un toucher de nez" (un "sentir"?) au lieu du baiser d'aujourd'hui...)*

Ez duzu sinesten ahal horrek zer tzarkeriak egiten dauzkidanak [eztuzu sinhesten ahal horrek ze (t)zarkeriak iten dauztanak] *App. Tu ne croirais pas toutes les misères, les méchancetés qu'il peut me faire.*

Zakur errabiatuia bezala igorri die [zakhur errabiatuia bezala iorri die(k)] *Litt. Ils l'ont renvoyé comme un chien enragé. Autrement dit: ils l'ont expédié comme un malpropre.*

Ez nuk haren ipurditik ibili beharra! [enuk harren iphurtik iili beharra] *(Légèrement grossier) App. Je ne vais pas courir derrière lui (je lui en ai déjà parlé plusieurs fois; il n'a qu'à aller là où il veut/ il n'a qu'à faire ce qu'il veut).*

Harekilakoak eginak ditik [harrekilakuk inatik] *App. Il s'est fâché avec lui (ce n'est pas la peine qu'il aille lui demander quoi que ce soit).*

Ziriko piltzarra bezala ibiltzen die heiek mutila [ziriko piltzarra-ezala ibiltzen die(k) heiek muthila] *App. Eux, ils traitent leur domestique comme le dernier des gueux...*

Errainak hautsi nahi lauzkukeie [errainak hautsi nahi lauzkuie(k)] *Ils voudraient nous casser les reins. (Au figuré et surtout avec (un peu d')exagération.)*

Zozo guziak ez dituk Pauen [zozo guziak eztituk Paben] *Tous les fous ne sont pas à Pau (à St-Luc, asile d'aliénés mentaux. Ceci pour indiquer que celui dont parle l'est aussi (...))*

Zozotuia *Fou de joie, éperdu de bonheur...// Devenu fou...*

Zozotzen baita [zozotzen bita] *App. Il perd la tête.*

Zoratzen gituk holakoetan [zoatzen gituk holakuetan] *Dans ces cas-là, nous devenons fou de colère/ de rage.*

Zoratuia, bizikleta ezin muntatuz [zoatuia, bizikleta ezin muntatuz] *Il était fou-furieux de ne pouvoir remonter sa bicyclette (qu'il avait démontée).*

Kexu dituk [kexu tuk] *App. Ils sont inquiets, ils ne sont pas contents.*

Kexatuia, bizikleta ezin muntatuz [kexatuia, bizikleta ezin muntatuz] *App. Il était complètement énervé car il n'arrivait pas à remonter sa bicyclette.*

Erhotzen baita [erhotzen bita] *App. Il devient complètement fou (dans ces cas-là).*

Zer zalapartak! *App. Quel va-et-vient incessant, quel remue-ménage...*

Zer kalapitak! *Quelles discussions animées, acharnées (foire d'empoigne)!*

Arrangura dituk [arrangura tuk] *Ils se plaignent/ ils rouspètent/ ils réclament...*

Hizkatu baitire [hizkatu bitie] *Ils se sont dits des mots "durs".*

Oldartu zautak *Il m'a (littéralement) assailli.*

Samur dituk [samur tuk] *Ils sont fâchés (entre eux).*

Lixkarren ari izanak dituk [lixkarren a-izana-tuk] *App. Ils se sont chamaillés sérieusement/ ils se sont engueulés.*

Bilduko duk! [bilduko-uk] *App. Tu vas le ramasser!// Tu vas recevoir (une de ces gifles)!*

Kalapitan ari zituian ..... *App. Ils étaient en train de se chamailler.*
Mutur egon ..... **[muthur eon]** ..... *App. Faire une bouderie prolongée.*
Samurtu gintuian .... *App. Nous nous étions fâchés (pour de bon).*
Makurtu zituian ..... **[makhurtu zituian]** .. *App. Ils eurent un différend, un litige.*
Koskan zuian .... *App. Il faisait "la tête".*
Tzarrean zuian ..... **[tzarrin zuian]** ..... *App. Il était de mauvaise humeur.*
(Voir également le mot **ELHE** *et le chapitre* "**Jite eta jaidura**"*)*

Elhe* sano eta zintzo ..... (Euskara batuan: *Ele sano eta zintzo)

Ene iduriko .... **[en'iuriko]** ..... *App. Il me semble* ..... *(Voir le mot* **IDURI***)*
Ene gostuko .... **[enoostuko]** ..... *App. À mon humble avis* ..... *(Voir le mot* **GOSTU***)*
Ene ustez ..... **[en'ustez]** ..... *App. À mon avis* ..... *(Voir le mot* **USTE***)*
Ustez, beti ..... **[ustez, bethi]** ..... *App. Du moins je le crois* ..... *(Voir le mot* **BETI***)*

(Ces quatre expressions sont assez proches et d'utilisation courantes.)

Ez baitu oraino biziak hezia... [ezpitu oono biziak hezia] *App. Elle n'a pas été encore "dressée" par la vie... (A été dit à la suite d'un comportement "d'enfant gâté".)*

Ez zakela pentsatzen dukan guzia erran [etzakela pentsatze-uken guzia erran] *Ne dis pas tout ce que tu penses; modère, surveille tes paroles/ sélectionne tes mots.*

Atxikazue bakea, pagatuz bederen [atxikazii bakia, paatuz bedeen] *App. Maintenez l'entente, restez en bons termes (entre frères et sœurs) en allant, s'il le faut, jusqu'à des concessions financières.* (Martin Elissalde Kumaitegiko zenak)

Ezkontzeak ez dik kolorerik ere giristino bidez kanpo [ezkontzik eztik koloreeikee, giistino bidez kanpo] *App. Le mariage n'a aucun sens en dehors d'une perspective chrétienne.* **(kolorerik** ≈ kanorerik ≈ itxurarik ≈ potretik...)

Laboraria beti ikasten ari duk [laboraria bethi ikasten ari-uk] *App. Dans le métier (si complexe) d'agriculteur, on en apprend tous les jours.*

Sobera galdatzen baduk biziari... *Si tu demandes trop à la vie (tu seras forcément déçu).* (Ugutz Robles-Arangiz 1995)

Palatara bat lur aski-eta [phalatara-at lur aski-eta] *App. Pourquoi tant de vanités alors qu'une seule pelletée de terre suffit (pour nous recouvrir une fois mort).*

"Gainean denak ez dik jausteko lana baizik" [gainin denak eztik jeusteko lana bezik] *Dicton. App. Pour celui qui est au sommet (gloire, argent, responsabilité politique) la plus grande difficulté sera de "descendre" de son piédestal.* (Ama zenak errana norbaiti.)

Goaita zak pilota punperat jin artino [guaita zak pilota punpeat jin artio] *App. Attends le moment opportun (que les esprits mûrissent et en viennent à la raison).*

Ez zakala goizegi kanta! [etzakela goizeei khanta] *App. Ne te réjouis pas trop vite (ce n'est pas encore tout à fait gagné/ acquis; il faut attendre confirmation, avant de laisser éclater ta joie/ avant de te réjouir/ avant de le dire à tout vent...)*

Goazen urratsean [guazin urratsin] *Avançons au pas (par opposition à courir). // Allons sans précipitation (dans cette affaire compliquée).*

Heldu diren bezala hartu behar ditik [heldu dien bezala hartu behar-tik] *Il faut les prendre (les évènements de la vie) comme ils viennent (avec philosophie).*

Ez diat konprenitzen ahal zertako egin duen [eztiat konpre-itzen ahal zetako in diin] *Je n'arrive pas à comprendre pourquoi il a fait cette chose-là.*

Baduk eta ez duk [ba-uk eta eztuk] *(Se dit par ex. pour un achat qui a priori semble un peu cher, mais qui, réflexion faite, n'est pas si cher que ça, vu son utilité incontestable.)*

Utzak ixilik! *(Il te provoque mais) ne lui répond pas, ignore-le!*

Ixilik utzi nian *Je ne lui avais rien répondu (ça valait mieux).*

Hori ez duk zuhurtzia [hoi eztuk zuhurtzia] *App. Ce que tu fais là n'est pas prudent. // Ce que tu dis là n'est pas digne.*

Urus duxu [irus duxu] *Elle est heureuse (en ménage).*

Uruski ukan(a) dixu [uruski ukhan(a) (d)ixu] *App. Elle a accouché sans complication.*

Hola izan duk beti eta naski izanen... [hol'izan duk bethi eta naski izaan] *App. Cela a été toujours comme ça (avec lui... avec l'État, avec l'Administration...) et ça ne changera probablement pas (à quelque chose près).*

Zer erran ditaken... [ze erran taken] *Très app. On ne peut rien affirmer, prédire (la vie nous réserve de ces surprises...).*

"Ez duk beharra bezalakorik" [eztuk beharra bezalakooik] *Dicton. App. Il n'y a rien de tel que le "besoin" (pour faire agir).*

Nehork urrats bat ez egin nahi [nehok urrats bat ez inahi] *App. Personne ne veut faire un pas (pour aller vers l'autre et trouver un terrain d'entente).*

Zonbait urtez ikas ditake mintzatzen; baina bizi guzia behar da ixiltzen ikasteko! *App. On peut apprendre à (bien) parler en quelques années; mais toute une vie n'est pas de trop pour apprendre à se taire (dans certaines situations)!*

(Voir également le chapitre "**Errankizun**"*)*

Aipatu pertsonak, laguntzaileak eta sustengatzaileak

..... **Herria** ..... **Orrialdea**

- Beñat **Olhatz** (amaren aitatxi zena) ..... **Beskoitze** .....**385.**
- Mañeñe **Olhatz** (amatxi, amaren ama zena) ..... " ....**397.**
- Batista **Lafourcade** (aitatxi, amaren aita zena) . " ....**43 – 46 - 53 – 119 – 166 – 177 – 179 – 182 - 199 – 231 – 242 – 270 - 317 – 374 – 384 - 385 – 404 – 415 - 451.**
- Mañeñe **Duhau** (amatxi, aitaren ama zena) ...."....**228 - 385.**
- Piarres **Duhau** (aita zena) ...."....**4 – 36 – 40 – 51 – 65 - 74 – 79 – 87 - 92 - 111 - 123 – 161 – 168 – 196 – 204 – 218 – 228 – 236 - 239 – 250 – 255 – 272 – 278 – 348 – 374 – 384 - 392 – 401 – 414 – 422 – 433 – 436 – 437 – 446.**
- Xane **Duhau** (ama zena) ...."....**4 – 20 – 50 – 108 – 117 – 124 - 135 – 138 – 140 - 146 – 152 – 199 – 200 – 208 – 216 – 217 - 219 - 224 – 237 – 239 – 257 – 278 – 322 – 328 – 336 - 370 – 384 – 385 – 395 – 397 – 437 - 455.**
- Battitta **Duhau** (anaia) ...."....**114 – 1714 – 393 – 433.**
- M.-Jeanne **Berhocoirigoin** (arreba)..... ....."....**73 – 228 – 279 – 280 – 423 – 432.**
- Léonie **Lartigue** (arreba) ...."....**229.**
- Martxela **Sabarots** (arreba) ...."....**187 - 387.**
- Janbattitt **Sabarots** (koinat zena) ...."....**382.**
- Alberte **Irigoyen** (arreba) ...."....**154 - 196 - 427**
- Yvette **Mendy** (arreba) ...."....**109 - 178.**
- Janpiarri **Lafourcade** (otto zena) ...."....**162 - 232 - 353.**
- Helena **Lafourcade** (ttantta zena)..... ....."....**153 - 311.**
- Mayi **Duhau** (ttantta zena)..... ....."....**257.**
- Paul **Jocou** (otto zena) ...."....**85- 88- 176- 205 - 272 - 409 - 410.**
- Guillaume **Berhonde** zena "Pikasarria"..... ....."....**193.**
- Antoinette **Claverie** zena "Labiagerrea"..... ....."....**331.**
- Antoni **Curutchet** zena "Xobatenea" ...."....**450.**
- Mayi **Dubarbier-Borda** "Karrikaburua"..... ....."....**124 - 162.**
- Charlotte **Duguine** "Beherekoeihera"..... ....."....**379.**
- Batista **Duhau** zena "Mentaberrikoborda" ...."....**111.**
- Paul **Duhau** zena "Kumaitegia" ...."....**111 - 162.**
- Sauveur **Duhau** zena "Larrista" ...."....**386.**
- Martin **Elissalde** zena "Kumaitegia"..... ....."....**54 – 68 - 455.**
- Beronika **Hirigoyen** "Leizarretxea" ...."....**278 - 347 - 383 – 392.**
- Louis **Ithurbide** "Larremendia" ...."....**75 - 227 - 238 - 256 - 448.**
- Lucien **Ithurbide** zena "Zuhaztia"..... ....."....**154 - 212 - 407 - 414 - 440.**
- Batita **Larre** zena "Latsaga" ...."....**68- 194 - 211 - 235 - 283 - 343.**
- Marcel **Larre** "Latsaga" ...."....**372.**
- André **Mailharrancin** "Plazeua"..... ....."....**178 - 279 – 434.**

- Ñoel **Mendy** zena "Mentaberria" ...."....**193.**
- Auguste **Mouesca** zena "Kazino" ...."....**51 - 255.**
- Erramun **Mouesca** zena "Kazino" ...."....**204 - 374.**
- Maryse **Ospital** "Bidartea" ...."....**83.**
- Mailuxa **Peyrelongue** zena "Kanttoinea" ...."....**67.**
- Marie **Peyrelongue** zena "Kurutxeta" ...."....**178.**
- Ugutz **Robles-Arangiz** "Lekuederrea"..... ....."....455.
- Peio **Chipi**..... **Senpere**....**46.**
- Jean-Pierre **Olaizola** ...."....**386.**
- Michèle **Risso-Omnes** ...."....**109.**
- Beñat **Sarasola** ...."....**100.**
- Jean Pierre **Soudre** ...."....**22.**
- Joset **Zamora** "Lohiakoborda" ...."....**87.**
- Auxtin **Zamora**..... ....."....**468.**
- Jean-Bte **Arbeletche** apeza..... **Armendaritze**....**161.**
- Xarles **Bidegain**..... **Baiona**....**50 - 179 - 311- 381.**
- Kristina **Encinar**..... **Sestao** ....**249.**
- Eñaut **Etxamendi**..... **Bitirine**....**19.**
- Jean **Haritschelhar** ..... **Angelu**....**179.**
- Piarres **Lafitte** kalonje zena ..... **Uztaritze**....**4 - 25 - 208 – 386.**
- Pierre **Lhande** apez zena ..... **Zalgize** ....**19.**
- Xarles **Muntot** zena "Lamarka" ..... **Hazparne**....**212.**
- Maritxu **Olano**..... **Sara**... ....**234.**
- André **Ouret** ..... **Suhuskune**....**399.**
- Louis **Recordeau**..... **Bordele** ....**398.**
- Xarles **Sabarots**..... **Makea**....**156.**

Sustengatzaileak :Pierra **Amestoy, Beskoitze** ; Katixa **Dubarbier-Borda, Beskoitze** ; Beñat **Eyherabide, Beskoitze** ; **Jean Falagan** auzapeza, **Beskoitze** ; Gérard **Moustirats, Beskoitze** ; Irkus **Roblès Aranguiz, Beskoitze** ; Paxkal **Duhau, Senpere** ; Claudine **Leralue, Senpere** ; Isabelle **Lichau, Léren** ; Beñat **Oihartzabal, Uztaritze** ; Pantxoa **Etchegoin, Euskal Kultur Erakundea** ; .Daniel **Landart, Euskal Kultur Erakundea** ; Piarres **Charritton, Baiona** ; Graxi **Solorzano, Azkaine ;** Hélène **Trocmé-Fabre, La Rochelle.**

"Senpere" edo "Senperen ere berdintsu da", ikus orrialde hauetan :

19 – 21 – 22 – 24 – 27 – 38 – 43 – 46 – 47 – 51 – 52 – 55 – 56 – 60 – 77 – 81 – 87 – 95 – 112 – 113 – 123 – 131 – 132 – 134 – 143 – 153 – 161 – 169 – 174 – 189 – 194 – 200 – 202 – 218 – 223 – 228 – 250 – 258 – 269 – 270 – 272 – 275 – 276 – 277 – 280 – 283 – 286 – 289 – 294 – 299 – 301 – 308 – 319 – 331 – 338 – 343 – 347 – 358 – 369 – 380 – 384 – 386 – 394 – 398 – 401 – 405.

Argi eta garbi izan bedi, zerbait gaizki ezarria gerta baladi lan huntan, laguntzaileek ez luketela hor hobenik batere eta ene falta litakeela guzia.

Gero, bertze ainitz presunek ere mereziko zuketen hemen izaitea. Baina denen ikusterat joaiteko denborarik ez nuen. Badira ere ahantziak ditudanak norenak diren erranaldiak!

Bertze zenbaitek berriz, ezagutuko dituzte elhe batzu eta agian lan hau barnatu eta osatu nahiko dute bertze batzuek : hori litake ene nahikundea...

Eskerrak Jainkoari, hunaino heltzeko ahalak emanik.

Milesker deneri eta Biba Beskoitze!

2003-01-22 Henri Duhau

HASIAN-HASI "birdena"
egun guzietako mintzaira...

Laguna. Zinez preziatzekoa da Beskoitzeko mintzatzeko maneratik bildu duzuna eta preziatzekoa ere biltzeko zure manera. Loriatu niz liburuaren irakurtzearekin, egun guzietako euskara hori aski bazter utzia delakotz ene ustez. Egin ditudan oharrak harzkitzu ohar gisa, besterik gabe. Zure lanaren balioa ez dute markestu nahi.

2001-07-30 Xarles Bidegain.

Goizetik arrats, etxean, auzoan edo herriko plazan entzun mintzaira aberatsa : horra zer bildu duen gure lagunak ! Zer lan baliosa guretzat eta gure ondokoentzat ! Interneten aroan, floka arraro hunek badu bere leku guzia gure gogo-bihotzetan : loriatu naiz hazta handiko bilduma luze hau irakurtzean. Milesker Henri.

2002-09-16 Graxi Solorzano.

Quel plaisir de lire cet ouvrage ! Un trésor à avoir sous la main pour y trouver toujours des expressions en usage ou, parfois, quelque peu délaissées. Il donne vraiment envie de pratiquer et d'approfondir ce parler quotidien si riche et qui est l'élément essentiel de notre identité. Merci à son auteur, Henri Duhau, pour ce travail considérable.

17-09-2002 Katixa Dubarbier-Borda.

Liburu hunekin gure egun guzietako euskara jalitzen zaukuk etxetik plazarat eta mundurat ! Noizean behin edo usu entzun eta baliatu ainitz erranaldi bildu dituk eta atsegin handirekin ikusi diat kasik gorderik zagon gure etxeetako mintzaira betikotz argitan ezarri dukala. Lekukotasun paregabea den lan hunek oldar berri bat eman dezala gure hizkuntzari.

2002-10-03 Pierra Amestoy.

INSTITUT CULTUREL BASQUE
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

BESKOITZE
BRISCOUS

Liburuaren gibeleko estalia

GEHIGARRIA / SUPPLÉMENT (2020)

HASIAN HASI (bigarrena)

Liburuaren inguruko gutun batzuk

bai eta plazaratu ondoan

agertu ziren lerro zenbait

argazki batzuk

HASIAN HASI (bigarrena)

Liburuaren inguruko gutun batzuk

bai eta plazaratu ondoan

agertu ziren lerro zenbait

—Artikulu,
—Mintzaldi…

(ikus dokumentu osoa, 170 orrialde)

==========

HASIAN HASI (bigarrena) 300 ale (hirurehun ale) inprimatu nituen eta etxean gelditzen zaizkidan bakar batzuk salbu, denak joanak dira aspaldian. H.D.

© Henri DUHAU, « Mariatorenea »
48, Karrika nagusia 64310 Senpere

Henri Duhau
64310 Senpere
Tel. 05 59 54 10 44

2001eko hazilaren 6a.

Gaia: HASIAN HASIren
bigarren partearentzat laguntza galdea.

Pantxoa Etchegoin Jauna
Euskal Kultur Erakundearen Zuzendaria
Lota Jauregia
64480 Uztaritze

Zuzendari Jauna,

Atzo Daniel Landart aspaldiko adiskidearekin aipatu bezala huna beraz ene liburu ekaiaren ale bat, zirriborroa baizik ez dena oraino. Duela hogoi bat urte hasi nintzen bilketa lan hautan: paperño bat sakelan atxik eta gogorat jin arau idatzi edo Senpereko jendeari entzun eta gero eia nola erraiten den hori Beskoitzen... (Arte hortan, 1993an, jalgi zen ere ustegabeko arrakasta ukan zuen HASIAN HASIren lehen partea.) Bertze zonbait halere irakurtzeak gogorat ekarriak dira, baina ez dut bihirik hartu, adibidez, "Ortik eta Emendik" Danielek Bilbotik ekarri zauzkidan bi bilduma aberatsetan: lana doblatu beharko zen! Eta, gisa guziz, horiek ez dute biltzeko lanik...

Gaurko lan hunek 6 edo 7 milako bat perpaus labur edo erranaldi badauzka eta horietan milako bat errepikatuak behin edo berdin bietan.

Ordenatzea: lehen partean deklinabidearen arabera, lehenik **etxe**-dunak, gero **etxea**-dunak, **etxeak**-dunak, eta abar. Bertze batzuetan alfabetikoki eta gehienetan... ahal den bezala!

Lan hunek badu oraino hobetzearen behar handia; zientifikotasunerat heltzerik, haatik, ez du balio aipatzea ere... Beskoitzen hamar bat pertsona balitazke laguntzeko prest eta heiekin nahi nituzke egiaztatze batzu egin, ahal den bezainbatean. Adituagoko batek ere zuzendu nahi bagintu ez ginezake errefusa...

Oroz gainetik, ene lana bilketa bat gelditukо da, *corpus* bat bezala, gutieneko itzulpen batzuekin. Gauzak sakonkiago aztertu nahi lituzkeenak bertze lan bati buruz joan beharko du. **Eguneroko hizkuntza xehearen sustatzea du helburu nagusia**: erroak ukaiteagatik nunbaitekoa izaitea biziki ontsa iduri zait. Baina bertzela "Beskoitzeko Euskara" kasik estakuru bat dela erraiten ahal litake.

Bertzeak bertze, Isabelle Lichau Andereak, Beñat Oihartzabal eta Xarles Bidegain Jaunek ikusia dute zirriborroa, begi onez naski, oharpen batzu eginak ere eta bertze batzu hitzemanak.

Euskal Kultur Erakundearen laguntza zer izaiten ahal litaken ez dakit batere. Zueri nago, den gutieneko kezkarik gabe; ez naiz "gaizki usatua": orain arte atera ditudanak laguntzarik gabe edo arras gutirekin plazaratuak baititut... Noizbait sustengurik etortzen bada, haatik, anitz estimatua izanen dela ez ahal dut erraite beharrik. Beskoitzeko "Leizarraga" elkarteari ere dei bat egiten ari naiz. (Elkarte hau sortu zen HASIAN HASI lehen partearen publikatzeak sortu giroa lagun, gau eskola ere bezala funtsean.)

Bertze edozoin xehetasunentzat osoki zure gomendio nagola, onarzkitzu Zuzendari Jauna, ene eskerrik beroenak agurrik hoberenekin.

P.S. Diru laguntza 1.500 eurokoa izan zen. Ikus urruntxago. Milesker EKEri.

Henri DUHAU
Mariatorenea
64310 Senpere/St-Pée
T 05 59 54 10 44

Le 15 Juin 2002

Monsieur Jean FALAGAN
Maire
64240 Beskoitze/Briscous

Monsieur le Maire,

Comme je vous l'avais annoncé il y a quelques semaines, c'est avec un plaisir non dissimulé que j'ai l'honneur de vous remettre aujourd'hui un exemplaire de ce qui est appelé à être **"HASIAN-HASI Birdena"** ou **"Beskoitzeko Euskara, 2ème partie."**

Vous l'aurez compris, il ne s'agit pas encore de la version définitive et j'aimerais que cet exemplaire reste en votre possession ou en tout cas dans votre entourage immédiat. Plusieurs beskoiztar y sont cités et je n'ai pas encore toutes les autorisations de publier. Par ailleurs, mon fils et un autre enseignant sont en train de corriger l'orthographe et le français; mon point faible, ce sont les traductions, et je les ai négligées jusqu'à présent, mon but premier étant de réaliser un corpus d'expressions basques.

En effet, un corpus, c'est le terme qui convient je pense le mieux pour nommer cet ouvrage. Environ 7.000 expressions y sont recueillies avec des embryons de lexique dans quelques domaines très courants. (Sur leur disposition dans ce recueil, lire les pages 20 à 22.)

Un certain nombre de ces expressions sont liées à l'agriculture, ceci est bien compréhensible compte tenu de mes origines; mais je ne suis pas seul dans ce cas, c'est même la base de la société de Briscous! Je dirais que, finalement, la plupart de ces expressions, traitent de la vie, au fil des jours et sont couramment accessibles à un bascophone d'un bon niveau.

Depuis une vingtaine d'années, je note (avant d'oublier!) ce que j'entends, ce qui me revient à l'esprit et qui a trait au parler de mon village natal. Le but de tout ceci n'est pas d'enseigner les bases de notre langue — pour cela il faut aller vers Seaska, les écoles bilingues, AEK ou vers des associations similaires — mais il s'agit de tendre à un rapprochement et si possible à une jonction entre les bascophones locaux de toujours et les nouveaux euskaldun, lorsque ceux-ci atteignent un certain niveau. Ce langage quotidien est simple, direct, imagé, elliptique mais elle est assez éloignée de la langue écrite laquelle est largement privilégiée aujourd'hui (un peu trop selon moi) par les institutions linguistiques et culturelles basques (mais c'est peut-être à leur corps défendant).

En 1993, la publication de la première partie avait reçu un accueil qui m'avait agréablement surpris. Sur les 600 exemplaires tirés, j'en ai vendu environ 300, donné environ 200 et il m'en reste donc une centaine encore en réserve. Les enseignants de l'école publique m'avaient demandé une causerie pour laquelle ils m'avaient donné la meilleure appréciation possible. L'UEU (L'Université d'Été) de Pampelune m'avait également invité en ouverture de session en 1994. Bilbao aussi.

À la suite de cette première publication deux associations culturelles sont nées à Briscous: **Leizarraga Elkartea** et **Gau Eskola**. Et au mois de septembre dernier, suite aux divers "brouillons" de cette 2ème partie, j'ai été sollicité pour intervenir à l'occasion de l'hommage rendu à l'un des plus grands bascologues du siècle passé feu Pierre Lafitte à Ustaritz, que je considère comme mon père spirituel dans cet ouvrage; voir page 19.

Le bilan est donc largement positif; c'est pourquoi cette fois-ci, je suis personnellement plus décontracté, **bien que ce travail soit beaucoup plus important que le premier, par son volume d'abord mais aussi et surtout par son contenu!** D'ailleurs, et dans la causerie aux enseignants et à l'UEU, j'avais surtout parlé de cette 2ème partie qui était déjà à l'époque largement entamée!

Mais ce n'est pas à moi d'en dire plus sur mon travail. Les deux spécialistes de la dialectologie à l'Académie Basque l'ont examiné: M. Beñat Oihartzabal (le premier brouillon, Juin 2001) et M. Xarles Bidegain (le 2ème brouillon, fin 2001; celui que vous recevez aujourd'hui est le troisième brouillon qui ne sera remis aux académiciens qu'à l'automne, après correction complète.). Mais les travaux de ce type sont **rarissimes** d'une part et difficiles à apprécier d'autre part puisqu'ils ne partent pas de **"l'écrit"** mais **"du parler"**, ce qui rend mon travail, pour une bonne part, invérifiable scientifiquement.

Je viens donc solliciter d'abord une aide municipale. Pour mémoire, en 1993 vous m'aviez accordé 5.000 Frs pour un livre de 150 pages; mais ce 2ème volume fera plus de 400 pages et donc proportionnellement, cette fois-ci la subvention pourrait être de 15.000 Frs (un peu plus de 2200 euros) J'envisage un premier tirage de 300 exemplaires, dont l'impression reviendra à plus de 40.000 francs (un peu plus de 6.000 euros). L'Institut Culturel Basque m'a promis une aide mais sans encore préciser laquelle. Il est certain qu'il appartient à Briscous d'ouvrir la voie.

Me tenant à votre entière disposition pour tout renseignement complémentaire que vous voudriez avoir, je vous prie d'agréer, Monsieur le Maire, avec tous mes remerciements l'expression de mes salutations les meilleures.

INSTITUT CULTUREL BASQUE
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Lota - B.P. 6
64480 Uztaritze/Ustaritz
Tél. : 05 59 93 25 25
Fax : 05 59 93 06 84
e-mail : eke@wanadoo.fr

(2002) Uztaritze, azaroaren 13an

Henri DUHAU Jauna
Quincaillerie Duhau-Arana
Le Bourg
64310 Senpere

Erref. : D.L. 02/11/ 32

Jauna,

Daniel Landartek jadanik telefonoz erran dizun bezala, gutun honen bidez baieztatzen dizut Euskal kultur erakundeak baikorki ihardesten diola **HASIAN HASI**ren bigarren partearentzat egin diguzun laguntza galdeari.

Gure sustengua : **1500 eurokoa** izanen da.

Diru kopuru hori inprimeriako faktura baten truke ordaindua izanen zaizu 2003. urte hastapenean.

Ohi den bezala, liburuaren azalean ezarri beharko dituzu gure logoa eta lerro hau : *« Euskal kultur erakundearen sustenguarekin ».*

Bestalde, atseginekin etorriko gara zure liburuaren aurkezpen ofizialera.

Bitartean, eskerrak bihurtuz egin duzun lan handi baliosarentzat eta gutiziatuz jende askok irakurriko duela,

Onar itzazu, Jauna, ene agurrik beroenak.

Pantxoa ETCHEGOIN
Zuzendaria

Euskal kultura sustengatzen duen herriarteko sindikata eta euskal kultur elkarteak partaide.
Estadoa, Pirinio Atlantiarretako departamenduko Kontseilu orokorra, Akitania eskualdeko Kontseilua sustengatzaile.
Avec le partenariat du Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque et des associations culturelles basques.
Subventionné par l'État, le Conseil général des Pyrénées-Atlantiques, le Conseil régional d'Aquitaine.

2003ko urria Lurra 13

KULTURA

HASIAN HASI behar eta, Henri Duhau hasi zen...!

Herrixka guzietan badira zonbait pertsona, xinpleki eta xumeki, eguneroko urratsetan, urteak eta urteak ezagutzen ditugunak, eta egun batez jakiten dugu ezin preziatuzko ideiak, ezagutzak edo dohainak dituztela beren fama, sail berezi batzuetan daukatela eta hortaz beren aldameneko gehienek deus ez zakitela. Henri Duhau, nunbait, hoietarik bat dugu, Senperen. Herritar askok ezagutzen dugu, dendalari gisa, bainan zonbatek, hizkuntzalari edo idazle bezala?

Bere xokoan, 20 urtez bere Kinkaileri-bizipide-lanen artean, hartuz, minuta bat hemen bertze bat han, igande arratsalde bat hor, eguerdi eta biak artean, horen laurden bat hortxet, ez du burutik utzi, finkatua zuen helburu bat: "Behar diat atsulutuki neure Beskoitzeko ama hizkuntzak dituen ahal bezainbat hitz, erranaldi bildu eta ulertu". Eta horra, bere barneko memorioa nola jorratu daukun, xehe-xeheki kasik irin bilakatu arte. Orai, metatu duen guzia, 'Hasian hasi' tituluaren pean, bi liburutan aurkitzen da. Duela 10 urte lehena agertu zuen eta aurten bigarrena. Lehen liburua, erranen ginuke, hitz labur batean sartuz, "teknikoa" dela, hor aztertzen baititu, Beskoitzeko aditza, deklinabidea, hitzen ahozkatzeak, bigarren liburua aldiz , erranen ginuke, 'popularra'goa dela, hor baititu, analisa linguiztikorik gabe, dien bezala, ezarri, ehunka, Beskoitzeko erranaldiak.

Halako tiria, gure Senpertar-Beskoiztarrak, nundik ukan duen jakiteko, dio duela 22 urte, Piarres Lafitte, linguizta famatuak erran ziola, "Euskararen ikerketa, osorik egitekoa zela", Henri Duhauk hori ez zuen sinetsi, bainan Lafitten erranaldia, desafio bezala hartu zuen eta bere baitan erabaki, bederen bere sort-herriko ama hizkuntzaren ezagutzari uztartuko zuela bere burua... Geroztik Henri Duhauk dio, Piarre Lafittek arrazoin zuela, herri, herrixka, kasik guzietan... oraino bizi den Euskararen ikerketak egitekoak direla...!

Henri Duhauren lanak, beharbada emanen luke pentsatzera pertsona bakartiar baten emaitza dela, bainan, berak ohartarazten dauku, zonbat, bere familiako guziek bai lagunek eman dioten errealki, edo, berdin, jakin gabe, inkonzienteki, laguntza ezin preziatuzko bat bere memorioa iratzartzeko. Liburuan 75 pertsona izendatzen ditu eta eskertzen.

Mintzairaren ikertzeak, denbora berean, maiz utzi du Henri Duhau pentsamenetan. Hor ditugu bere liburuen barnean, hainbat ikuspundu zorrotz: euskararen egoerari buruz... hainbat kezka, Euskararen galtzearen beldurrez... analisa frango... oharmenak... Bere ikerketa lanek erakutsi ere diote, kasik ahozkatzen bakarrik dugun mintzaira, literaturan, den bezala erabili ditaikela... edo bere Beskoitzeko mintzairaren hitzak eta errateko manerak, fonetikaz edo ahozkatze mailan desberdinak badira, konparatuz Senpertarrenekin, maizetan, funtsez eta beren erroengandik berdin berdinak direla, eta, horrek loriatzen du Henri Duhau, ikustearekin azken finean, Lapurtar euskalkiak, bere eremuetan duen batasuna... xagrinatzen ere batzuetan, ohartzearekin, asko euskaldun, bereziki Lapurdin, konplexu haundi batez, "pozoinatuak" direla, uste dutelakotz beren mintzaira ez dela aski ona, edo aski aberatsa, ontsa hitz egiteko, eskas dituztela, hitz berriak edo hitz garbiak. Hori ez du onartzen Henri Duhauk, "Bere xumeenean ere, euskarak badu balio haundia, eta hil ez dadin, dakigun bezala erabiliz, biziarazi behar dugu...!"

Hasian hasi liburua, aipamen labur-labur hunekin hesten dugu, eta, uzten, Henri Duhau bere baitan, milaka dituen, hitzen erdian.

"Burdin, suz gorritu batek bezala, beti bezain... Euskarak... markatua...!" ■

Auxtin Zamora



Henri Duhau, liburuaren egilea



TTIPI-TTAPA aldizkaritik

Ikus artikulu eder hunen transkripzioa ondoko orrialdean. Milesker Auxtin. H.D.

HASIAN HASI behar eta, Henri Duhau hasi zen… (transkripzioa)

Herrixka guzietan badira zonbait pertsona, xinpleki eta xumeki eguneroko urratsetan, urteak eta urteak lanean ari ezagutzen ditugunak, eta egun batez jakiten dugu ezin preziatuzko ideiak, ezagutzak edo dohainak dituztela beren fama sail berezi batzuetan daukatela eta hortaz beren aldameneko gehienek deus ez zakitela. Henri Duhau, nunbait, horietarik dugu, Senperen. Herritar askok ezagutzen dugu komertsant gisa, bainan zonbatek, hizkuntzalari edo idazle bezala?

Bere xokoan, 20 urtez bere kinkaileriako bizipide lanen artetik, hartuz minuta bat hemen, bertze bat han, igande aratsalde bat hor, oren laurden bat hortxet, eguerdi eta biak artean berdin, ez du burutik utzi finkatua zuen helburu bat: “Behar diat atsulutuki neure Beskoitzeko ama hizkuntzak dituen ahal bezainbat hitz, eta erranaldi bildu eta ulertu.” Eta horra bere barneko memorioa nola jorratu daukun, xehe-xeheki, kasik irin bilakatu arte.

Orai metatu duen guzia, “Hasian hasi” titulupean, bi liburukitan aurkitzen da. Duela 10 urte lehena agertu zuen eta aurten bigarrena. Lehen liburua erranen ginuke, hitz labur batean sartuz, “teknikoa” dela, hor aztertzen baititu Beskoitzeko aditza, deklinabidea eta hitzen ahozkatzeak. Bigarren liburua aldiz, erranen ginuke, “popularragoa” dela, hor baititu, analisia linguistikorik gabe, diren bezala ezarri, ehunka Beskoitzeko erranaldiak.

Halako tirria, gure senpertar-beskoiztarrak, nundik duen jakiteko, dio duela 22 urte, Piarres Lafitte, linguista famatuak erran ziola: “Euskararen ikerketa guzia egitekoa zela”, Henri Duhauk hori ez zuen sinetsi, bainan Lafitten erranaldia, desafio bezala hartu zuen eta bere baitan erabaki, bederen bere sort-herriko ama hizkuntzaren ezagutzari uztartuko zuela bere burua...

Geroztik Henri Duhauk dio Piarres Lafittek arrazoin zuela, herri, herrixka, kasik guzietan oraino bizi den euskararen ikerketak egitekoak direla...!

Henri Duhauren lanak, beharbada emanen luke pentsatzerat pertsona bakartiar baten emaitza dela, bainan berak ohartarazten dauku, zonbat bere familiako guziek, bai lagunek, eman dioten errealki, edo berdin jakingabe, inkonzienteki, laguntza ezin preziatuzko bat bere memorioa iratzartzeko. Liburuan 75 pertsona izendatzen ditu eta eskertzen.

Mintzairaren ikertzeak, denbora berean, maiz utzi du Henri Duhau pentsamedutan. Hor ditugu bere liburuaren barnean hainbat ikuspundu zorrotz euskaren egoerari buruz, hainbat kezka euskararen galtzearen beldurrez, analisia frango, oharmenak... Bere ikerketa lanek erakutsi ere diote, ahozkatzen dugun mintzaira, literaturan kasik den bezala erabil daitekeela edo Beskoitzeko mintzairaren hitzak eta errateko manerak fonetikaz edo ahozkatze mailan desberdinak badira, konparatuz senpertarrenekin, maizetan, funtsez eta bere erroengandik berdin-berdinak direla eta horrek loriatzen du Henri Duhau, ikustearekin, azken finean, lapurtar euskalkiak bere eremuetan duen batasuna, xangrinatzen ere batzuetan, ohartzearekin, asko euskaldun, bereziki Lapurdin, konplexu handi batez “pozoindatuak” direla uste dutelakotz beren mintzaira ez dela aski ona edo aski aberatsa ontsa hitz egiteko eskas dituela hitz berriak edo hitz garbiak. Hori ez du onartzen Henri Duhauk: “Bere xumeenean ere, euskarak badu balio handia eta hil ez dadin, dakigun bezala erabiliz, biziarazi behar dugu!”

“Hasian hasi” lana aipamen labur-labur hunekin hesten dugu, eta uzten Henri Duhau bere baitan milaka dituen hitzen erdian.

“Burdin, suz gorritu batek bezala, beti bezain euskarak markatua...!”

Auxtin Zamora

2-13 ▸ Sud Ouest
Samedi 29 novembre 2003

II HASPARREN Auteur du livre « Hasian hasi »

Rencontre avec Henri Duhau

■ Dans le cadre des animations en langue basque dans les médiathèques, l'Institut culturel basque propose une série de trois rencontres autour d'Henri Duhau qui vient de publier le deuxième tome du livre « Hasian hasi ».

Le premier rendez-vous est aujourd'hui, à 15 heures, à la Médiathèque d'Hasparren (centre multi-services Elgar).

Henri Duhau a fait un travail de recherche sur les particularités de la langue basque sur Briscous et ses environs proches. Natif de Briscous, il a ainsi permis de sauvegarder tout un patrimoine linguistique qui, peu à peu, disparaissait et qui mérite aujourd'hui d'être connu et surtout utilisé.

Pour ceux qui ne pourront assister à la présentation de ce travail sur Hasparren, la même opération sera réalisée le samedi 13 décembre, à 15 h 30, à la médiathèque de Saint-Palais et mi-janvier à la médiathèque de Cambo.

Pantxika MAITIArekin ibili nintzen eta haren laguntza guziz garrantzitsua izan zen.
Milesker bihotzez zuri Pantxika.

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN laguntzarekin, HASIAN HASI "birdena"ren presentatzea

—2003ko azaroaren 29an, Hazparnen,
—2003ko abendoaren 13an, Donapaleun,
—2004ko urtarrilaren 30ean, Kanbon

Duela hamar urte plazaratu nuen Beskoitzeko Euskararen lehen partea. Poxi bat idorra edo teknikoa zen hura: **aditza-**ren partea bereziki. **Ahozkatzea** eta **deklinabidea** ere aipatu nituen biziki inportantak baitira sail horiek gure hizkuntzaren ikasteko. Ordukotz, bigarren lan hau ere hasia nuen eta aipatu ere nuen bi milako bat erranaldi bilduak nituela. Geroztik beti emendatzen ari izan naiz beraz orai sei edo zazpi milako bat erranaldi biltzen direnaz geroz bigarren parte huntan.

Lehen partea eta bigarren hau zertako egin ditudan erretx da konprenitzea. Denek ikusten dugu gure hizkuntza geroago eta gutiago erabiltzen dela etxetan, lagunartean eta herriko plazetan. Sofrikario izigarri horrek pusaturik egina izan da bistan da lehen lehenik. Baina badu bertze arrangura bat ere, sahetsean, berdin handia naski: **egun guzietako euskara baten lantzearen beharra.** Eta landu nahi bada, lehenik behar da bildu...

Sekulako indarrak egin izan dira euskara irakasteko eskoletan, gau eskoletan eta abar. Ikerketa handiak burutu dira eta hortarik jalgi dira liburu batzu biziki maila gorakoak. Gogoa zen, gure bi aldeetako hizkuntzak (frantsesa eta espainola) hizkuntza guziz indartsuak eta distirantak direlakotz, euskararekin ere behar zela ahalik eta gorenerat heldu. Bide hortan egin, egiten eta eginen diren indar guziak baitezpadakoak dira eta denak osoki sutengatzen ditut.

Bainan hizkuntzeri behatzen bada, eta bereziki frantsesari, ikusten dugu segidan jendeak ez duela eskola handietan ikasi hizkuntza hura erabiltzen egun guzietako bizian; hizkuntza xeheagoko bat erabiltzen duela, zaluagokoa, arinagokoa eta ez beti gramatikala, itxuraz bederen. Beraz iduritu zait ordu dugula, guk ere euskaldunek, hizkuntza idatzi akademiko horren ondoan, mintzaira biziagoko bat sustatzea gure egun guzietako erran beharrak eta erran nahiak betetzeko.

Argazki edo foto bat badut hemen orhoitarazten daukuna Beskoitzen egin ginuen bertsulari pesta bat. Plaza guzia mukurru betea ikusten dugu eta jendea irri karkailaz ari. Hor diren erdiak bizi dira oraino baina heldu den Bixintxotan egiten balitz bertsulari saio bat, beldur niz bizi diren horietarik bihirik ez litakela jinen... Euskaltzale mundua ainitz emendatu da azken berrogoi urte hautan, zernahi jende, gaztea bereziki, lotu da lanari, baina moztura bat, uharla bat kasik erran nezake senditzen dutala militanteen eta bertze euskaldunen artean. Hori ez da dena estatu frantsesaren falta, telebistarena edo eskolarena; badukegu guhaurek ere gure hoben partea. Beharbada sobera fite, sobera gora, joan nahi ukan dugu, baharbada...

Lan hau doi bat berezia dela erran ditake. Iparralde huntan segurik ez baitut bertze gisa huntakorik ezagutzen. Bilketa lan frango egin izan da haatik baina gehienak hiztegiari lotuak edo bertzenaz erranaldi hoberenak, zuhurtzia handikoak bilduz bakarrik. Ene bigarren lan

hunek hiztegia doi-doia baizik ez du hunkitzen eta bere arrangura handia du ERRANALDIAK edo ERRAITEKO MOLDEAK BILTZEA ez bakarrik hoberenak baina DENAK, sinpleenak barne.

Hiztegiak badu bere garrantzia bistan dena. Hiztegia da: *Le vin* arnoa; *le pain* ogia; *la vache* behia eta abar... Baina hizkuntza baten sustatzeko hiztegiak ez du hainbertze balio, erraiteko maneretan behar dugu senditu hizkuntza baten balioa, indarra eta ekarpena. Erran nahi baita hitz horiekin zonbat gauza erraiten ahal den edo erranarazten ahal dugun eta hitz horiekin guziekin sortzen ahal ditugun erraiteko moldeak.

Mila aldiz ikusi izan dugu guziek frantses administrazionetik heldu ziren/ diren paperetan ez dela beti aise konprenitzea xuxen zer erran nahi duten. Maluruski gauza bera gertatzen da frangotan euskararekin ere. Euskaldun berri eta alfabetatuek, ohartu gabe, erabiltzen dituzte hitz batzu denek ulertzen edo konprenitzen ez dituztenak. Alta indar poxiño bat eginez geroz hatxemaiten ahal lukete denen konprenitzen ahal duten erraiteko moldea. Egia da sortzez euskaldunek eta gero alfabetatu girenek badugula abantail bat: baitakigu alfabetatu gabeek zer duten ontsa konprenitzen eta zer ez, Lapurdi-Baxenabarre huntan bederen.

Euskararen alde sekulako lanak egiten dituzte militanteek. Sekulako borrokak euskara sar dadin leku guzietan, bereziki leku publikoetan, lantegietan eta bertze. Lan eta borroka horiek behar-beharrezkoak dira eta sustengatzen ditugu gain-gainetik. Baina ene sinestea da, **ainitz lagun badezake ere**, legeak berak ez duela salbatuko euskara. Gaurko jendeak ez baitu bortxaz kurrituko nehorat; bere gogoaren arabera ibiliko baita azken batean; osoki atxikia baita bere libertateari.

Zer egin dezakegun beraz? Euskara maitatu eta maitarazterat entseiatu; ez dut ikusten bertze biderik. Euskararen maitatzea eta maitaraztea ez du legeak eginen ez eta estatu frantsesak are gutiago. Hori euskaltzaleen eta euskaldun guzien lana da. Gu guzien lana da. Egia da, haatik, gehiago lagunduak bagine errexkiago egin ginezakeela... Eta nola maitaraz euskara? Horra hor egitarau edo programa zabala ! Bainan goazen sinpleki. Lehen-lehenik mintzatu behar da euskaraz ahal den guziez: etxean, lagunekin, lanean, lan-arteetan, herriko plazan. Gero irakurri behar ginuke gehixago, Herria astekaria bederen gutienez. Eta liburuño batzu artetan bederen, zertako ez... Entzun ere irrati euskaldunak edo bertsulariak. Ikusgarri emaldiak segitu eta holako.

Bainan horien guzien gainerat —eta egungo ene griña berezia hortan da— baitezpada ohartu behar ginuke gure hizkuntzaren barne-aberastasuneri ez baita holakorik. Hain xuxen ene ustea da euskararen aberastasunik handienak egun guzietako hizkuntzan ditugula; ahozkatzearekin eta soinuarekin sekulako ñabardurak eta sendimendu mota guziak adiarazten ahal ditugula. Hor duela zinez euskarak bere betiko "erresuma" paregabea eta edozein hizkuntza bezain ona dela preseski gure harat-hunat guzien aipatzeko, haztatzeko, eztabadatzeko : hots, gure gogoaren agertzeko. Nola gureganatuko ditugu bertze "erresumak": eskola, lan mundua edo unibertsitatea, gure betiko erroen erresuma hori ahultzen edo areago galtzen balin bada?

Har dezagun pondu bat: TOka edo NOka mintzatzea, hori euskarak egiten baitu bakarrik gure inguruko hizkuntza bihibatek ez bezala. Anne-Marie Lagarde, xuberotarrak, berriki egin du lan bat miresgarria, liburu batetan argitaratu edo publikatu duena: *Les Basques: société traditionnelle et symétrie des sexes"*.

Bertzeak bertze, frogatzen dauku hor, psikologia eta psikanalizia jakintzak baliatuz, zer nolako garrantzia edo inportentzia lukeen HIKAKO forma horien erabiltzeak; zer ekarpen izigarria baden forma horien baitan, bakotxari erakusten duelarik:
- TOka egitean, **Hi gizon bat hiz** edo **hi mutiko bat hiz** ;
- NOka egitean, **Hi emazte bat hiz** edo **hi neska bat hiz.**

Forma horiek balio handia dute: jendeari bere nortasuna ezagutzen baitzaio hor, bakotxaren IZAITEA kondutan hartua baita. Eta gu ez gira ohartzen ere. NOKA egitea segurik galtzen ari da. Gaur ainitz aipatzen da gizon eta emazteen arteko berdintasuna, Ontsa konprenitu balin badut, Anne-Marie Lagarde-k dio ez direla gizon eta emazteak, denak berdin, nahas-mahas, ezarri behar eta bakotxari bere nortasun berezia erakustea dela hoberena. Horra beraz, jendetasunaren moldatzeko bide hortan, gure hizkuntzak arrapostu eder bat ekartzen duela bere barne egituratik...

Bertzalde, Francisco Varela neurobiologista handiak dio, hizkuntza ez dela bakarrik zerbaiten erraitea EDO entzutea/ manamendu baten emaitea EDO hartzea... Hizkuntza da **mintzalagunarekin lotzea**. Hain xuxen, gure hizkuntzak, bere lau tratamendueri esker, mintzalagunari erreialki lotzen gaitu.

Adibidez, "Etxe bat ikusi dut", hotz-hotza erraiteko partez, gure inguruko hizkuntza guziek dioten bezala, guk erran baitezakegu:

"Etxe bat ikusi diat" (TO-ka)
"Etxe bat ikusi dinat" (NO-ka)
"Etxe bat ikusi dizut" (ZU-ka)
"Etxe bat ikusi dixut" (XU-ka)

Eta forma horiek erabiliz geroz mintzalagunarekin "lotzen" gira egiazki erraiten dugunaren barnean "sartzen" baitugu.

(Francisco Varela aipatu baitut huna hitzez-hitz zer dion:

—*"Le langage n'est pas une transmission d'information mécaniste (émission/ réception) comme on le croit si souvent, ni un passage de commandes. Le langage est fondamentalement une manière de coupler des individus, pour la coordination de l'action")*

EUSKARA. Commerçant retraité, Henri Duhau, originaire de Briscous a écrit un 2e tome, consacré au basque de son petit village

L'auteur a recensé quelque 6 000 expressions courantes

■ Henri Duhau a beau avoir écrit son quatrième ouvrage, il n'a pas d'éditeur. Il en assure la diffusion seul. Il est vrai que ses écrits ne sont pas, du moins a priori, destinés au grand public, encore qu'ils puissent intéresser de nombreux bascophones. C'est en particulier le cas de « Hasian hasi » (« Commençons par le commencement »), deuxième volet consacré au basque de Briscous (1). Paru l'an dernier, le livre effectue un retour au Biltzar dans les bagages de son auteur. Cet enfant de Briscous, issu d'une famille paysanne nombreuse, dès son premier jour baigna dans l'eskuara, dans ce village du Labourd, influencé par le bas-navarrais voisin.



Henri Duhau PHOTO « SUD OUEST »

Installé à Saint-Pée-sur-Nivelle du fait de son mariage, Henri Duhau (commerçant à la retraite depuis un an) a eu tout le temps d'établir des comparaisons entre le basque de son village natal et le parler de son village d'adoption.

« L'essentiel tient dans des différences de prononciation, explique-t-il. Plus on utilise des mots rares, plus la proximité est grande. » Il a rassemblé quelque 6 000 expressions tirées de la vie quotidienne dans toute sa diversité.

« Le déclic, dit-il, ça a été la mort de mon père. J'ai réalisé qu'un patrimoine aussi important que la langue parlée risquait de disparaître. J'ai mis une vingtaine d'années pour rassembler tout ce matériau. J'ai vécu avec du papier et un petit crayon constamment en poche, je notais ce qui me venait en tête ou ce que j'entendais. J'ai mis presque vingt ans à tout rassembler. »

Sa mère. L'ouvrage, bilingue, (contrairement au premier tome écrit exclusivement en basque) doit beaucoup à sa mère Xane Duhau-Lafourcade, disparue à 93 ans, à son père, et au chanoine Pierre Lafitte en qui Henri Duhau voit une sorte de père spirituel. L'auteur est tout sauf un ennemi du basque unifié et du basque littéraire qui connut lui aussi de graves périls, mais il a ressenti le besoin impérieux de restituer par l'écrit les nuances de la langue vernaculaire. Certaines, comme le tutoiement féminin, sont en voie de disparition.

« En fait, ajoute-t-il, il faut se battre dans tous les domaines, dans le champ universitaire et littéraire certes, mais aussi dans ce domaine négligé alors que la transmission familiale est de plus en plus faible. »

La langue s'appauvrit, estime Henri Duhau, dans les médias parlés et écrits notamment : « Je constate que l'on utilise de plus en plus les mots au sens propre et non plus au figuré. Il faut de l'image ! »

C'est elle que restitue « Hasian hasi ».

: A.-M.B.

« Hasian hasi; Beskoitzeko euskara (Beskoitzeko Heskuara) » Le premier tome était consacré à la déclinaison, au verbe

SUD OUEST 2004-04-08

Antzerkia 2004/04/28ko testua: Henri Duhau

Gau eskolako ikasleak gira. Gau batez Gau eskolako gelan sartu ginelarik ohartu ginen usaian gure mahaina atxikitzen zuten parpainen ordez, horrelako liburu dorre bat bazela mahainaren zango gisa. Bainan halere mahaina maingu ! Mahainaren zuzentzeko, liburu bat hartu, ideki eta hostokatu genuen.

Ohartu gira Henri Duhauk egina zuela eta fenomenoa ezagutu nahi ukan dugu. Taldean nehork ez zuen ezagutzen eta hasi gira haren deskribapen ahal bezain zuzen baten asmatzen. Zenbat irri ez dugu egin!

Gu bezalako martzianoak badira lur honetan, eta egileak ez luke ametsetako lukinka izan behar holako lan pizu baten egiteko.

1. Bainan nor daiteke Henri Duhau ? Nola ikusten dugu ?

Gure ustez, horrelako lan baten erruteko, adina beharko du edo apez izan! *Edo biak*. Adin ttipia ez, segur!
Ez da goiz honetako xoria ?
Beharba gau xoria da, bainan hori ez da gure egitekoa.
Berdin apoarmatu baten adina du.
Nahiz eta, buruari buruz, elefante izan behar luke: buru handia segur ! Zenbat gauzaren gordaleku! Eta zenbat khe-ren gordagi ! Ez jakin Beskoitzeko belarra edo Senperekoa pipatu duen ! *Edo biak!*
Ondorioz liburu potolo bat!

2. Eta zergatik, zendako holako lana ?

Beste arrangura gutti hortan artzeko! Bainan ez dugu oraino atxeman zertako. Azari piper emateko ala gure gogoaren aberasteko. Gauza bat badakigu: liburu hau irakurri eta gure burua damajana edo hobeki erraiteko barrika edo pipa dirudi.

3. Eta ideiak nondik hartu ditu ?

Zenbat iturri behar izan dira hainbeste ideien atxemaiteko ?
Zenbat hiztegi husturik ?
Zenbat jakintsun jakingabeturik ?
Zenbat lamin mihikaturik ?
Zenbat debrurekin itundurik ?
Zenbat apez kurutzaturik ?
Zenbat amatxi gaitziturik ?
Zenbat kutzu katzakaturik ?

GARAZIKO GAU ESKOLA
Pantxika Maitiaren
laguntzarekin
2004-04-28

4. Orai bada garaia mamiaz mintzatzeko.

Hasian hasi bagenuke bihar goiz arte.
Hasian hasi bagenuke 407 orrialderen beltzatzekoa.
Hasian hasi, Beskoitzeko euskara ikas genezake eta gurea ahantz.
Hasian hasi, sobera ausart ez bagira, etsenplu bat hartuko dugu, sudurluze izan gabe.
Hemengo sudur motzek, sudur luzeek, sudur kakolek, sudur konkorrek, sudur faltsuek, sudur ona edo sudur fina balute, **beren** sudurpekoa, sudurraren erditan dutena, sudur puntan ezarri orde, sudurretik odolarena beldurrez, edo sudur baten uzteko lotsaz, sudur pean behar lukete.
Mantxut!
Un jour, je mettais le nez dehors et j'allai le nez au vent.
Je tombe nez à nez avec René, mon aîné.
Il m'a ri au nez, ça sentait l'arnaque à plein nez.
Comme il ne voit pas plus loin que le bout de son nez, je lui ai tiré les vers du nez. J'ai eu le nez creux, il avait fourré son nez dans mes affaires, alors, depuis, je l'ai dans le nez.
Maintenant, il a toujours un pet dans le nez, ça se voit comme le nez au milieu de la figure et il pique du nez, d'ailleurs il a la goutte au nez et il parle du nez.
A vue de nez, le nouveau-né lui passera sous le nez, ça, ça lui pends au nez.
J'ai gagné, les doigts dans le nez.

5. Eta honen ondotik zer ?

« Nik Gaaziko eskuaraz nahi nikexi holako liburu bat »
Aintzina kurri izenburua ukan lezake
Nik jadanik azala prest dut
Garaziko gau eskola sponsor, Henri Duhau egilea

Zer oroitzapena : Milesker Pantxika eta Garaziko gau-eskola. H.D.

INSTITUT CULTUREL BASQUE
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Lota - B.P. 6
64480 Uztaritze/Ustaritz
Tél. : 05 59 93 25 25
Fax : 05 59 93 06 84
e-mail : eke@wanadoo.fr

Uztaritze,
2004-05-04

Milesker abisu honen aipatzeaz, Merci de bien vouloir diffuser cette annonce. Pantxika Maitia

EUSKARAZ IRAKUR...

« Euskaraz irakurtzea gustukoa nuke baina ez naiz trebe eta gainera hitz berriak ez ditut ezagutzen ! »
Horrelako oharrak entzunik eta liburutegietako euskarazko liburuak lotan daudela oharturik, Euskal kultur erakundeak lau(*) irakurketa hitzordu proposatzen ditu Hazparneko mediatekan. Lehena maiatzaren 15an, larunbatez, goizeko 10etarik 11ak eta erdiak arte. Henri Duhau Beskoiztar-Senperekoak « Herria » astekarian, « Berria » egunkarian berdin ere liburuetan agertu artikulu batzu hautatuko ditu. Euskaraz irakurtzen trebatzea, berriez jabetzea, emeki emeki hitz berrien etxekotzea eta euskararen erabilera errextea dira finkatu xedeak. Nornahik parte har dezake, jin gustian Hazparneko mediatekara, maiatzaren 15an.

(Lau goizak hauek dira : maiatzaren 15 eta 29ak, ekainaren 12 eta 26ak)

Atelier de lecture en langue basque

Nombreuses sont les personnes qui parlent couramment le basque mais éprouvent quelques difficultés pour lire des livres ou même des articles dans leur langue maternelle.
Conscient de cette problématique, l'Institut culturel basque a contacté quelques ardents bascologues dont certains ont accepté d'animer des séances de lecture.
La médiathèque de Hasparren se propose d'organiser quatre rencontres autour de Henri Duhau, auteur de plusieurs ouvrages de recherche et qui saura insuffler sa passion de l'euskara.
La première aura lieu le samedi 15 mai 04, de 10 h à 11 h 30. Il proposera de reprendre des articles de l'hebdomadaire Herria, du quotidien Berria et quelques passages de livres écrits par des auteurs basques. Ce sera l'occasion de s'entraîner à lire couramment en basque.
Ces séances qui se dérouleront dans la convivialité, sont ouvertes à toutes les personne sachant déjà parler le basque.
(les quatre rendez-vous sont les suivants : les samedis 15 et 29 mai, les 12 et 26 juin)

Euskal kultura sustengatzen duen herriarteko sindikata eta euskal kultur elkarteak partaide.
Estadoa, Pirinio Atlantiarretako departamenduko Kontseilu orokorra, Akitania eskualdeko Kontseilua sustengatzaile.
Avec le partenariat du Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque et des associations culturelles basques.
Subventionné par l'État, le Conseil général des Pyrénées-Atlantiques, le Conseil régional d'Aquitaine.

Un certain agacement face à l'esprit dominateur des intellectuels officiels (basques, espagnols, français) m'encourage à franchir le pas, pour ouvrir non pas une porte - je n'ai pas ce pouvoir - mais une fenêtre à la recherche et à la libre expression d'Alatz Robles-Aranguiz. J'y suis poussé aussi par un sentiment de regret vis-à-vis d'un autre chercheur et auteur, Henri Duhau, originaire du même village de Briscous/Beskoitze, comme Jean de Lissarrague, Joanes Leizarraga, curé de La Bastide Clairence en Basse-Navarre, puis pasteur calviniste de cette paroisse, qui traduisit le nouveau testament en langue basque sur l'ordre de Jeanne III d'Albret, reine de Navarre et Dame souveraine de Béarn (Testamentu Berria, 1571). Les travaux d'Henri Duhau sur les caractéristiques locales de l'euskara de Briscous/Beskoitze n'ont pas eu l'écho qui leur était dû : du point de vue intellectuel, n'est-ce pas grave ?

Jean-Louis Davant (2009)

Extrait préface de :
"La langue Basque basque ou la Civilisation du Serpent"
(par Alatz Roblès-Aranguiz)

BESKOITZE

Beskoitzeko euskararen lekukoak
Mentaberrikobordatik

2005

Mentaberrikobordako OSPITAL bi ahizpek, Argentinan zuten Denis (edo Martin) beren anaiari idatzi gutunak :

— Marthe OSPITALek (ezkontzaz DUHAU) 1936ko hazilaren hamekan.

— Marie OSPITALek (ezkontzaz ESPIL) 1938ko buruilaren hemezortzian.

Bi gutun, guziz hunkigarriak

Orain ikus dezagun 'Hortzak izerdi'-n aipatzen den Sauveur Duhau haren amaren gutun bat, Argentinatik jin zaiguna.

Martak, (gutun hau idaztean, hamabi haurren amak; geroxago ukanen ditu oraino bertze biga) bazituen bi anaia Argentinarat joanak: Batita, anaietan zaharrena, eta Denis (hau batzuetan Martin deitzen dena).

Martaren gutun hori guziz hunkigarria zaigu. Argentinatik etorri denean, denak harritu dira : nigarretan ! Ez da lehen aldia, haatik, denboraz harat igorri gutunak orain hunat gibelerat itzultzen direla, bereziki azken urte hauetan harremanak anitzez emendatu eta errextu baitira bi kontinenteen artean. Baina zer idazkera pollita dugun hor: iduri du irakasle batena!

Hain da ederra laborarisa batena izaiteko nun dudak ukan baititugu berarena zen ala amets bertze norbaiti idatzarazia.

Gauzak xeheki azterturik, dudak eta zalantzak ezeztatuak dira: familiakoek segurtatzen dute: Bai Martaren eta beraren idazkera dugula hor. Xoragarria!

Ikus ere Martaren ahizparen gutun bat, berdin euskara ederrean idatzia, anaia berari, Martaren heriotze deitoragarria jakinarazteko.

Oharra. Urteari begiratuz, 2005a, ikusten dugu hemen lekukotasun guziz balios hauek etorri zaizkidala eskurat ene bi liburuak bukatu ondoan (1993 eta 2002). Atsegin eta zorion handiz ikusi dut haatik ene bilketak baieztatzen dituztela burutik buru.

Halere misterio handi bat gelditzen da enetzat : nolaz mintzo dira —bi ahizpak berdin— ZU-ka beren anaiari, hau doi bat zaharragokoa bazen ere, TO-ka egiten delarik anaieri usaian Beskoitzen, anaia izanik ere 10 edo 20 urte zaharragoa ? H.D.

Marthe DUHAU sortzez OSPITAL
(Argazkia: 1933koa © D.R.)

Briscous Le 11 Novembre 1934

Eme Onaia maite maitea

Hasten noutan bi herroren eguiten gure herrien aspaldio orde suri'emaitko gu oro arras onta guituke yainko maitari esker eta guita bera dautsu gu desiratzen suri ere Denis maitea oraj eta betki gure bici guciaren beraz Denis maitea badiru bi ourthe ez dagola sien beririk bilate puntan bi ourthe arrapostu eguin nitoun, hatik ez oneu sinjin erreculitu zakiseko lettra batchan hala ikusi nitoun. beraz oraj ikhusiko puncu arrapostu oukhanen dauez. Batitari ettu batio harrez ez dikeu gueki agoz, ikhiqitu naki bereas ez takeku eguinez gu ferrecsio lekhu berin guituke 4 14 pquerrekin eta oro otagarri guchuk yainko maitari esperak bedratzi mouthiko bortz nesatoko bi sagarrenak Etchin berze biak Helsten bat mouthik eta berze bat aotz ekhasten Paulsta Batita asseua nesatoki sei bilate helduden oustaikin baitituk bi mouthiko hominiouekin

↳ ÉSTA CARTA ESTÁ FIRMADA POR: MARTHE DUHAU

Briscous le 11 Novembre 1936

Ene anaia maite maitea,

Hasten nousou bi lerroren eguiten gure
berrien aspaldiko orde suri emaiteko gu oro
arras onsa guitusu Yainko maiteari esker
eta guisa bera dausugu desiratzen suri ere
Denis maitea orai eta bethi gure bici gucian.
beraz Denis maitea badisu bi ourthe ez
dugula sien berririk hilate huntan bi ourthe
arrapostu eguin nisoun: hatik ez omen sinin
errecebitu Akiseko lettra batetan hala ikusi
nisoun. Beraz orai ikhusiko hunen arrapostu
oukhanen duunez. Batitari etsu balio harrek ez
disu guehiago iskiatu nahi borchas ez takesu
eguines (?) gu bethiko(?) lekhu berin guitusu,
14 haurrekin eta oro osagarri onekuk Yainko
maiteari eskerak bederatzi mouthiko bortz neskatoko.
bi saharrenak etchin berse biak Heletan bat
mouthil eta berse bat aotz ikhasten Paul eta
Batita askena nescatokoi sei hilate heldu den
oustailin baitisut bi mouthiko kominioneko

ÉSTA CARTA ESTÁ FIRMADA
POR : MARTHE DUHAU

(Ikus ene transkripzio literarioa 158. orrialdean H.D.)

Andre eta martin beraz Denis gaitua
ze nohutse benengo beraz questhoma
berri on gatu aurthen ourthe sarra
quinitoen biciki oqaiz batere ez mohatzik
batere ez arthe gutu orai oqui equiten
ari quitutse hasita baita alainan
beti bah ez hil sancoutoie ourde bah
ere bai baik tutsu abantzatzeko afin
goitin gain ebola gain. hor ere Denis
maitea ficintatzen ditut misseria
berak dela ettusilla berri on handik
igorratse Othoi tuk beden oron berriak
noun eta nola sistu Batitari equin
nancotsu ejaindu ourthin ba equia
behaitut eran serbaitu galdia ere equin
nancotsu hauribatu hominiouak prefaseke
et santatum arrapostutik ere equin nik
ez bardin hartzen dizu bai bestela
ogaiso Batitak ebaba Esco. du sancola
ere ez santatum ungiano igorri
beraz Denis maitea hauribide guciak
ountsa tutse Jaines bi hauri Martin
bi hauri Magnigne eta hestiqan ebaba
batekin bersik eki Leon senan ebaba
ere Escondu dutse Biarritzen

André eta Martin beraz Denis gaisua
se nahusu hemengo berriez questione
berri on guti aurthen ourthe charra
guinisoun biciki oguik batere ez mahatsik
batere ez arto guti orai ogui eguiten
ari guitusu hasila baita alainan
behi bat ere hil saucousou ourde bat
ere bai hoik tutsu abantsatseco afin
goisin join ahala join. Hor ere Denis
maitea pensatsen disut miseria
berak diela estusilla berri on handik
igorratsu othoi suk beden oron berriak
noun eta nola sisten Batitari eguin
nancosoun yoin den ourthin ba eguia
behaisut erran serbaiten galdia ere eguin
nancosoun haur baten kominioneat prepaseko
ez sautasun arraposturik ere eguin nik (?)
ez bardin hartzen disie bai bezala (?)
gaiso Batitak alaba escondu sancola
ere ez sauntasun eundano igorri
beraz Denis maitea haurbide guziak
ountsa tutsu Yoines bi haur Martin
6 haur Magnegne Apheztegian alaba
batekin bersik sehi Leon senan alaba
ere escondu dusu Biarritzen

Ceraz orai horra heriengo berriak
Cetki sure lettrari beha egoncen nousou
sothoi ere Cadistek bayquickin solboue
atken bau eta ekhakitek nola bekhar
dyan igorri handia baita, ceraz funtan
finitzen ditek ene lettra sure berri
oncen ebfcrantzen milla millaca goraingo
ge quicen phartez Batetari ere rori
gure partez mila goraingi ser din ez
ikhiriatzeko Batita gousiari ere milaca
goraingi dila bi hilate ikan quituke
Batita eta biak. Etegorrian Otoba
ikhba gaicho baicen ikhustin sermanera
kristin diena Otoba makhilekin arras
maikratuga ikhba gaichuo phensa 80
urthe bi biak sermancran diren
prango intresin eta ori eta biem
manera kristin oro Batitak balikeke
oraitekhuga ban estimatuga litakeke
lehen bano goiego khar parekin Cetki
samour tuke hauzik ez dike Cetki
hokin khor bat apurtin dute ceraz
adio Denis gaicho gaituga ehan fo
oron haiez quizene partez sainbaik
oldi aiphatzen disoustegu lehenek istoriouak
Martthe Duhau

beraz orai horra hemengo berriak
bethi sure lettrari beha egonen nousou
fothoi ere badisut haur guciekin salbou
asken hau eta estakizut nola behar
duan igorri handia baita beraz huntan
finitzen disut ene lettra sure berri
onen esperansan milla millaca gorainci
gu gucien pharthez Batitari ere orori
gure parthez mila gorainci ser din ez
iskiriatzeko Batita cousiari ere milaca
gorainci dila bi hilate isan guitusu
Batita eta biak Etchegorrian osaba
isaba gaicho haien ikhusten ser manera
tristia diina osaba makhilekin arras
maikhatuya osaba gaichua phensa 80
ourthe bi biak ser maneran diru
frango intresin eta oro eta heien
manera tristia oiso Batitak balikesu
orai lekhuya han estimatuya litakezu
lehen bano Joines char harrekin bethi
samour tutsu haurrik ez disu bethi
kokin tchar bat Ahurtin dusu beraz
adio Denis gaiso gaisua ehun (?) pot
oron partez guciz ene parthez zoinbait
aldi aiphatzen sioustegu leheneko istoriouak
Marthe Duhau

(Ortografia, Hasian Hasiren bidetik xehetasun guzietan sartu gabe. HD)

[Beskoitze 1936ko hazilaren hameka]

Ene anaia maite-maitea,

Hasten nuzu(1) bi lerroren egiten gure berrien aspaldiko orde(2) emaiteko. Gu oro arras ontsa gitutzu(3) Jainko maiteari esker eta gisa bera dautzugu desiratzen zuri ere Denis maitea, orai eta beti gure bizi guzian.

Beraz, Denis maitea, badizu(4) bi urte ez dugula zuen berririk, hilabete huntan bi urte arrapostuia egin nizun(5) : haatik ez omen zinuen errezebitu Akizeko letra batetan hala ikusi nizun(5).

Beraz orai ikusiko hunen arrapostu ukanen dugunez. Batitari ez dizu(6) balio, harek ez dizu(6) gehiago izkiriatu nahi : bortxa(z) ez ditakezu(7) eginez (?).

Gu betiko leku berean gitutzu(3): 14 haurrekin eta oro osagarri onekoak Jainko maiteari eskerrak : bederatzi mutiko, bortz neskatoko. Bi zaharrenak etxean, bertze biak Heletan, bat mutil eta bertze bat arotz ikasten : Paul eta Batita. Azkena, neskatokoa, sei hilabete.

Heldu den uztailean ba[di]titzut(8) bi mutiko komunioneko: André eta Martin.

Beraz Denis gaixoa zer nahi duzu hemengo berriez kestione, berri on guti, aurten urte txarra ginizun(9) biziki : ogirik batere ez, mahatsik batere ez, arto guti ; orai ogi egiten ari gitutzu(3) hazila baita alabainan ; behi bat ere hil zaukuzu(10) ; urde bat ere bai ; horik [di]tutzu(11) abantzatzeko, afin... Goazen, joan ahala joan.

Hor ere, Denis maitea, pentsatzen dizut(12) miseria berak direla ez duzuela berri on handirik ; igorratzu otoi zuk bederen ororen berriak nun eta nola zirezten ; Batitari egin nakozun(13) joan den urtean ; ba egia behar dizut(12) erran zerbaiten galdea ere egin nakozun(13) haur baten komunionerat preparatzeko ez zautazun(14) arraposturik ere egin, nik (?) ez bardin hartzen dizie(15) bai bezala (?); gaixo Batitak alaba ezkondu zankola(16) ere ez zautazun(14) egundaino igorri.

Beraz, Denis maitea, haurbide(17) guziak untsa ditutzu(11) : Joanes[ek] bi haur ; Martin[ek] 6 haur ; Mañeñe Apeztegian alaba batekin, bertzeak sehi ; Leon zenaren alaba ere ezkondu duzu(18) Biarritzen.

Beraz orai horra hemengo berriak; beti zure letrari beha egonen nuzu(1); fotoa ere badizut(19) haur guziekin salbu azken hau; eta eztakizut(20) nola behar duan(21) igorri, handia baita.

Beraz huntan finitzen dizut(12) ene letra, zure berri onen esperantzan; mila milaka goraintzi gu guzien partez. Batitari ere, orori, gure partez mila goraintzi: zer din(22) ez iskiriatzeko...

Batita kusiari ere milaka goraintzi dila(23) bi hilate(24) izan gitutzu(3), Batita eta biak, Etxegorrian osaba izaba gaixo haien ikusten: zer manera tristea diina (25) osaba[k] makilekin, arras maikatuia. Osaba gaixua, pentsa 80 urte, bi biak zer maneran. Diru frango intresin(26) eta oro: eta heien manera tristea! Oizo(27), Batitak balikezu(28) orai lekuia han, estimatuia litakezu(29) lehen bano(30). Joines txar(31) harekin beti samur tutzu(11). Haurrik ez dizu(6): beti kokin txar bat. Ahurtin duzu(18).

Beraz, adio Denis gaixo-gaixoa, ehun (?) pot oron(32) partez, guziz ene partez: zonbait aldi aipatzen ziuztegu(33), leheneko ixtorioak.

Marthe Duhau

(1) niz edo naiz ZU-ka
(2) aspaldiko partez
(3) gire edo gira ZU-ka
(4) badu ZU-ka
(5) nuen ZU-ka
(6) du ZU-ka
(7) ditake ZU-ka
(8) baditut ZU-ka
(9) ginuen ZU-ka
(10) zauku edo zaiku ZU-ka
(11) dira edo dire ZU-ka
12) dut ZU-ka
(13) nion edo nakon ZU-ka
(14) zautan ZU-ka
(15) dute ZU-ka
(16) zakola edo zitzaiola
(17) haurride
(18) da ZU-ka
(19) badut ZU-ka
(20) ez dakit ZU-ka
(21) dudan edo dutan
(22) zer duen
(23) duela
(24) hilabete
(25) duena
(26) interesean (avec intérêts)
(27) orizu
(28) baluke ZU-ka
(29) litake ZU-ka
(30) baino
(31) Joanes txar
(32) ororen
(33) zaituztegu

Marie ESPIL sortzez OSPITAL
(Argazkia: 1938koa © D.R.)

CAFÉ RICHELIEU

Veuve Espil, Propriétaire
Place de l'Hôtel-de-Ville
DAX
(Landes)

fr 1.69

DAX, le 18 Septembre 1931

Ene anaiya maite maitea
Ishibatzen daunit ikerro hori gure berriz
igorteco gu gunac arras untsa gaitzen
gaineko maiteari esker eta guiza bera daukagu
lehiratzen bethi aspaldian ishibatu nahia
egon nuen gaicho Martha hil zuen
gaichoa hamalau hauren ama ourthe bat
basisin eri zela gaiswa marfandi gaisto
batetarik sobera egonic miritzairat yuan
zabe guero yuan denin berantegui zisin
gaichoa potzinertu dun eta guero yuan
gaichoa oraino behar lekhutic aski hauz
bi ourthe eta ordi eta zaharrenac hogoi
ourthe beharrez nescatzoa dun badiñe
beharra gaiso Martha terible dun 43
ourtdlan banan sa naun berseric esin
guin bersetan oro untsa tutzu
familia gunac Martinez sei haur denac
ascarac yuanezec biga ederrac ignac
fan bi alaba neharenac escondunac
Maguenec ere neharena escondiya ehun
nic ere bat escondunza zian bigarrena
itzdri icorcs basinera osai zirin guizen
den oraino 3 dun escondunza

↳ ÉSTA OTRA CARTA LA FIRMA : VEUVE ESPIL

CAFÉ RICHELIEU DAX le 18 septembre 1938
Veuve Espil, Propriétaire
Place de l'Hôtel-de-Ville
DAX (Landes)

Ene anaya maite maitea,

Iskibatzen dausut bi lerro suri gure berrien igorteko. Gu gusiak arras untsa gitusu Jainco maiteari esker eta gisa bera dausut desiratsen. Beti aspaldian iskibatu nahia egon nusu. Gaicho Martha hil saukusu, gaichoa hamalau haurren ama. Ourthe bat basisun eri sela; gaisoa, marfandi gaisto batetaric sobera egonik miricourat yuan gabe; guero yuan denin, berantegui sisun. Gaichoa potrinertu dusu eta guero yuan. Gaichoa, oraino behar lekhutik: asken haurrak bi urte eta erdi eta saharrenak hogoi ourte. Beharric nescatecoa dusu: badisie beharra. Gaixo Martha, terrible dusu 43 ourthetan, banan ser nausu berserik esin eguin. Bersetan oro untsa tutsu familia gusiak. Martinec sei haur, denac ascarrac. Yuanesec biga, ederrac. Agnac lau, bi alaba saharrenak esconduyak. Magnegnec ere saharrena eskonduya eta nic ere bat esconduya, Jean bigarrena. André, icous basinesa orai soin gisen den oraino; es dusu esconduya

ÉSTA OTRA CARTA LA FIRMA : VEUVE ESPIL

(Ikus ene transkripzio literarioa 164. orrialdean H.D.)

berriac soldado ser hiltzenac frii
gaucho Denis eg dusque batere aldari huntat
ylero idesjarie gaubac phentben diri aguia
aldarai huntan baino aferac hobeki yohanditu
hemen eg dum que higgo comersioac deus balio
eta Batilla gaiso eta harren familia nola die
eg diru secular ochoan berric beden igorratsi
berriac orai badin aurthea ishibatu nila
yan espontu pure erraten nilaikan nola escomu
sen eg dirut behinere urthan eraposturic aguian
oro untsa siste ethai igorratsu ne bedarren
berriac Denis gaichoa seren gure berriac
plaser eguiten daucoure berag hemen eg diru
deus berriazpiric horat igortia pena balio
due nic orai neguin baste frile aurthen
ereoltac asti siac situm eta hor nola
yohan die aferac berag horra gure berri
guziac nila eta nilaca gorainsi gu
gusien piartez ne gaiso Denis igorosu
photo sombil aldis beden eta Batitari eta
harren familiazere nilacq goraiyi
eta nila potez adiore gaiso Denis
ere are ba frile frica

A^re Epi^e C

lauec soldado serbitsuyac fini.
Gaicho Denis, es dusuya batere aldarri huntat
yiteko ideyarik? Gaichoa pensatsen dusu agian
aldarri huntan baino aferac hobeki yohan direla:
hemen ez dusu gehiago komersioac deus balio.
Eta Batita gaisoa eta harren familia nola die?
Ez disu secoulan nehoren berric. Beden igorratsi
berriac. Orai bardin urtea iskibatu nila,
Jean esposatu zenean erraiten nilaikan nola esconsen
zen, ez disut behin ere ukhan arraposturic. Agian
oro untsa siste. Otoi igorratsu zuc bederen
berriac. Denis gaichoa, seren guri berriec
plaser egiten daucousie. Beraz hemen ez disugu
deus berriagoric horrat igortia pena balio
duenic. Orai neguya haste fite. Aurthen errecoltac
aski onak situsun. Eta hor, nola
yohan die aferac? Beraz horra gure berri
gusiak. Mila eta milaca gorainsi gu
gusien partez. Su, gaiso Denis, igorrasu
photo zonbeit aldis beden eta Batitari
eta harren familiari ere milaca gorainsi
eta mila pot. Ez adioric gaiso Denis.
Sure arreba fidel bizico[19].

Vve Espil

(Ortografia, Hasian Hasiren bidetik, xehetasun guzietan sartu gabe. HD)

CAFÉ RICHELIEU [Akize 1938ko buruilaren 18a]
Veuve Espil, Propriétaire
Place de l'Hôtel-de-Ville
DAX (Landes)

Ene anaia maite-maitea,

Iskribatzen dautzut bi lerro zuri gure berrien igorteko(1). Gu guziak arras untsa gitutzu(2) Jainko maiteari esker eta gisa bera dautzuet desiratzen.

Beti aspaldian iskribatu nahia egon nuzu(3). Gaixo Marta hil zaukuzu(4), gaixoa hamalau haurren ama. Urte bat bazizun(5) eri zela; gaixoa, marfandi gaisto batetarik sobera egonik medikurat joan gabe; gero joan denean, berantegi zizun(6). Gaixoa poitrinertu(7) duzu(8) eta gero joan. Gaixoa, oraino behar lekutik: azken haurrak bi urte eta erdi eta zaharrenak hogoi urte. Beharrik neskatekoa duzu(8): badizie(9) beharra. Gaixo Marta, terrible duzu(8) 43 urtetan, bainan zer nahi duzu bertzerik ezin egin.

Bertzetan oro untsa [di]tutzu(10) familia guziak. Martinek sei haur, denak azkarrak. Joanesek biga, ederrak. Añak lau, bi alaba zaharrenak ezkonduiak. Mañeñek ere zaharrena ezkonduia(11) eta nik ere bat ezkonduia, Jean bigarrena. André, ikus bazineza orai zoin gizen den oraino; ez duzu(8) ezkonduia. Lauek soldado zerbitzuiak fini.

Gaixo Denis, ez duzuia batere aldarri(12) huntarat jiteko ideiarik? Gaixoak pentsatzen duzu (?) agian aldarri(12) huntan baino aferak hobeki johan direla: hemen ez dizu gehiago komertsioak deus balio.

Eta Batita gaixoa eta haren familia nola dire? Ez dizu[gu](13) sekulan nehoren berririk. Bederen igorratzue berriak. Orai bardin(14) urtea iskribatu nuela, Jean esposatu zenean erraiten nuelarikan(15) nola ezkontzen zen, ez dizut behin ere ukan arraposturik.

Agian oro untsa zirezte. Otoi igorratzu zuk bederen berriak. Denis gaixoa, zeren guri berriek plazer egiten daukuzie(16). Beraz hemen ez dizugu(13) deus berriagorik horrat igortea(17) pena balio duenik. Orai neguia haste fite. Aurten errekoltak aski onak zitutzun(18). Eta hor, nola johan dire aferak? Beraz horra gure berri guziak.

Mila eta milaka goraintzi gu guzien partez. Zu, gaixo Denis, igorratzu foto zonbeit aldiz bederen eta Batitari eta harren familiari ere milaka goraintzi eta mila pot. +

Ez adiorik gaixo Denis. Zure arreba fidel biziko(19).

Vve Espil

(1) igortzeko
(2) gire edo gira ZU-ka
(3) niz edo naiz ZU-ka
(4) zauku ZU-ka
(5) bazuen ZU-ka
(6) zuen ZU-ka
(7) *Atteinte d'une maladie pulmonaire.*
(8) da ZU-ka
(9) dute.ZU-ka
(10) dire edo dira ZU-ka
(11) Piarres Duhau, aita zena
(12) alderdi
(13) dugu ZU-ka
(14) ≈ menturaz
(15) nuelarik ≈ *lorsque/*
nuelarikan ≈ *alors que*
(16) daukute ZU-ka
(17) igortzea
(18) ziren ZU-ka
(19) bizi guziko

Arbola genealogikotik

<table>
<tr><td rowspan="4">Henri DUHAU

(Lantto hunen egilea)</td><td rowspan="2">Aita :

Piarres DUHAU</td><td>Aitatxi :

Xalbat DUHAU [1]</td><td>Aitatxiren anaia :

Batista DUHAU [1]</td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>Amatxi :

Mañeñe OSPITAL

(ezkontzaz DUHAU) [1]</td><td>Amatxiren ahizpa :

Marta OSPITAL

(ezkontzaz DUHAU) [1]</td><td>Amatxiren ahizpa :

Marie OSPITAL

(ezkontzaz ESPIL)</td><td>Amatxiren anaia :

Denis OSPITAL

(Ameriketan) [2]</td><td>Amatxiren anaia :

Batista OSPITAL

(Ameriketan)</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Ama :

Jeanne LAFOURCADE</td><td>Aitatxi :

Jean LAFOURCADE</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td>Amatxi :

Mañeñe OLHATS</td><td colspan="4"></td></tr>
</table>

---

[1] Gure kuadroaren irakurtzea laguntzeko erran dezagun : bi anaia Xalbat DUHAU eta Batista DUHAU Labiagerrekoak ezkondu zirela Mentaberrikobordako bi ahizpekin : Mañeñe OSPITAL eta Marta OSPITAL.

— Xalbat eta Mañeñe DUHAU -- OSPITALek lau haur ukan zituzten (zaharrena gure aita zena ; denak zenduiak)

— Batista eta Marta DUHAU -- OSPITALek hamalau haur ukan dituzte (bat bizi).

[2] Ameriketarik jin diren paperetan « Martin » izena emaiten dakote, Beskoitzen aldiz beti « Denis » deitua izan denari. Izena aldatu ote zuen / zakoten ? Ala oraiko iskribatzailearen huts ttipi bat dugu hor ?

Beskoitze Mentaberrikobordako Louise eta André DUHAU kusiek 2005eko Abendoaren 4an erakutsi gutunetarik egina.

H.D.

EUSKAL ARGENTINA ELKARTEAREN 2006eko BIDAIA (4)



J.C. Duhau, Dionisio El Vasco osabarekin

BESKOITZETIK ARGENTINARA, OSPITAL ANAIAK

Joan den udazkenean Euskal Argentinak antolatu bidaiaz baliatu gara Argentinan bizi den gure familiaren ezagutzaren egiteko.
Marta Ospital ene Beskoitzeko amatxiren bi haurride Argentinara herbesteratu ziren. Jan Batita eta Denis deitzen ziren. Jan Batita, bere andrea zuen Arnegi Uhaldeko Mariana Etchemendy eta beren hameka hilabeteko Ernestina alabañoa, 1912 an untziz joan ziren, berekin zoatzila Pierre Semicourbe beste Beskoiztar bat eta Marianaren hiru anaia. Bordeleko portutik abiatu ziren eta hilabete bat osoa eman Hego Amerikara jo arte.
Buenos Aireseko portuan igurikatzen zituen Bernardino Acostak egina zien laneko segida Alta Gracia herriko estantzia batzutan. Urte batzuren buruan baztertu mozkinekin lurrak erosi zituzten, tanboak muntatu eta behi esneari lotu.
Inguru haietan ezagunak omen ziren Ospital bi anaiak hain ziren azkarrak indarkako lanetan. Lanak ez omen zituen trabatzen kantuz aritzetik eta beste hainbat tokitan bezala "Los Vascos" izenordez deitzen zituzten. Beren eginbide guzien artetik familiari letra batzu igortzen zizkioten, euskaraz idazten zituztenak. Azkenik idatzia 1945 ekoa zen, eta hain zuzen, letra honi esker gara berriz harremanetan sartu haien haur eta arrahaurrekin.
Ene andrea lagun, Marta eta Alain kusiak eta Maite eta Jean Jacques adixkidekin abiatu gara beraz Argentinara. Ezin ahantzizko ongi etorria eskaini digute eta ikustekoa zen Jan Batitaren semea den Dionisio El Vascoren atsegina. Laurogeitahamar urte dauzka eta gure aiduru zegoen bihotza pilpil eta nigarra begitan.
Azken astean ene andrearen kusiak diren Juan Carlos eta Luis Alberto Charritonen ezagutza egin ginuen. Hauen aitatxi Oragarre Bidegainberritik joana zen Argentinara.
Familiako bisita egin ondoren Cordobako Euskal Astera joan gara. Urtero antolatzen den besta da, nun dantza, pilota, musika ala mintzaldiak eskaintzen zaizkien Argentinako eta mundu osoko euskalduneri. Harritu egin gaitu hemendik hamahirumila kilometretan hoinbeste jende gazteren ikustea euskal dantza eta kanta emaiten.
Bidaia ezinago goxoa egin dugu giro hoberenean, Pierra Lako Euskal Argentinako zuzendaria eta Beñat Minondo laguntzaile genituela. Elkarte honek segi beza Argentinako eta Euskal Herriko familien arteko loturen sortzen eta indartzen eramaiten duen obra baliosa.

Jean Claude Duhau Beskoiztarra. (gero beretik)

EUSKAL ARGENTINA ELKARTEAREN BILTZAR NAGUSIA
martxoaren 25ean, igande goizeko 9.30etan
Donibane Garaziko Herriko Etxean.
Ondotik bazkaria Donazaharreko Mendy ostatuan

HERRIA 2007-03-22

Eskerrik bizienak bere diruztatze eta laguntza guzientzat :
Euskal Kultur Erakundeari :

Pantxoa Etchegoin, zuzendaria ;
Teresa Lekunberri, etnologoa ;
Jakes Larre, teknikaria.

Vifs remerciements pourson aide financière et autres :
à l'Institut Culturel Basque :

Pantxoa Etchegoin, directeur ;
Teresa Lekunberri, ethnologue ;
Jakes Larre, technicien.

Janvier 2020 Urtarrila. H.D.